Conforme a lo dispuesto en el artículo 134 del vigente Reglamento de la Cámara, la comisión dispondrá de un plazo de siete días hábiles, siguientes al de esta publicación, para acordar la celebración de comparencias de miembros del Gobierno que hayan sido solicitadas por los grupos parlamentarios.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**



**EUSKADIKO GARDENTASUNAREN LEGE-PROIEKTUA**

Azken urteotan, gure artean ekimen bat baino gehiago egon da Euskal Autonomia Erkidegoan lege araututa uzteko, denen argigarri eta ondo, zer den gardentasuna; izan, giltzarria baita; politikagintzaren diseinu aurreratu ororen gakoa gure ustez, eta ez, soilik, gobernantza berriari eta gobernu onari buruzko doktrina-ildoen elementu nagusia, hori ere bai, zalantzarik gabe. Bada, lege hau ekimen horien azken burua da.

Euskal Autonomia Erkidegoan orain arte ez da garatu lege bat gobernu irekiaren kultura osorik bultzatuko duenik, bultzatu ere nazioarteko estandarrei jarraituz, gardentasunean oinarriturik, integritatean, kontuak emateko obligazioan eta herritarren partaidetzan, denak ere printzipioak baitira. Hala ere, bada hamarkada bat Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa bera eta toki- eta foru-administrazio guztiak gobernu irekia bultzatzeko politikak, arauak, planak eta tresnak garatzen hasi direnetik, zein bere erritmoan eta mailan. Erakundearteko lankidetzaren adibidea da, 2018an, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta hiru hiriburuetako udalek erabaki izana hautagai-zerrenda bateratu bat aurkeztea Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzaren, OGPko tokiko kide gisa parte hartzeko. Euskadi, horrela, Batasuneko kide diren munduko 20 eskualdeetako bat bihurtu zen. Harrezkero, Erakundearteko 2018-2020 Ekintza Plana garatu da, eta, gaur egun, 2021-2024 Ekintza Planean murgilduta gaude.

Tesiak dioenez –eta gu ados gaude– arduradun politikoek erraz onartzen baldin badute inoren begipean egotea, eta herritarrek, erakundeen gardentasun benetakoari esker, ondo baldin badakite nola hartzen diren eragiten dieten erabakiak, nola erabiltzen diren funts publikoak, zer irizpide maneiatzen diren denon eta bakoitzaren ongizatean zeresana duten politika publikoak eta gizarte-helburuak erdiesteko, hots, gardentasuna benetan gardena bada, orduan, errazagoa da herritarrek ere gai publikoetan hobeto eta oparago parte hartzea; azken batean, orduan etor daiteke demokraziaren eraberritze desiratua, orduan izango ditugu, behingoagatik, ondorio positiboak eraginkortasunean eta efizientzian, baita herrialdearen hazkunde ekonomikoan bertan ere.

Geriza berezia eta aldi berean noranahikoa du gardentasunak, eta, hortxe kokaturik, legeak badu orobat nolabaiteko aniztasuna helburuetan eta xedeetan. Labur beharrez, bi ildo nagusitan banatuko ditugu:

Alde batetik, baditugu kudeaketa-tresna nagusi batzuk, eta haien legedia zehatzaren garapena ere

**PROYECTO DE LEY DE TRANSPARENCIA DE EUSKADI**

La presente ley culmina diversas iniciativas, producidas a lo largo de los últimos años, para implementar en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi una regulación legal, cabecera y apropiada, sobre el concepto central de la transparencia, que más allá de su protagonismo indudable en las corrientes doctrinales sobre la nueva gobernanza y el buen gobierno, interpretamos que se ha erigido en el elemento clave de los diseños avanzados de toda acción política.

Hasta el momento no se ha desarrollado en la Comunidad Autónoma de Euskadi una ley que impulse de forma integral la cultura del gobierno abierto, siguiendo estándares internacionales, basado en los principios de transparencia, integridad, rendición de cuentas y participación ciudadana. Sin embargo, todas las administraciones bien del nivel local, foral o la propia administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, desde hace una década, y con ritmos y niveles diferentes, han ido desarrollando políticas, normas, planes y herramientas de impulso al gobierno abierto. Como ejemplo de colaboración interinstitucional tenemos que, en el año 2018, el Gobierno Vasco, las tres Diputaciones Forales y los Ayuntamientos de las tres capitales, acordaron presentar una candidatura conjunta ante la Alianza Internacional para el Gobierno Abierto para participar como miembros de OGP local. Euskadi se convirtió así en una de las 20 regiones del mundo miembro de la Alianza, y desde entonces se ha desarrollado el Plan de Acción Interinstitucional 2018-2020, y en la actualidad se encuentra en ejecución el Plan de Acción 2021-2024.

Suscribimos la tesis de que cuando los responsables públicos se someten con facilidad a escrutinio y cuando la ciudadanía, gracias a los niveles reales de transparencia que alcanzan sus instituciones, puede conocer cómo se toman las decisiones que les afectan, cómo se manejan los fondos públicos o bajo qué criterios se actúa para la consecución de las políticas públicas y objetivos sociales que inciden en su bienestar colectivo e individual, es decir, cuando los niveles reales de transparencia son elevados, es cuando se contribuye a una mejor y más próspera participación de la ciudadanía en los asuntos públicos y, en definitiva, es cuando, podemos esperar una anhelada regeneración democrática y consecuencias finalmente positivas en la eficacia, eficiencia y en el propio crecimiento económico del País.

Sobre la base singular, pero de amplio espectro, que proyecta la transparencia, la ley presenta una cierta pluralidad de objetivos y fines que pueden resumirse en dos vertientes principales.

Por un lado, tenemos el desarrollo de la legislación más específica sobre las principales



erabil dezakegu gardentasuna sustatzeko. Lehen jardun-ildo horretan, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen atzetik joango gara, alegia, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen atzetik. Hona iritsita, aipa ditzagun bi gauza, giltzarri baitira: jarduera publiko osoaren publizitate aktiboa, eta herritarrek informazio publikoa irispidean izateko duten eskubidea. Bada, bi elementu horiek arautuz, asmoa da ekintza-bide orekatuago bat lortzea EAEko sektore publikorako, ea lortzen dugun urrunago iristea herritarren partaidetzan, hartara partaidetza hori oinarritzko esparru bilaka dezagun interes publikoko erabakiak diseinatzeko eta hartzeko.

Urtero-urtero gardentasunaren balantze-txosten bat aurkeztu beharra dago Gobernu Kontseiluan, eta argi dago, txosten horiek eskutan hartuta, oinarritzko legeria (GIBGOL) indarrean jarri zenetik (2015) euskal herritarrek EAEko sektore publikoari arian-arian geroz eta gehiagotan eskatzen diotela informazio publikoa eskuratzeko bidea.

Txosten horiek dakarten informazioa aztertzen baldin badugu, argiago ikusiko dugu zertan nola hobetu; adibidez, eskubide horren berri gehiago zabalduz, erantzuteko epeak laburtuz, administrazio-isiltasuna urriaraziz, herritarrek gehien eskatzen duten informazioa gure kasa argitaratuz, eta abar. Horretarako, baina, hobe genuke legeria autonomikoa eduki eskubide hori taxutzeko.

Azpimarratu behar da 2016az geroztik Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea dugula –Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez sortua–, baina batzorde horren eskumenak aurkezten diren erreklamazioak ebazteko baino ez da. Hala da, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzeko GIBGOLen 24. artikuluan araututako aurkaratze-araubidea aplikatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideetako eta toki-erakundeetako administrazio publikoek eta euskal sektore publikoko gainerako entitateek berariaz edo ustez emandako ukapenei dagokienez. Beraz, beharrezkoa ere bada informazio publikoa irispidean izateko eskubidea bermatzen duen organo bat eratzea, oinarritzko legeetan xedatutakoarekin bat etorritz; baina Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak gaur egun dauzkan baino eginkizun gehiago izango ditu.

Lege-mailoko arau batek aukera emango luke, halaber, antolamendu- eta kudeaketa-eredu bat finkatzeko, gero, harekin bidetik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan gardentasuna sustatzeko (gaur egun, Gobernu Kontseiluaren 2015eko urtarrilaren 13ko erabakiaren bidez dago ezarrita); eta, era berean, publizitate aktiboa bermatzeko oinarritzko tresnak sendotuko lituzke, publikazio-betebeharrak estutuz, zabalkunderako plataforma eta kanal egokiak atonduz, informazioa berrerabiltzeko

herramientas gestoras para promover la transparencia. En este primer aspecto estaremos en el contexto básico de la ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. La publicidad activa de toda la actividad pública y el derecho de acceso a la información pública que ostenta la ciudadanía constituyen los dos elementos clave, con cuya regulación se pretende promover en el ámbito del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi una acción más equilibrada, que permita adentrarnos en nuevas cotas sobre la participación ciudadana, a fin de que podamos llegar a convertirla en un marco básico para el diseño y la toma de decisiones de interés público.

En los informes de Balance de la transparencia, que anualmente se elevan para su conocimiento al Consejo de Gobierno, se puede observar cómo van incrementándose las solicitudes de acceso a la información pública por parte de los ciudadanos y ciudadanas vascas al Sector Público de la CAE, desde la entrada en vigor de la legislación básica (LTAIBG), en el año 2015.

Del análisis de la información obtenida en los informes surgen oportunidades de mejora, en cuanto a la mayor difusión de este derecho, la reducción de los plazos de respuesta y del silencio administrativo, la publicación proactiva de la información más demandada por la ciudadanía etc... a lo que contribuiría una legislación autonómica que lo articulara.

Resulta necesario incidir que si bien contamos desde el 2016 con la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública –creada mediante Decreto 128/2016, de 13 de septiembre, de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública–, ésta cuenta únicamente con competencias para resolver las reclamaciones que se presenten, en aplicación del régimen de impugnaciones previsto en materia de ejercicio del derecho de acceso a la información pública regulado en el artículo 24 de la LTAIBG, en relación con las denegaciones expresas o presuntas de las Administraciones públicas y demás entidades del sector público vasco, que pertenezcan a las Instituciones comunes y locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi; por lo que es igualmente necesario conformar un órgano de garantía del derecho de acceso a la información pública, conforme a lo establecido en la legislación básica, pero con más funciones que las actualmente otorgadas a la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública.

Una norma con rango de ley permitiría también asentar el modelo organizativo y de gestión para el impulso de la transparencia en el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, actualmente implantado mediante acuerdo de Consejo de Gobierno de 13 de enero de 2015, y consolidaría las herramientas básicas para garantizar la publicidad activa mediante el establecimiento de mayores obligaciones de publicación, de plataformas y canales óptimos para su difusión, las condiciones de

baldintzak argi utziz, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko baldintzak ere lotuz.

Legea oso tresna garrantzitsua da kultura berri bat sustatzeko eta euskal gizarte osoaren eskura plataforma berri bat jartzeko, berme berriak lotuz eta eginbeharrak eta betebeharrak zedarritzeko erantzukizun-araubide bat ezarriz. Baina garrantzitsuena kultura berri hori sortzen laguntzea izango da, behar-beharrezkoa baita herritarrek ohitura har dezaten gai publikoetan parte hartzeko, erantzukizunak onartuz.

Bestalde, lege honetan aukera polita dugu, sortu beharreko tresnak sortu eta, haien bidez, gardentasunaren plaza orain baino zabalago uzteko, hau da, gure eremuan eta euskal sektore publiko osoan sistema berri bat atontzeko, modua izan dezagun –azkenik bai– arau-hausteen berri ematen duten gizon-emakumeei babesa eskaintzeko eta ustelkeria borrokatzeko.

Bigarren garapen-ildo horri heltzen diogunean, iritsiak izango gara Europako zuzenbidera (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 Zuzentaraua, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa) eta hura gurera ekartzeko legebideetara, hots, otsailaren 20ko 2/2023 Legea, hura baitaukagu arau-hausteen berriematei babesa emateko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko. Bide horretan guztian, herritarren lankidetzaz izango da oinarria, funtsezkoa baita zuzenbideak bere lana burutuko badu. Alde horretatik, esan beharra dago, beste behin ere, kontua ez dela, soilik, nork bere obligazioak zuzen-zuzen betetzea, baizik eta denon lana eta ardura dela erakunde publiko eta pribatuek ondo funtzionatzea.

Europako zuzenbidea aplikatzen dugu. Bada, bi helburu argi ditu, alegia, informazioa ematen duena edo salaketa egiten duena babestea (herrialde batzuetan "alerta-argiak" edo deitzen zaie), eta gutxienezko arau batzuk ezartzea informazio-kanaletarako, 2/2023 Legeak dakarren sistemak informazio-kanal batzuk zabaltzen baititu, horretarako. Azken batean, barrutik barrurako informazio-kanalak izango ditugu enpresetan eta entitate publikoetan, aukeran hobea baita dena delako antolakundeak berak jakitea barruko jardunbide okerren berri, bai okerkeria zuzentzeko, bai kalteak konpontzeko. Baina "barruko" deritzogun dinamika horretaz gainera –2023 honetan bertan ari da taxutzen–, "kanpoko" izeneko beste informazio-kanal batzuen nondik norakoa ere zehaztu da, herritarrei aginte publiko espezializatu batekiko komunikazio-bide bat eskaintzearen –eta ez da gutxi–; hartara konfiantza handiagoa izan dezaten, eta beldur gutxiago inork nolazpait zigortu-edo egingo ote dituen ordainetan, barrutik barrurako bideetan beldur hori hortxe izaten

reutilización de la información, así como para el ejercicio del derecho de acceso a la información pública.

La ley es un instrumento muy importante para promover una nueva cultura y para poner a disposición de toda la sociedad vasca una nueva plataforma, con inclusión de nuevas garantías y un régimen de responsabilidades sobre los deberes y obligaciones. Pero lo más relevante será poder favorecer la generación de esa nueva cultura, que se requiere para poder llegar a instaurar hábitos de participación ciudadana corresponsable en los asuntos públicos.

Por otro lado, tenemos en esta ley la oportunidad de plasmar los instrumentos necesarios para poder culminar en otro sentido más amplio el concepto de transparencia, esto es, para acabar de implantar en nuestro ámbito y en el conjunto del sector público vasco el nuevo sistema de protección de las personas que informen sobre infracciones y de lucha contra la corrupción.

Con este segundo aspecto de desarrollo estaremos en la órbita del Derecho Europeo (Directiva (UE) 2019/1937 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de octubre de 2019, relativa a la protección de las personas que informen sobre infracciones del Derecho de la Unión) y de su transposición mediante la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción. Una senda basada en la colaboración ciudadana que resultará indispensable para la eficacia del Derecho, pues hay que reiterar que tal colaboración no sólo se manifiesta en el correcto cumplimiento personal de las obligaciones que a cada persona corresponden, sino que también se extiende al compromiso colectivo con el buen funcionamiento de las instituciones públicas y privadas.

El Derecho europeo que aplicamos presenta dos objetivos claros, que son los de proteger a las personas informantes o denunciantes, también identificadas en algunos países como "alertadoras", y el de establecer las normas mínimas de sendos canales de información que instaura a tal efecto el sistema regulado en la citada ley 2/2023, de modo que contamos con canales internos de información en las empresas y en las entidades públicas, porque es preferible que la información sobre prácticas irregulares se conozca por cada propia organización para corregirla y reparar cuanto antes los posibles daños; pero además de esa dinámica denominada "interna", que se está constituyendo en este mismo año 2023, ahora se materializa también la determinación de otros canales de información denominados "externos", con el fin de ofrecer a la ciudadanía nada menos que una comunicación con una autoridad pública especializada, todo lo cual pueda generar más confianza, al abrirse la posibilidad de disipar temores a sufrir represalias que sin duda se generarían



baita ezbairik gabe. Laburbilduz, lege honen bidez, Euskadin sistema hori oso-osorik ezartzea lortu nahi da; eta horretarako, organismo berri bat izango dugu, konektatzen diren alderdi guztien aniztasuna aintzat hartu eta bilduko dituen: Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza.

Lege berria bat dator Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. apartatuetan jasotzen diren eskumen eskusiboekin, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernu-erakundeen antolamenduari, araubideari eta jarduerari buruzkoekin, bai zuzenbide substantiboaren espezialitateetatik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko antolamendutik eratortzen diren administrazio-prozeduraren arauari buruzkoekin, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren beraren sektore publikoari buruzkoekin ere, betiere Estatutuko beste arau batzuek eragiten ez dioten neurrian.

I. titulua legeen ohiko aurkezpena da. Arau hau, zalantzarik gabe, "programatiko" deitzen diren horietakoa da. Horregatik, badira zerrenda orokor batzuk: helburu, printzipio eta eskubide-betebeharrak zehazteko; bada orobat legearen aplikazio-eremua zedarrizteko lan praktikoago bat, eta, hor, behar bezala bereizita uzten dira bai gardentasunari buruzko arau zehatzen bi alderdi handiak bai haiek nola hezurmamitzen diren publizitate aktiboan eta informazio publikora iristeko eskubidean; eta, badugu bigarren alderdi bat ere, hots, informatzaileak babesteko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko Europako sistema ezartzeari buruzkoa.

Hitz egin dezagun, orain, gardentasun-tresnei berei buruz, arlo horretan nabari baita, bereziki garbi, nork bere burua antolatzeko duen gaitasuna. Bada, lege honen aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikora mugatzen da, halako moldez ezen ondorioztatzen baita euskal maila instituzional bakoitzak bere antolabidea duela, dela tokiko mailak, bere legearekin, dela foru-mailak, gardentasunari buruzko bere foru-arauekin. Hortaz, Administrazio autonomikoan bakarrik aplikatzekoa da, baina argitu dezagun ezen publizitate aktiboa egin beharrak ez dituela erakunde publikoak bakarrik lotzen, aitzitik, subjektu eta erakunde pribatuak ere kateatzen dituela, baldin eta, betiere, jarduera publikoa haien bidez gauzatzen bada, dela haientzat direlako dirulaguntza edo laguntza publikoak, dela administrazio-ahalak egikaritzen dituztelako, edo dela zerbitzu publikoak ematen dituztelako, eta berdin dio tartean legezko gaikuntza berezirik edo dagokion kontratu-harremanik ote dagoen.

Har dezagun, orain, legeak dakarren bigarren bloke handia: informatzaileak babesteko sistema europarra gureru ekarri beharra. Bada, lege honen iritziz, Estatuko legeak gaitzen duen aukera hortxe egon arren, beharrezkoa da euskal erakundeak oro har sistema bakarrera atxikitzea, Euskal Autonomia

en cada entorno. Se trata, en síntesis, de que a través de la presente ley se instaure en Euskadi el sistema citado al completo, para lo que contaremos con un nuevo organismo que culmine y aglutine la pluralidad de facetas que se conectan, la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena.

La ley tiene su encaje en las competencias exclusivas de los apartados 2, 6 y 24 del artículo 10 de la ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, que regulan tanto la organización, régimen y funcionamiento de sus instituciones de autogobierno, como las normas de procedimiento administrativo que deriven de las especialidades del derecho sustantivo y de la organización propia del País Vasco, y el sector público propio del País Vasco en cuanto no esté afectado por otras normas del Estatuto de Autonomía.

El Título I constituye la presentación habitual de la Ley. Sin duda estamos ante una norma de las denominadas "programáticas", por lo que se recogen los listados generales de fines, principios y derechos y obligaciones, además de la más práctica determinación del ámbito de aplicación de la ley, respecto al que se distinguen las dos grandes facetas relativas a las normas específicas sobre transparencia y sus manifestaciones en cuanto a la publicidad activa y sus manifestaciones en cuanto a la publicidad activa y el derecho de acceso a la información pública; y en segundo lugar, la faceta relativa a la implantación del sistema europeo de protección de los informantes y de lucha contra la corrupción.

Respecto a las herramientas específicas de la transparencia, donde más intensa se percibe la capacidad de autoorganización, el ámbito de aplicación se circunscribe al sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de modo que se concluye que cada nivel institucional vasco disponga de su propia organización, caso del nivel local de acuerdo con la Ley que lo regula, y caso del nivel foral, que dispone de sus Normas Forales correspondientes en materia de transparencia. Aclaremos además, en relación con la aplicación restringida al ámbito de la administración autonómica, que las obligaciones de publicidad activa no sólo se dirigen al ámbito de las instituciones públicas, sino que también vinculan a los sujetos e instituciones privadas a través de los cuales se vehiculiza la actividad pública, bien porque son los destinatarios de subvenciones o ayudas públicas, bien porque ejercen potestades administrativas o prestan servicios públicos, sin perjuicio de que medien habilitaciones legales singulares o existan las correspondientes relaciones contractuales.

Respecto al segundo gran bloque que se distingue en la ley, esto es, respecto a la implantación del sistema europeo de protección de los informantes, la ley considera que a pesar de la opción abierta que habilita la ley estatal, es preciso que las instituciones vascas en su conjunto se adhieran a un único sistema



Erkidego osorako bakar batera, eta horrek esan nahi du aplikazio-eremuak, gai honetan, euskal sektore publiko osoa hartu behar duela.

II. tituluak oinarritzko legediaren eskema dauka, kasu honetan gardentasunari buruz ari garelarik, hau da, Gardentasunari buruzko legearen funtsezko edukia hartu (abendua 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa), eta autonomia-erkidegoaren eremuan garatzen du. Lau kapitulutan banatzen da. Publizitate aktiboari buruzko kapituluan, herritarrei modu proaktiboan helarazi nahi zaien informazio sorta zabalaz gain, aipagarria da datuen irekiera eta berrereabilera (open data). Euskal Autonomia Erkidegoa, aurreko legealdietan hasitako lanen eskutik, aitzindaria da gai horretan, nahiz eta oraindik badugun ibili beharreko bide bat aurretik, erreferentziakoak diren herrialdeen ereduera iristeko (Erresuma Batua, Europa Iparraldeko herrialdeak eta Estatu Batuak, besteak beste). Bigarren kapituluak dator ondoren, informazio publikorako irispideari buruzkoa. Publizitate aktiboaren elementu osagarria da, eta, alde horretatik, legearen gardentasun-eskemarena ere bai, herritarrek aukera izan dezaten Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiei aktiboki argitaratzen ez den informazioa ere eskatzeko. Hirugarrena dator gero, aurreko kapituluei oso lotuta. Barruko plangintza eta koordinazioa aipatzen ditu labur-labur, bidea izan dezagun EAEn jardun publikoa kohesionatzeko. Eta, azkenik, beste kapitulu bat, konplexua eta berrizalea, zehapen-araubideari buruz. Batez ere publizitate aktiboa eta informazio publikorako irispidea ditu mintzagai, haiekiko obligazioen betebeharra lotzeko bereziki.

III. tituluak, plangintza publikoari buruzkoa, lehendakariak definitutako "gobernu-programa" zer den definituz hasten da. Dagokion artikuluan jasota dagoen bezala, helburua hau da, eta ez besterik: Gobernu-ekintza denboran zehar kokatzea eta gizarteratzea, eta herritarrekiko konpromisoaren erantzukizunaren oinarriak ezartzea. Arau-zati hori funtsezkoa da, datu- eta konpromiso-multzo sintetiko oso bat baitakar Administrazioaren eguneroko jardunean eransteko, denak ere "gizarteari kontuak eman beharra" esamolde adierazgarriaren itzalpean batuta.

IV. tituluak, bestalde, gobernantza onaren oinarritzko triangelua osatzen du, plangintzarekin eta ebaluazioarekin batera; herritarren parte-hartzea eta partaidetza-prozesuak jorratzen ditu, ikuspegi malgu eta moldagarria erabiliz. Alde horretatik, gai orokorrak eta parte hartzeko prozeduren eta tresnen bermeak eta eskubide komunak ezartzen ditu. Izan ere, egun dauden eta etorkizunean sor litezkeen parte hartzeko moduen kopurua, aniztasuna eta aberastasuna kontuan izanik, parte hartzeko edozein prozedurak bete behar dituen baldintzak eta oinarritzko bermeak ezartzea izan da aukera. Legeak, horrela, herritarren

para toda la Comunidad Autónoma de Euskadi, lo que supone determinar un ámbito de aplicación, respecto a la segunda faceta citada, referido al conjunto del Sector Público Vasco.

El Título II sigue el esquema de la legislación básica específica en la materia de transparencia y, en ese contexto, viene a desarrollar en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi el contenido esencial de la ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. Se subdivide en cuatro capítulos. En el primero, sobre la publicidad activa, más allá del amplio abanico de informaciones que se prevén exponer proactivamente al público, es de destacar la apertura y reutilización de datos (open data), materia en la que, de la mano de los trabajos iniciados en anteriores legislaturas, Euskadi es líder, sin perjuicio del camino que aún queda por recorrer hacia los modelos establecidos en los países de referencia en la materia, como Reino Unido, los países nórdicos o Estados Unidos. Sigue un segundo capítulo, sobre acceso a la información pública, como elemento complementario de la publicidad activa y, en ese sentido, del esquema de transparencia de la ley, al objeto de que los ciudadanos y ciudadanas puedan requerir a todas las entidades que conforman el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi también aquella información que no sea publicada activamente. Muy ligados a los anteriores capítulos, el tercero tiene como contenido una breve reseña sobre la planificación y la coordinación interna que nos permitan cohesionar la acción pública en la CAE. Y finalmente se ha incorporado un complejo y novedoso capítulo sobre el régimen sancionador, que afectará singularmente al cumplimiento de obligaciones en materia de publicidad activa y acceso a la información pública.

El Título III, sobre Planificación pública, parte con una definición del denominado "Programa de Gobierno" definido por el Lehendakari, cuyo objetivo, como reza el artículo correspondiente, no es otro que el de, con el fin de proyectar en el tiempo la acción de gobierno, socializarla y establecer las bases de su compromiso y responsabilidad ante la ciudadanía. Es a partir de esa pieza, esencial, que se incorporan al quehacer de la Administración, toda una serie sintética de datos y compromisos que la ley ha recogido bajo la llamativa expresión de una "rendición social de cuentas".

El Título IV, por su parte, completa el triángulo básico de la buena gobernanza, junto a la planificación y evaluación, dedicado ahora a la participación ciudadana y a los procesos participativos, con una perspectiva flexible y adaptable. En este sentido, establece las cuestiones generales y las garantías y derechos comunes a los diferentes procedimientos e instrumentos participativos, en el entendido de que, habida cuenta de la cantidad, variedad y riqueza de las figuras participativas que existen y pueden crearse en el futuro, es preferible establecer las condiciones y garantías básicas que



parte-hartzeari dagozkion eskubide zehatzak lantzen ditu, parte hartzeko bide edo tresna zehatzak ezarri, eta aurreko bermeek haietan aplikatzeko modukoak izan behar dute. Apartatu honetan, bestetik, neurri aitzindari gisa, aipatu behar da herritarrei erregelamendu-ekimenak sustatzeko eskubidea onartzen zaiela. Eskema, berez, gaur egun herritarren ekimen legegilerako aurreikusitakoa da, eta bermeak ere hangoak baliatzen ditu.

Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistroa eta interes-taldearen erregistroa sortzen dira, bi helburu hauekin: batetik, herritarren parte-hartzea sustatu nahi du, herritarrentzako edo talde interesdunentzako lehentasuneko bideak edo alerta goiztiarreko eskubideak ezarri; eta, bestetik, aurrekoaren osagarri gisa, eta Europako Parlamentuak, Europar Batasuneko Kontseiluak eta Europako Batzordeak nahitaezko gardentasun-erregistro bat sortzeko hartutako 2021eko maiatzaren 20ko erakundearteko erabakiaren eta antzeko beste organismo batzuen lortzari jarraituz, herritarrei informazio zuzena ematen die, lege honetan ezarritako parte-hartze eskubideen bidez erabakitze-prozesuetan zilegitasunez eragin nahi duten presio-taldeei edo "lobbyei" eta beste interes-talde batzuei buruz.

V. titulua Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren sorrerari eta diziplinari buruzkoa da. Badakartza haren funtzioak eta paratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunaren zaindari modura; baina, haratago ere badao, eta beste aukera baten gisara gailentzen da, hots, Euskadin, azken agintaritza publiko gorena izango da informatzaileak edo alerta-argiak hartzeko kanpo-bidean, hala dela esaten baitu otsailaren 20ko 2/2023 Legeak, zeina arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa baita. Legearen ekarpen nagusia antolaketari dagokio bete-betean, abiapuntua izanik Estatuko legediak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dion gaikuntza (zehatzago: Estatuko lege horren 24. artikulua eta laugarren xedapen gehigarriak emandakoa).

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza erronka eta aukera da, eta garrantzitsua. Ezin dugu ahaztu, entitatearen hauspo-indarrak nabarmen geratu behar du. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren taupadak aditu behar zaizkio, harekiko harremanetan egongo da, baina askea izango da erabat; askea, euskal erakunde publikoen maila guztietan jarduteko, baina baita sektore pribatuan bertan ere, baldin eta jakinarazten zaizkigun arau-haustek eta irregularitasunak Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gertatu badira. Urrunera begira jarri behar gara beraz, eta lan-harremanak ahaztu gabe gainera, harreman horietan Euskadik baitauka laneko legedia exekutatze eskumena.

debe reunir cualquier proceso participativo. De esta manera, la ley se dedica a los derechos concretos de participación ciudadana, estableciendo cauces o instrumentos participativos concretos a los que las anteriores garantías han de resultar de aplicación. En este apartado, por su parte, es necesario también destacar la pionera introducción de la figura del derecho a promover iniciativas reglamentarias ciudadanas, siguiendo el esquema y aprovechando las garantías ya previstas actualmente para la iniciativa legislativa ciudadana.

Se crea también el Registro para la participación y la colaboración de la ciudadanía y el Registro de grupos de interés de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con una doble misión: por un lado, trata de promover la participación ciudadana habilitando cauces preferentes y derechos de alerta temprana para los ciudadanos y ciudadanas o grupos interesados. Y, por otro lado, como complemento de lo anterior y siguiendo la estela del Acuerdo Interinstitucional de 20 de mayo de 2021 entre el Parlamento Europeo, el Consejo de la Unión Europea y la Comisión Europea sobre un Registro de transparencia obligatorio y de otros organismos similares, ofrece a la ciudadanía información directa sobre los grupos de presión o "lobbies" y otros grupos de interés que, a través de los derechos de participación previstos en esta ley, pretendan legítimamente influir en los procesos de decisión.

El Título V se dedica a la creación y disciplina de la llamada Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena. Más allá de sus funciones y de su perfil de tutelante de la transparencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi, destaca su gran faceta alternativa, como máxima autoridad pública que culmina en Euskadi el llamado canal externo de recepción de los informantes o alertadores, al que llama con este señalamiento la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre las infracciones normativas y de lucha contra la corrupción. La aportación principal de la ley es estrictamente organizativa, a partir de la habilitación que le hacen a su vez a la Comunidad Autónoma de Euskadi el artículo 24 y la disposición adicional cuarta de la referida ley estatal.

La Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena constituye un reto y una oportunidad importante, teniendo en cuenta que se trata de una entidad que percibe sus constantes vitales y se relaciona con la Administración general de la Comunidad Autónoma, pero que se proyecta con total independencia para actuar en el conjunto de todos los niveles institucionales públicos vascos y en el conjunto del mismísimo sector privado, cuando el incumplimiento e irregularidades comunicadas se circunscriban al ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La envergadura de dicha perspectiva debe apreciarse incluso desde la faceta de las relaciones laborales, en las que Euskadi tiene competencias de ejecución de la legislación laboral.

**I. TITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. Xedea**

Hau da lege honen xedea:

- a) Jarduera publikoak gardenak eta publikoak izan daitezela arautu eta bermatzea, herritarrek informazio publikoa irispidean izateko duten eskubidearekin batera.
- b) Herritarren parte-hartzea bultzatzeko oinarrizko esparrua eratzeko, interes publikoko erabakiak diseinatu eta hartzeko.
- c) Lege honetan xedatutako betebeharrak eta obligazioak ez betetzeagatik erantzukizunaren eta bermeen araubidea ezartzea.
- d) Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legean informatzaileentzat aurreikusi den babesa esleitzea lege honen V. tituluan adierazitako Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza administrazio independenteari.

**2. artikulua. Helburuak**

Lege honek helburu hauek lortu nahi ditu:

- a) Herritarrei aditzera ematea zein diren administrazio publikoen jardueren plangintza eta konpromiso estrategikoak, eta, horrela, publizitate aktiboaren printzipioa sendotzea.
- b) Lege honen arabera garrantzitsuak diren datu guztiak formatu irekian argitara daitezen sustatzea.
- c) Sustatzea herritarrek irispidean izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren parte diren antolakundeen esku dagoen informazio publikoa.
- d) Gai publikoetan erantzunkidetasunez parte hartzeko kultura eta ohiturak sortzen laguntzea.
- e) Informatzaileen babes egokia bermatzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 Zuzentaraua eta Arau-hausteen informatzaileak babesteko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeko, horrela erantzuten baitzaio informatzaileak babesteko beharrari, baldin eta interes orokorra ukitzen duten edo interes horri kalte eragiten dioten ordenamendu juridikoko arau-hausteei buruz

**TÍTULO I  
DISPOSICIONES GENERALES****Artículo 1. Objeto**

Esta ley tiene por objeto:

- a) Regular y garantizar la transparencia y publicidad de la actividad pública, así como el derecho de acceso de la ciudadanía a la información pública.
- b) Configurar el marco básico de impulso de la participación ciudadana en el diseño y la toma de las decisiones de interés público.
- c) Establecer el régimen de garantías y responsabilidad por el incumplimiento de los deberes y obligaciones establecidos en la presente ley.
- d) Atribuir la protección a informantes prevista en la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción, a la administración independiente Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena que se contempla en el Título V de esta ley.

**Artículo 2. Fines**

La presente ley persigue los siguientes fines:

- a) Informar a la ciudadanía sobre la planificación de la actividad de las administraciones públicas y sus compromisos estratégicos, consolidando el principio de publicidad activa.
- b) Promover la publicación en formatos abiertos de todos aquellos datos que se consideren relevantes de acuerdo con esta ley.
- c) Promover el acceso de la ciudadanía a la información pública que obre en poder de las distintas organizaciones que forman parte del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- d) Favorecer la generación de una cultura y hábitos de participación corresponsable en los asuntos públicos.
- e) Garantizar una adecuada protección del informante en cumplimiento de la Directiva 2019/1937 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de octubre de 2019, y de la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción, respondiendo a la necesidad de protección de quienes informan sobre infracciones del ordenamiento jurídico que



informatuz gero; horretarako, kanpoko informazio-kanal bat antolatzen duen agintaritza independente bat sortuta.

afectan o menoscaban el interés general mediante la creación de una autoridad independiente que articule un canal externo de información.

### 3. artikulua. Funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipio orokorrak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak herritarrei zerbitzu ematera bideratuko du bere jarduna.
2. Funtzionamenduaren printzipio gidari hori betetzeko, administrazio publiko guztiei aplikatu behar zaien araudia aplikatu behar zaio, bai eta, horretaz gain, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean herritarrekiko interakzioarako eta funtzionamendurako ezarri diren printzipioak ere.

### Artículo 3. Principios generales de funcionamiento e interacción con la ciudadanía

1. El sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi orientará su actuación al servicio de la ciudadanía.
2. En ejecución de este principio rector de su funcionamiento, además de los contenidos en la normativa de general aplicación al conjunto de las Administraciones Públicas, le resultarán de aplicación los principios de funcionamiento e interacción con la ciudadanía previstos en la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco.

### 4. artikulua. Definizioak

- a) Lege honetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan, gardentasuna jarduketa-printzipio bat da; eta haren bidez, lege honetan ondorio horretarako adierazi diren botere publikoei eta subjektuei ezartzen zaizkie betebeharrak: daukaten informazio publiko garrantzitsua aktiboki argitaratzea, eta herritarrek informazio horretarako irispidea izan dezatela ziurtatzea, lege honetan eta aplikatu beharreko indarreko legeetan ezarritako mugen barruan.
- b) Informazio publikotzat joko da botere publikoek beren eginkizunetan prestatu edo jaso eta eduki daukaten informazioak, edukiak edo dokumentuak, edozein formatu, euskarri eta adierazpidetakoak. Horretaz gain, lege honetan adierazita dauden eta zerbitzu publikoak ematen dituzten entitateek sortutako informazioa ere hartuko da informazio publikotzat, edo eskumen publikoak edo eskumen administratiboak egikaritzen dituzten entitateek sortutakoa, edo jardun publikoan edo jardun publikoa gauzatzeko sortu edo lortu eta jabetzan duten informazioa.
- c) Edonola ere, gardentasun-printzipioa lehentasunez aplikatuko da arau orokor gisa. Edozein salbuespen egiteko edo edozein muga ezartzeko, lege-mailako xedapen bat beharko da, edo oinarritzko eskubideren bat babesteko izan beharko da; hala ere, haren interpretazioa murriztailea izango da, eta kasuan kasuko informazioa zabaltearen edo irispidean izatearen aldekoena.
- d) Lege honetan ezartzen diren gardentasun-betebeharrak gutxienekoak eta orokorrak dira, eta, beraz, ulertu beharko dira kasu zehatz bakoitzean aplikatu beharreko legeek zehatzago eta espezifikoago xedatutakoak eragotzi gabe.

### Artículo 4. Definiciones

- a) A los efectos de esta ley, la transparencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi constituye el principio de actuación que impone a los poderes públicos y sujetos contemplados al efecto en la presente ley la obligación de publicar activamente la información pública más relevante y hacer efectivo el acceso a la ciudadanía a aquella que obre en su poder dentro de los límites establecidos por la presente ley y en la legislación vigente que le sea de aplicación.
- b) Se considera información pública aquella información, contenido o documento, cualquiera que sea su formato o soporte y forma de expresión, elaborada o recibida por los poderes públicos en el ejercicio de sus funciones y que obre en su poder. También se considerará información pública la producida por las entidades señaladas en la presente ley que presten servicios públicos o aquellas que ejerzan competencias públicas o administrativas o la que, siendo de su propiedad, se haya producido o conseguido en su actividad pública o para llevar a cabo una actividad pública.
- c) El principio de transparencia en todo caso se aplicará de forma preferente como regla general. Cualquier excepción o limitación requerirá su adopción mediante una disposición con rango de ley o por la protección de algún derecho fundamental, bajo su interpretación restrictiva y más favorable a la divulgación o al acceso a la información de que se trate.
- d) Las obligaciones de transparencia establecidas en la presente ley son mínimas y de carácter general, debiendo entenderse en consecuencia sin perjuicio de las que pueda establecer de forma más detallada y específica la legislación aplicable en cada caso particular.

**5. artikulua. Gardentasun-konpromiso orokorrak**

1. Gardentasun-printzipioa betetzeko, aldian-aldian informazio eguneratua argitaratu behar dute horretara behartuta dauden subjektuek, baldin eta informazio horren berri izatea garrantzitsua bada jardueraren gardentasuna bermatzeko. Batik bat, jardun publikoan duten funtzionamenduari, kontrolari eta herritarren lankidetzari buruzko informazioa argitaratu behar dute; hartara, herritarrek jakin ahal izango dute zer erabaki hartu diren, nola hartu diren, zerbitzuak nola antolatzen diren eta zein diren jardunen erantzuleak. Izan ere, horrela, funts publikoen erabilera kontrol publikoari eta kontu-emateari loturik egon ahal izango da.
2. Aurreko apartatuan aipatutako informazioak hizkera inklusibo eta ez-sexista izango du; edonola ere, sexuaren arabera banatuko da, eta irispidean izango da toki hauetan behintzat: lege honetan ezarritako Gobernu Irekiaren plataforman, horretara behartuta dauden entitate eta subjektuen egoitza elektronikoetan edo webguneetan, eta horretarako sortzen diren gardentasun-atarietan. Nolanahi ere, behar diren mekanismoak ezarriko dira informazio hori desgaitasunen bat duten, informatika-jakintzarik ez duten edo Internetera konektatzeko aukerarik ez duten pertsonengana iritsi dadin.
3. Gardentasunaren kultura sustatuko da herritarren artean eta gizarte-sektoreen artean, informaziorako irispidea izateko eskubidea baliatzen laguntzeko, kontuak eman daitezen sustatzeko, eta informazioa berrerabiltzearen bidez balio erantsia sortzeko, bai eta entitate pribatuek gardentasun-printzipioa beren gain har dezaten laguntzeko ere.

**6. artikulua. Herritarrek gardentasunaren arloan dituzten eskubideak eta betebeharrak**

1. Lege honetan aipatuta daudela-eta informazioa ematera behartuta dauden subjektuekiko harremanetan, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean aitortutako eskubideak ez ezik eskubide hauek ere aitortzen zaizkie herritarrei:
  - a) Lege honek esandako moduan aktiboki argitaratu den informazio publikoaren berri izateko eta informazio hori erabiltzeko eskubidea.
  - b) Informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoetako edozeinen esku dagoen informazio publikoa eskatzeko eta irispidea izateko eskubidea, horretarako interes legitimoak eduki

**Artículo 5. Compromisos generales de transparencia**

1. El principio de transparencia exige que los sujetos obligados publiquen de forma periódica y actualizada la información cuyo conocimiento resulte relevante para garantizar la transparencia de su actividad y, en particular, la relacionada con el funcionamiento, el control y la colaboración de la ciudadanía con su actuación pública, todo ello de forma que se puedan conocer las decisiones, cómo se adoptan las mismas, cómo se organizan los servicios y quiénes son las personas responsables de sus actuaciones, así como que se pueda sujetar a control público y a rendición de cuentas la utilización de los fondos públicos.
2. La información señalada en el apartado anterior, que adoptará un uso inclusivo y no sexista del lenguaje y ofrecerá en todo caso su desagregación por sexo, estará accesible, al menos, en la Plataforma de Gobierno Abierto prevista en esta ley, en las sedes electrónicas o en las páginas web de las entidades y sujetos obligados, así como en los Portales de Transparencia que se creen a estos efectos. En todo caso se implantarán los precisos mecanismos para que tal información llegue a aquellas personas con discapacidad, sin conocimientos informáticos o sin posibilidades de conexión a internet.
3. Se promoverá la cultura de la transparencia entre la ciudadanía y entre los diferentes sectores sociales, a fin de favorecer el ejercicio del derecho de acceso a la información, impulsar la rendición de cuentas y la creación de valor añadido por medio de la reutilización de la información, así como patrocinar la asunción del principio de transparencia por parte de las entidades privadas.

**Artículo 6. Derechos y obligaciones de la ciudadanía en materia de transparencia**

1. Se reconocen a los ciudadanos y ciudadanas, en sus relaciones con los sujetos obligados a suministrar información a los que se refiere esta ley, además de los reconocidos en la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, los siguientes derechos:
  - a) Derecho a conocer y a utilizar la información pública que haya sido publicada de forma activa en los términos previstos en esta ley.
  - b) Derecho a solicitar y a acceder a la información pública que obre en poder de cualquiera de los sujetos públicos obligados a suministrar información, sin que para ello necesiten ostentar un



behar izan gabe eta hargatik eragotzi gabe Estatuko oinarritzko araudian eta lege honetan ezarritako mugak. Informazio publikorako irispidea izateko eskubideak barnean hartzen du informazioa prestatzeko edo gordetzeko edozein forma edo euskarri.

- c) Lortutako informazioa erabiltzeko eskubidea, horretarako aurretiko baimena izan beharrik gabe eta lege honek edo beste batzuek jarritakoak beste mugarik ez dela.

2. Lege hau aplikatuta informazio publikoaren berri izan, irispidean izan edo erabiltzen duten herritarrek betebeharrak izango dituzte:

- a) Beren eskubidea fede onaren printzipioa eta eskubide-abusua galarazteko printzipioa bete erabiltzea, eta, bereziki, zerbitzu publikoen funtzionamendu normalari kalterik egin gabe.
- b) Lortutako informazioa berrerabiltzeko dauden indarreko legeetan xedatutako betebeharrak betetzea.
- c) Lege honetan xedatutako gainerako betebeharrak betetzea.

## 7. artikulua. Datu pertsonalak babestea

1. Izaera eta helburua kontuan hartuta, informazio publikoa prestatzeko, eta informazio hori eman edo argitaratu aurretik, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Datuak babesteko printzipioak bete behar dira, datu pertsonalen minimizazioari eta gordetzeko epea mugatzeari buruzkoak bereziki.
- b) Neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak hartu behar dira, bermatzeko eta egiaztatu ahal izateko tratamendua bat datorrela datuak babesteko araudiarekin, lege hau betetzeari dagokionez.
- c) Informazio publikoa prestatzean, datuak babesteko printzipioak bete behar dira, lehenespenez eta informazioaren diseinutik bertatik hasita.
- d) Argitaratzen diren datu edo informazioetatik pertsonak identifikatzen dituzten datuak disoziatu badira, analisiak egin behar dira egiaztatzeko disoziazio-prozesua leheneratzea ezinezkoa dela edo, teknikaren egoera kontuan hartuta, neurritz kanpoko ahaleginak egin behar direla.

interés legítimo y sin perjuicio de las limitaciones contempladas en la legislación básica estatal y en esta Ley. El derecho de acceso a la información pública incluye cualquier forma o soporte en que esta información haya sido elaborada o en que se conserve.

- c) Derecho a usar la información obtenida, sin necesidad de autorización previa y sin más limitaciones que las derivadas de esta u otras leyes.

1. Kasu bakoitzerako araudi espezifikoak ezartzen dituen informazio-betebeharrak betetzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek argitara emango dute herritarrentzat interes orokorrekoa den informazioa; esate baterako, informazio kartografikoa eta trafikoari, eguraldiari, ingurumenari, lurralde-antolamenduari eta hirigintzari, kulturari, osasunari eta hezkuntzari buruzko informazioa.
2. Aditza emango da zein diren herritarrei zerbitzu emateko eta herritarrek parte hartzeko kanalak, zein den zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak eta erreklamazioak aurkezteko prozedura, zenbat erreklamazio aurkeztu diren eta zenbat edo zelako ehunekoa onartu den edo ebatzi den herritarren alde.
3. Halaber, argitara emango da bai herritarrek gehien eskatzen duten informazioa bai lege honen bidez araututako irispide-eskubidea baliatuta gehien eskatzen den informazio publikoa.

## 23. artikulua. Datuak berrerabiltzea eta irekitzea

1. Gardentasuna hobetzeko, administrazioen arteko elkarreragingarritasuna sustatzeko eta gizartean balioa sortzeko xedez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek beren esku dauden datu publikoak eraginkortasunez irekitzeko behar diren ekintzak sustatu behar dituzte, betiere datuak berrerabiltzeko eran eta pribatutasun-, segurtasun- edo jabetza-murrizketak erabat errespetatuta.
2. Datuak, oro har, inolako lizentzia edo baldintza espezifikorik behar izan gabe eta formatu digital, estandarizatu eta irekian eman behar dira, libre eta doan, datuon birbanaketa, berrerabilera eta aprobetxamendua errazteko. Egitura argi eta esplizitu baten arabera emango dira, bai herritarrek eta bai eragile konputazionalek ulertzeko eta berrerabiltzeko era batean. Hala ere, datu jakin batzuk berrerabili ahal izateko, aurretik lizentzia emateko eskatu ahal izango da. Erregelamenduz zehaztuko dira eskakizun hori justifikatzen duten kasuak.

presupuestaria y sostenibilidad financiera, las variables indicativas de su situación financiera y patrimonial, las cuentas anuales que deban rendirse, los informes de auditoría de cuentas y los de fiscalización por parte de los órganos de control externo, de acuerdo con la normativa presupuestaria y de control y contabilidad que le sea de aplicación .

## Artículo 22. Información de interés general

1. Las entidades integrantes del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi publicarán además información de interés general para la ciudadanía, como la información cartográfica o sobre el tráfico, tiempo, medio ambiente, ordenación del territorio y urbanismo, cultura, salud y educación, sin perjuicio de las obligaciones de información impuestas por la correspondiente normativa específica.
2. Se darán a conocer los diferentes canales por los que se ofrecen los servicios de atención a la ciudadanía y para la participación ciudadana, el procedimiento para la presentación de quejas y reclamaciones sobre el funcionamiento del servicio, el número de reclamaciones presentadas y el número o proporción de las aceptadas o resueltas a favor de los interesados.
3. Asimismo, se publicará la información que más demande la ciudadanía y la información pública que sea más frecuentemente objeto del ejercicio del derecho de acceso regulado por esta ley.

## Artículo 23. Reutilización y apertura de datos

1. Con el fin de mejorar la transparencia, promover la interoperabilidad entre las Administraciones y generar valor en la sociedad, las entidades integrantes del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi deben promover las acciones necesarias para una efectiva apertura de los datos públicos que obren en su poder de forma reutilizable con pleno respeto a las restricciones de privacidad, seguridad o propiedad.
2. De modo general los datos deben suministrarse sin someterse a licencia o condición específica alguna para facilitar su redistribución, reutilización y aprovechamiento y en un formato digital, estandarizado y abierto, de modo libre y gratuito, siguiendo una estructura clara y explícita que permita su comprensión y reutilización, tanto por la ciudadanía como por agentes computacionales. No obstante, reglamentariamente se podrán determinar los supuestos que justifican la sujeción de la reutilización de determinados datos al previo otorgamiento de licencias.



- |  |  |
|--|--|
| <p>3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak informazio publiko berrerabilgarriaren baliabideetarako irispidea emango du, baliabideok sarbide-puntu erkide batean eskueran jarrita. Puntu hori Gobernu Irekiaren plataforman egongo da, eta han informazio zehatza eta eguneratua emango da datu multzo bakoitzaren ezaugarriei buruz. Bereziki, administrazio publikoen esku dauden datu eta dokumentu elkarreragingarrien zerrenda emango da jakitera, bai eta haien aplikazio informatikoen iturburu-kodea ere, baldin eta aplikazio horiek iturri irekiko aplikazio informatikoen direktorio baten zati badira.</p> <p>4. Halaber, espazio bat jarri beharko da sarbide-puntuan bertan, herritarrek proposamenak eta iradokizunak egiteko, bai eskatutako edo emandako informazioari buruz eta bai erabilitako formatu, programa edo lengoia informatikoei buruz. Espazio horretan, lekua egin ahal izango da datuak irekitzearekin eta berrerabiltzearekin zerikusia duten aplikazio informatikoetan parte hartzeko ere.</p> <p>5. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak Interneten presentzia izateko ereduaren esparruan, Gobernu Irekiaren tresna batzuk garatuko dira Interneten, partekatze eta doan eta libreki berrerabiltzeko.</p> | <p>3. La Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi dará acceso a los recursos de información pública reutilizable mediante su puesta a disposición en un punto común de acceso en la Plataforma de Gobierno Abierto, donde se ofrecerá información concreta y actualizada sobre las características de cada conjunto de datos. En particular, se hará público el listado de datos y documentos interoperables que obran en poder de las Administraciones públicas, y el código fuente de las aplicaciones informáticas de las que sean propietarias, cuando las mismas formen parte de un directorio de aplicaciones informáticas de fuentes abiertas.</p> <p>4. Asimismo, en el mismo punto de acceso se deberá habilitar un espacio para que la ciudadanía realice propuestas y sugerencias tanto en torno a la información demandada como a la información puesta a su disposición y a los formatos, programas o lenguajes informáticos empleados. Este espacio podrá también habilitar la participación en el desarrollo de las aplicaciones informáticas referentes a la apertura y reutilización de datos.</p> <p>5. En el marco del modelo de presencia en Internet del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se desarrollarán herramientas en Internet de Gobierno Abierto, que puedan compartirse y ser reutilizadas de una forma libre y gratuita.</p> |
|--|--|

## II. KAPITULUA INFORMAZIO PUBLIKORAKO IRISPIDEA

### 24. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea

1. Pertsona oro, fisikoa zein juridikoa izan, informazio publikoa irispidean izateko eskubidearen titularra da; horretaz baliatzeko, alde zurretik eskatu behar du eta legean ezarritako mugak baino ez ditu izango.
2. Eskubide hori baliatzeko, ez da eskabidea arrazoitu behar, ez eta araurik argudiatu behar ere, ez baita betebeharreko baldintza ez interesduna izatea, ez bestelako eskubide edo interes legitimorik izatea.
3. Informazio publikorako irispidea izateko eskubideak ez ditu eragotziko gainerako eskubideak eta prozedurak. Hala, ez da horrela izango administrazioarekiko beste komunikazio mota batzuekin, hauekin, esate baterako: eskaera-eskubidea, herritarrei arreta emateko kanalen bidezko informazio orokorreko kontsultak, kexak eta iradokizunak, edo datuen babesari buruzko araudian araututako eskubideak baliatzea. Horrelakoetan, eskabidea prozedura edo kanal espezifikora bideratuko da, eta eskatzaileari jakinarazi hala egin dela.

## CAPÍTULO II ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA

### Artículo 24. Derecho de acceso a la información pública

1. Toda persona, física o jurídica, es titular del derecho de acceso a la información pública, mediante solicitud previa y sin más limitaciones que las establecidas en la ley.
2. El ejercicio de este derecho no precisa motivar la solicitud ni la invocación de ninguna norma, no estando condicionado a ostentar la condición de interesado ni a la concurrencia de cualquier derecho o interés legítimo.
3. El derecho de acceso a la información pública se entenderá sin perjuicio de otros derechos o procedimientos. Así, no tendrán esta consideración otro tipo de comunicaciones con la administración como el derecho de petición, las consultas de información general por los canales de atención a la ciudadanía, las quejas y sugerencias o el ejercicio de los derechos regulados en la normativa sobre protección de datos. En estos casos, se derivará la solicitud al procedimiento o canal específico correspondiente, lo que se comunicará a la persona solicitante.



4. Informaziorako irispidearen gaineko araubide juridiko espezifikoak daukaten eremuetan, araudi zehatz horren bidez gidatuko dira eta, osagarri gisa, lege honen bidez. Egoera horietan, lege honek xedatu ez dituen beste murrizketa batzuk aplikatu daitezke, baina, soilik, lege-mailako arau batek ezartzen baditu.

#### **25. artikulua. Informazio publikoa eskatzen duen pertsonaren eskubideak**

Informazio publikoaren eskatzaileak eskubide hauek dauzka:

- a) Lege honek ematen dizkion eskubideez informatua izateko, eta zuzen baliatzeko aholkularitza jasotzeko, administrazio onaren eskubidearekin bat etorritik.
- b) Eskatzen duen informazioa jasotzeko, lege honek ezartzen dituen gehieneko epeetan.
- c) Eskatutako informazio publikoa berak aukeratzen duen eran eta formatuan jasotzeko, legearekin bat etorritik.
- d) Jakiteko zergatik ez zaion ematen eskatutako informazioaren zati bat edo informazio osoa, eta jakiteko zergatik ez zaion ematen informazioa berak eskatutako formatuan edo eran.
- e) Eskatutako informazioa jasotzeko aplikatu dakizkiokeen tasak eta prezioak jakiteko, eta ordaintzetik salbuetsita geratzeko arrazoien berri izateko.
- f) Jasotako informazioa erabiltzeko, aurretiazko baimenik gabe, lege honetan eta gainerako ordenamenduan ezarritako mugen barruan.

#### **26. artikulua. Informazio publikora iristen diren pertsonen betebeharrak**

Halaber, informazio publikorako irispidea izateko eskubidea baliatu nahi duten pertsona eta entitateek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Beren eskubidea fede onaren printzipioaren eta eskubide-abusuaren interdikzioaren printzipioaren arabera baliatzea eta, bereziki, informazio publikora iristea zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eraginkortasunari kalterik egin gabe eta eskabideak ahalik eta zehatzen eginda. Horretarako, Administrazioak eta eskatzaileak elkarri lagunduko diote administrazio onaren eskubideak agindu bezala.
- b) Lortutako informazioa berrerabiltzeko oinarriko araudian ezarritako betebeharrak betetzea.

4. Aquellos ámbitos que dispongan de un régimen jurídico específico de acceso a la información se regirán por tal puntual normativa y supletoriamente por la presente ley. En tales supuestos únicamente se podrán aplicar restricciones no previstas por esta ley cuando estén impuestas por una norma con rango de ley.

#### **Artículo 25. Derechos de la persona solicitante de información pública**

La persona solicitante de información pública dispone de los siguientes derechos:

- a) A ser informada de los derechos que le otorga la presente Ley y a ser asesorada para su correcto ejercicio, conforme al derecho a una buena administración.
- b) A recibir la información que solicite, dentro de los plazos máximos establecidos por esta Ley.
- c) A recibir la información pública solicitada en la forma o formato elegidos, conforme a lo dispuesto en la Ley.
- d) A conocer los motivos por los cuales no se le facilita la información, total o parcialmente, y también aquellos por los cuales no se le facilita dicha información en la forma o formato solicitados.
- e) A conocer el listado de las tasas y precios que, en su caso, sean exigibles para la obtención de información solicitada, así como las causas de exención.
- f) A utilizar la información recibida, sin autorización previa, dentro de los límites previstos en esta Ley y en el resto del ordenamiento.

#### **Artículo 26. Obligaciones de las personas que acceden a la información pública**

Las personas y entidades que pretendan ejercer su derecho de acceso a la información pública tendrán, así mismo, las siguientes obligaciones:

- a) Ejercer su derecho con respeto a los principios de buena fe e interdicción del abuso de derecho y, en particular, realizar el acceso a la información de forma que no se vea afectada la eficacia del funcionamiento de los servicios públicos, concretando sus solicitudes de la forma más precisa posible. A estos efectos la Administración colaborará con la persona solicitante en los términos que ordena el derecho a una buena administración.
- b) Respetar las obligaciones establecidas en la normativa básica para la reutilización de la información obtenida.

- c) Dagokion ebazpenak informaziora iristeko ezarri dituen baldintza eta betekizun materialak betetzea, baldin eta informaziora iristeko modalitate jakin bat erabili behar bada edo artxibategi edo bulego publiko batean aurrez aurre egin behar bada.

### 27. artikulua. Informazio publikorako irispide-modalitatea

1. Informazio publikorako irispidea izateko eskubideak barnean hartzen du informazioa prestatzeko edo gordetzeko edozein forma edo euskarri.
2. Administrazio publikoek dokumentuak, informazioa eta datuak kudeatzeko sistema integratu bat ezarri behar dute, zeinaren bidez posible izan behar baita bai administrazioen arteko elkarreragingarritasuna, bai edozein dokumentu edo informazio aurkitzea, eta bai dokumentu edo datu-multzo oro irispide- eta publizitate-araubidearekin automatikoki lotzea.
3. Eskabidea egiteko erabilitako edo eskatzaileak eskatutako euskarrian eta formatuan emango da informazioa, salbu eta hauetariko inguruabarren batean:
  - a) Publizitate aktiboaren printzipioari jarraikiz edo beste moduren batean, informazioa eskatzailearen eskura badago dagoeneko, eta, hortaz, informazioaz erraz jabetzeko modua badauka. Kasu horretan, Administrazioak edo dagokion entitateak, informaziorako irispidea emateko, aukeran dauka inguruabar horren berri ematea eta informazio hori nola lortu dezakeen adieraztea.
  - b) Behar bezala justifikatzen bada arrazoi teknikoak direla-eta ez dagoela kopia formatu jakin batean bidaltzerik, edo ezinezkoa edo izugarri garestia dela informazioa eskatzaileak eskatutako moduan ematea; kasu horretan, Administrazioak edo dagokion entitateak beste moduren batean eman beharko du informazioa, informazioa aurrez aurre erakutsita ere bai, berma dadin informaziora iristek ez duela sortzen neurritz kanpoko gasturik, ez dakarrela jatorrizkoa galtzerik edo hondatzerik edo, oro har, modalitate hori justifikatzen duten bestelako arazoak saihesten direla.

### 28. artikulua. Doakotasun-printzipioa eta kostuak

1. Informaziorako irispidea doakoa da.

- c) Cumplir las condiciones y requisitos materiales para el acceso que se hayan señalado en la correspondiente resolución, cuando el acceso haya de realizarse en una modalidad determinada o presencialmente en un concreto archivo o dependencia pública.

### Artículo 27. Modalidad de acceso a la información pública

1. El derecho de acceso a la información pública incluye cualquier forma o soporte en que esta información haya sido elaborada o en que se conserve.
2. Las administraciones públicas deben establecer un sistema de gestión de documentos, información y datos integrado que permita la interoperatividad entre las administraciones, la localización de cualquier documento o información y la vinculación automática de cada documento o conjunto de datos a su régimen de acceso y publicidad.
3. La información se facilitará en el soporte y formato utilizado para su solicitud o demandado por la persona solicitante salvo que concurren alguna de las siguientes circunstancias:
  - a) Que en virtud del principio de publicidad activa o de alguna otra forma la información esté ya a disposición de la persona solicitante de forma que pueda tomar conocimiento de ella fácilmente. En tal caso la Administración o entidad correspondiente podrá optar por dar acceso a la información simplemente poniendo en su conocimiento esta circunstancia, así como la vía por la que obtener dicha información.
  - b) Que se justifique adecuadamente que por razones de carácter técnico no sea posible la copia en un formato determinado, o sea imposible o desmedidamente oneroso el poner a disposición la información en la forma solicitada por la persona solicitante, en cuyo caso la Administración o entidad correspondiente deberá facilitarla en algún otro modo, incluida la exhibición presencial de la información, de forma que se garantice que el acceso no origina costes desproporcionados, no ocasiona la pérdida o deterioro del soporte original o, en general, evita los problemas de otro tipo que justifiquen esta modalidad.

### Artículo 28. Principio de gratuidad y costes

1. El acceso a la información es gratuito.



2. Kopuru bat baino ez da kobratuko, dagokion araudiarekin bat etorritz, kopiak egiten badira edo informazioa jasotzen duen jatorrizko bertsioa beste formatu batera pasatzeak kosturen bat eragiten badu. Kopuru hori ezin izango da izan eragindako benetako kostua baino handiagoa.

### 29. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea mugatzea

1. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea legeek espresuki ezarritako arrazoiengatik bakarrik ukatu edo murriztu daiteke.
2. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidearen mugak xedearakiko eta helburuarekiko proportzioan aplikatuko dira, kasu zehatz bakoitzaren inguruabarren arabera, eta talka egiten duten eskubideak interes publikoaren eta babestutako interesen arabera haztatuko dira; gainera, modu murriztaile batean interpretatuko da beti, hau da, irispidearen eskubidearen mesedetan eta, betiere, berdintasun-printzipioaren eta arbitrariotasun-interdikzioaren printzipioarekin bat etorritz.
3. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea ukatu edo mugatzea printzipio orokorraren salbuespena da eta, beraz, aurreko apartatuetan adierazitako printzipioen arabera arrazoi sendoak eman beharko dira, eta kausa hauetan eta oinarritzko legeek aitortutako kausetan baino ezin izango dira oinarritu:
  - a) Datu pertsonalak babestea, lege honek xedatutakoaren arabera.
  - b) Konfidentziasuna eta sekretua bermatzea erabakiak hartzeko prozesuetan.
  - c) Zaintzako, ikuskapeneko eta kontrolako administrazio-eginkizunak.
  - d) Lege-mailako arauak babesten duten informazio guztia.
4. Adingabekoei buruzko informazioa babestutzat joko da kasu guztietan, baldin eta informazio hori jakiteak edo zabaltzeak nortasunaren garapen askea baldintzatu badezake etorkizunean, salbu eta izaera anonimoa bermatu ahal bada.
5. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea legeek ezarritako denborarako baino ez da ukatuko edo mugatuko, edo neurri hori justifikatzen duten arrazoiak dirauten bitartean.

2. Únicamente se cobrará una cantidad, conforme a la normativa correspondiente, si se expiden copias o se origina un coste debido a la transposición a un formato diferente del original en el que se contenga la información. La cantidad no podrá exceder el coste real en el que se incurra.

### Artículo 29. Límites al derecho de acceso a la información pública

1. El derecho de acceso a la información pública solamente puede ser denegado o restringido por las causas expresamente establecidas por las leyes.
2. La aplicación de los límites al derecho de acceso a la información pública será proporcional a su objeto y finalidad según las circunstancias de cada caso concreto, ponderándose los derechos en colisión en función del interés público y los intereses protegidos, y se interpretará siempre de manera restrictiva en beneficio del derecho de acceso, y en todo caso conforme a los principios de igualdad y de interdicción de la arbitrariedad.
3. La denegación o limitación del derecho de acceso a la información pública constituye la excepción al principio general, por lo que exigirá motivación reforzada conforme a los principios recogidos en los apartados anteriores y se podrá fundamentar únicamente en las siguientes causas, así como en las reconocidas en la legislación básica:
  - a) La protección de datos personales en los términos establecidos en esta ley.
  - b) La garantía de confidencialidad o el secreto requerido en los procesos de toma de decisión.
  - c) Las funciones administrativas de vigilancia, inspección y control.
  - d) Toda aquella información protegida por normas con rango de ley.
4. La información relativa a los menores de edad cuyo conocimiento o divulgación pueda condicionar el libre desarrollo de su personalidad en el futuro tendrá en todos los casos la condición de protegida, excepto cuando pueda garantizarse su carácter anónimo.
5. La denegación o limitación del derecho de acceso a la información pública solo será de aplicación durante el periodo de tiempo determinado por las leyes o en tanto se mantenga la razón que la justifique.

6. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea ukatu edo mugatzea erabakitzeak diren ebazpenak argitaratu egingo dira, interesdunei jakinarazi ondoren; baina, lehenago, bertan agertzen diren datu pertsonalak disoziatuko dira.

### 30. artikulua. Datu pertsonalak babestea

1. Hirugarrenen datu pertsonalak dauzkan informazio publikora iristeko eskabideak ebazteko, datu pertsonalen babesari buruzko arauetan xedatutakoa bete beharko da.
2. Informazio publikora iristeko eskabideak ukatu egingo dira, baldin eta lortu nahi den informazioak bereziki babestutako datu pertsonalak badauzka, hala nola ideologiari, sindikatu-afiliazioari, erlijioari, sinesmenei, jatorriari, osasunari eta bizitza eta orientazio sexualari buruzko datuak eta datu biometrikoak edo genetikoak, eta, hala badagokio, arau-hausleari ohartarazpen publikoa egitea ez dakarten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak ere, salbu eta ukitutako pertsonak espresuki onartzen badu eskabidearekin batera aurkeztu behar den idazki baten bidez.
3. Informazio publikora iristeko eskabidearen xedeak lotura zuzena badu dagokion entitate publikoaren antolamenduarekin, funtzionamenduarekin edo jarduera publikoarekin, eta hango datu pertsonalak identifikazio-datuak baino ez badira, baimena emango da informazio hori irispidean izateko, salbu eta, kasu jakin horretan, dibulgazioaren interes publikoaren gaintik gailendu behar bada datu pertsonalen babesa edo Konstituzioak babestutako beste eskubide batzuk.
4. Nolanahi ere, ez da irispiderik emango, inguruabar bereziak daudela iritziz gero, hau da, datu pertsonalen babesa informazio-dibulgazioaren interes publikoaren gaintik badago edo ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudia gordetzeko eskubidea zaindu behar bada.
5. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea ezin izango da ukatu edo mugatu, baldin eta irispidea ematen bada datu pertsonalak bereizi ondoren, halakorik egonez gero, eta, modu horretan, ukitutako pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada.

### 31. artikulua. Iripide partziala

Eskatutako informazioaren zati bat aurreko artikuluetan zerrendatutako mugaren baten

6. Las resoluciones mediante las que se acuerde la denegación o limitación del derecho a la información pública, una vez notificadas a los interesados, serán objeto de publicidad previa disociación de los datos de carácter personal que contuvieran.

### Artículo 30. Protección de datos personales

1. Para la resolución de las solicitudes de acceso a la información pública que contenga datos personales de terceras personas, se estará a lo dispuesto en la normativa reguladora de la protección de datos de carácter personal.
2. Las solicitudes de acceso a la información pública serán denegadas si la información que se desea obtener contiene datos personales especialmente protegidos, como los relativos a la ideología, la afiliación sindical, la religión, las creencias, el origen, la salud y la vida y orientación sexual, así como datos biométricos o genéticos, y en su caso aquellos relativos a la comisión de infracciones penales o administrativas que no conlleven la amonestación pública al infractor, salvo que el afectado lo consienta expresamente mediante un escrito que debe acompañar la solicitud.
3. Cuando el objeto de la solicitud de información pública esté directamente relacionado con la organización, el funcionamiento o la actividad pública de la entidad pública concernida que contenga datos personales meramente identificativos, procederá la concesión del acceso a la misma, salvo que excepcionalmente, en el caso concreto, deba prevalecer sobre el interés público de su divulgación la protección de datos personales u otros derechos constitucionalmente protegidos.
4. En cualquier caso, se denegará el acceso cuando se considere que concurren circunstancias especiales en el caso concreto que hacen prevalecer la protección de los datos personales sobre el interés público en la divulgación de la información, o que debe preservarse el derecho al honor, a la intimidad y a la propia imagen.
5. No procederá la denegación o limitación del derecho a la información pública si el acceso se efectúa previa disociación de los datos de carácter personal que contuvieran, de modo que se impida la identificación de las personas afectadas.

### Artículo 31. Acceso parcial

Si la información solicitada estuviera afectada parcialmente por alguna de las limitaciones



eraginpean badago, ahal dela, irispide partziala emango da; horretarako, ez da jarriko mugen eraginpeko zatia, salbu eta horrek informazio distorsionatua, nahasgarria edo zentzugabea eragiten badu. Horrelako kasuetan, eskatzaileari adieraziko zaio informazioaren zer zati utzi den eman gabe.

### **32. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabideak izapidetu eta ebazteko organo eskudunak**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta instituzionalaren eremuan, informazioa daukaten zuzendaritza-organotako titularren eskumena da informazio publikorako irispidea izateko eskabideak izapidetu eta ebaztea.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari atxikitako edo lotutako entitate instrumentaletan, estatutuek edo funtzionamendu-arauiek zehazten dute zein diren organo eskudunak.
3. Manu horiek aplikatu behar dituzten gainerako erakunde eta antolakundeek funtzionamendu-arauetan ezarriko dute eskumen hori, lege honen arabera.

### **33. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko prozedura**

1. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea baliatzeko prozedura berezia da. Lege honetan xedatutakoa betetzeaz gain, modu osagarrian, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzko arauak ere bete behar dira.
2. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea balia daitekeela bermatu eta errazteko, kendu beharko dira oztupo eta eragozpen diren eskakizun eta betekizun guztiak, prozeduran interesa duten pertsonen identifikazioari eta sinadurari dagokienez batez ere.

### **34. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea**

1. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea baliatzeko prozesua eskabidea aurkezten denean hasiko da; eskabide hori informazioa duen administrazio-organotako entitatearen titularri zuzendu beharko zaio. Zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahala duten pertsona fisiko edo juridikoen esku dagoen informazioa bada, eskabidea pertsona horiek atxikita dauden eta titulu honen aplikazio-eremuan dagoen administrazioari, organismoari edo entitateari zuzenduko zaio. Eskabidea zuzenean entitate pribatu horiei aurkezten bazaie, haiek atxikita

relacionadas en los artículos anteriores, se facilitará, siempre que sea posible, el acceso parcial, omitiendo la parte afectada por la limitación, salvo que de ello resulte una información distorsionada, equívoca o sin sentido. En este caso, se indicará al solicitante qué parte de la información ha sido omitida.

### **Artículo 32. Órganos competentes para la tramitación y resolución de las solicitudes de acceso a la información pública**

1. En el ámbito de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi son competentes para la tramitación del procedimiento y resolución de las solicitudes de acceso a la información pública las personas titulares de los órganos directivos que posean la información.
2. En las entidades instrumentales adscritas o vinculadas al sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi son competentes los órganos que determinen los estatutos o normas de funcionamiento.
3. El resto de instituciones y organizaciones sujetas a la aplicación de estos preceptos, conforme a esta ley, establecerán esta competencia en sus normas de funcionamiento.

### **Artículo 33. Procedimiento para el acceso a la información pública**

1. El procedimiento para el ejercicio del derecho de acceso a la información pública tiene carácter de especial. Se rige por lo dispuesto en esta ley y, supletoriamente, por la normativa que regula el procedimiento administrativo común de las administraciones públicas.
2. Con el fin de garantizar y facilitar el ejercicio del derecho de acceso a la información pública, deberán omitirse todas aquellas exigencias y requisitos que puedan obstruirlo o impedirlo, sobre todo en cuanto a la identificación y firma de las personas interesadas en el procedimiento.

### **Artículo 34. Solicitud de acceso a la información pública**

1. El procedimiento para el ejercicio del derecho de acceso a la información pública se inicia con la presentación de la correspondiente solicitud, que deberá dirigirse al titular del órgano administrativo o entidad que posea la información. Cuando se trate de información en posesión de personas físicas o jurídicas que presten servicios públicos o ejerzan potestades administrativas, la solicitud se dirigirá a la Administración, organismo o entidad incluidas en el ámbito de aplicación de este Título a las que se encuentren vinculadas. Si la solicitud se presentara directamente ante tales entidades

dauden organo publikoari igorriko diote, erregistratu eta ebatz dezan, eskatutako informazioarekin batera, baldin eta haien esku badago.

2. Eskabidea edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da, eta alderdi hauek behintzat adierazi beharko ditu:
  - a) Eskatzailearen izena.
  - b) Zer informazio eskatu den, zehatz-mehatz deskribatuta, dokumentu edo espediente zehatzik aipatu beharrik gabe.
  - c) Hala badagokio, zer modalitate edo formatutan nahi duen izan eskatutako informaziorako irispidea.
  - d) Harremanetarako helbide bat, ahal dela, elektronikoa, komunikazioetarako.
3. Eskatzaileak ez du nahitaz arrazoitu behar zergatik nahi duen informazio publiko horretarako irispidea izan, eta ez arrazoitza ez da izango baztertzeko kausa. Hala eta guztiz ere, informazio hori eskatzeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu eta, ebazpena emateko orduan, kontuan hartu ahal izango dira.
4. Eskabidea Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialeko edozeinetan aurkeztu ahal izango da, hargatik eragotzi gabe Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 76.3 artikuluan xedatutakoa.

### 35. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea ez onartzeko kausak

Kasu hauetan soilik oinarritutako ebazpen arrazoitu baten bidez erabakiko da eskabidea ez onartzea:

- a) Informazioa prestatzen ari bada edo argitalpen orokor batekoa bada, kasu horretan, ez onartzeko ebazpenak zehaztu beharko du zer organo ari den informazio hori prestatzen eta zenbat denbora daukan aurreikusita amaitzeko eta irispidean jartzeko.
- b) Barne-komunikazio osagarri edo lagungarri buruzkoa bada, hala nola garrantzirik edo interes publikorik ez daukaten oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan, barneko edo administrazio-organu edo -entitateen arteko komunikazio eta txostenetan dagoena. Nahitazko txostenei ez zaie emango eskabidea ez onartzea justifikatzeko nahikoa den izaera osagarri edo lagungarri hori.
- c) Informazio hori hedatu aurretik modu konplexu batean prestatu behar bada berriro. Eskatutako

privadas, estas remitirán la misma, para su registro y resolución, al órgano público al que se encuentren vinculadas, junto con la información solicitada, si estuviera en su poder.

2. La solicitud podrá ser realizada por cualquier medio, y deberá indicar como mínimo los siguientes extremos:
  - a) Identidad de la persona solicitante.
  - b) Descripción precisa de la información solicitada, sin necesidad de indicar un documento o expediente concretos.
  - c) En su caso, la modalidad o formato preferido para el acceso a la información solicitada.
  - d) Dirección de contacto, preferentemente electrónica, a efectos de comunicaciones.
3. El solicitante no está obligado a motivar su solicitud de acceso a la información pública y la ausencia de motivación no será por sí sola causa de su rechazo. No obstante, podrá exponer los motivos por los que solicita la información, que podrán ser tenidos en cuenta cuando se dicte la resolución.
4. La solicitud podrá presentarse en cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin perjuicio de lo previsto en el art. 76.3 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco.

### Artículo 35. Causas de inadmisión de la solicitud de acceso a la información pública

La inadmisión de la solicitud se acordará mediante resolución motivada basada únicamente en alguno de los siguientes supuestos:

- a) Cuando se refiera a información que está en curso de elaboración o de publicación general, en cuyo caso la resolución de no admisión deberá especificar el órgano que elabora dicha información y el tiempo previsto para su conclusión y puesta a disposición.
- b) Cuando se refiera a comunicaciones internas de carácter auxiliar o de apoyo, como las contenidas en notas, borradores, opiniones, resúmenes, comunicaciones o informes internos o entre órganos o entidades administrativas que carecen de relevancia o interés público. Los informes preceptivos no tendrán esta consideración de carácter auxiliar o de apoyo que baste para justificar la inadmisión de la solicitud por esta causa.
- c) Cuando se refiera a información para cuya divulgación sea necesaria una acción previa de



informazioak tratamendu informatizatu arrunta behar badu eskatzaileari eman aurretik, tratamendu hori ez da joko informazioaren birprestaketatzat; beraz, ez du balio izango eskabidea ez onartzeko justifikazio gisa.

- d) Eskabidea jasotzen duen erakundeak informazioa ez badauka, eta ez badaki zer entitatek daukan.
- e) Eskabidea nabarmen errepikakorra bada edo, lege honen gardentasun-xedeari erreparatuta, justifikatu gabeko abusuzko izaera badu.

### 36. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea izapidetzea

1. Eskabidea entitate hartzailearen esku ez dagoen informazioari buruzkoa bada, entitate horrek organismo eskudunari bidaliko dio, baldin eta zein den badaki, eta eskatzaileari emango dio horren berri.

Horretarako, administrazio publikoek lankidetzatza-bideak jarriko dituzte, hori dela-eta beren sektore publikoetan eskabideak erreproduzitu beharrak dakartzan administrazio-kargak murrizteko xedez.

2. Eskabidean ez bada nahiko identifikatzen informazioa, entitate hartzaileak eskatzaileari eskatuko dio zehaztu dezala hamar eguneko epean, eta adieraziko dio ezen, hori egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta ebazpena emateko epea eten dela. Adierazitako epea igarotzen bada zuzenketa egin gabe, eskabidea ebazpen baten bidez artxibatuko da eta eskatzaileari jakinaraziko zaio, errekurtsioa aurkezteko aukera izan dezan edo, hala badagokio, beste eskabide bat egin dezan, zer eskatzen duen edo zer informazio nahi duen zehazteko.

3. Eskabidea behar bezala identifikatutako hirugarrenen eskubide edo interesei eragiten dien informazioari buruzkoa bada, ebazteko organo eskudunak entzunaldiaren izapidea egingo die hirugarren horiei, hamabost eguneko epean egoki deritzotena alega dezaten eta, hala badagokio, adostasun espresua eman dezaten. Eskatzaileari horren berri eman beharko zaio, eta adieraziko zaio bere eskabidea ebazteko epea eten dela eraginpeko hirugarrenen alegazioak edo baimena jaso arte edo horiek aurkezteko emandako epea bukatu arte.

reelaboración compleja. La solicitud de información a obtener previo tratamiento informatizado de uso corriente no se considerará reelaboración de la información que justifique su inadmisión.

- d) Cuando la institución receptora de la solicitud no disponga de la información ni tenga constancia de qué otra entidad puede disponer de ella.
- e) Cuando la solicitud sea manifiestamente repetitiva o tenga un carácter abusivo no justificado con la finalidad de transparencia de esta Ley.

### Artículo 36. Tramitación de la solicitud de acceso a la información pública

1. Si la solicitud se refiere a información que no obre en poder de la entidad a la que se dirige, esta la remitirá al organismo competente, si lo conociera, e informará de esta circunstancia al solicitante.

A estos efectos, las administraciones públicas habilitarán cauces de colaboración a fin de reducir cargas administrativas que impliquen la necesidad de reproducir solicitudes ante sus diferentes sectores públicos por este motivo.

2. Cuando la solicitud no identifique de forma suficiente la información, la entidad receptora, en el plazo de diez días tras su recepción, requerirá al solicitante que la concrete en el plazo improrrogable de diez días, con indicación de que en caso de no hacerlo se le tendrá por desistido, así como de la suspensión del plazo para dictar la resolución correspondiente. Transcurrido el señalado plazo sin haber procedido a la subsanación se procederá al archivo de la solicitud mediante resolución que se notificará al solicitante a efectos de que pueda presentar el correspondiente recurso o, en su caso, presentar una nueva solicitud concretando su petición o la información demandada.

3. Si la solicitud se refiere a información que afecte a derechos o intereses de terceras personas, debidamente identificadas, el órgano encargado de resolverla concederá a estas el oportuno trámite de audiencia por un plazo de quince días para que aleguen lo que crean conveniente y otorguen, en su caso, su consentimiento expreso. La persona solicitante será informada de esta circunstancia, así como de la suspensión del plazo para resolver su petición hasta que se reciban las alegaciones o el consentimiento de las terceras personas afectadas o haya transcurrido el plazo concedido para su presentación.

4. Baldin eta eskabidearen xede den informazioa, eskabidearen hartzailearen esku egon arren, beste batek egin edo sortu badu osorik edo nagusiki, eskabidea beste horri bidaliko zaio, berak erabaki dezan irispidea eman ala ez.

### 37. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea ebaztea

1. Informazio publikorako irispidea eman ala ez erabakitzen duen ebazpena eskatzaileari jakinarazi behar zaio, bai eta eraginpean dauden eta hala eskatu duten hirugarrenei ere, ebazteko organo eskudunak eskabidea jaso eta gehienez ere hilabeteko epean.
2. Epe hori hamabost egun gehiago luzatu ahal izango da, baldin eta hala behar bada eskatutako informazioaren bolumenarengatik edo konplexutasunarengatik, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio.
3. Egokiro arrazoitu beharko dira bai irispidea ukatzen duten ebazpenak, bai irispide partziala edo eskatutakoa ez den modalitate baten bidezko irispidea ematen dutenak, bai hirugarren bat aurka azaldu arren irispide hori ahalbidetzen dutenak.
4. Ebazteko gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, ulertuko da informazio publikorako irispidea ezetsi egin dela.

### 38. artikulua. Informazioa irispidean jartzea eta ematea

1. Eskabide baten ebazpena osorik edo zati batean baiestekoa bada, eskatutako informazioa erantsiko zaio ebazpenari, edo, lege honetan xedatutakoaren arabera informaziora iristeko beste modalitateirik baldin badago, informazio horretara berehalakoan nola iritsi adieraziko da; eskubide hori benetan balia daitekeela bermatu beharko da horrela, informazio osora ahalik eta eperik laburrenean iristeko bidea emanda.
2. Ebazpenak hirugarren bati eragiten dion informazio baterako irispide osoa edo partziala ematen badu eta hirugarren hori kontra azaldu bada aurreko gorabeheran, informaziorako irispidea ezin izango da benetan gauzatu, harik eta hirugarrenak ebazpena Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan, 39. artikuluaaren arabera, edo jurisdikzio-bidean errekurritzeko daukan epea amaitu arte, errekurtsorik jartzen ez badu, edo eskatzaileak informazioa jasotzeko eskubidea duela baieztatzen duen ebazpen irmoa eman arte, errekurtsioa jartzen badu.

4. Cuando la información objeto de la solicitud, aun obrando en poder de la entidad a la que se dirige, haya sido elaborada o generada en su integridad o parte principal por otra, se le remitirá la solicitud a ésta para que decida sobre el acceso.

### Artículo 37. Resolución de la solicitud de acceso a la información pública

1. La resolución mediante la que se conceda o deniegue el acceso a la información pública deberá notificarse al solicitante, así como a los terceros afectados que así lo hayan solicitado, en el plazo máximo de un mes desde la recepción de la solicitud por el órgano competente para resolver.
2. Este plazo podrá ampliarse por otros quince días más en aquellos supuestos en los que el volumen o la complejidad de la información solicitada así lo hagan necesario, notificando esta circunstancia al solicitante.
3. Las resoluciones que denieguen el acceso, las que concedan el acceso parcial o a través de una modalidad diferente a la solicitada, así como las que permitan el acceso cuando haya habido oposición de una tercera persona, serán convenientemente motivadas.
4. Transcurrido el plazo máximo para resolver sin que se haya dictado y notificado resolución expresa se entenderá que la solicitud de acceso a la información pública ha sido desestimada.

### Artículo 38. Formalización del acceso y entrega de la información

1. Cuando la resolución de una solicitud sea estimatoria, total o parcialmente, la resolución irá acompañada de la información solicitada o, si conforme a lo dispuesto en esta ley resultara procedente alguna otra modalidad de acceso, de la indicación del modo de acceso inmediato a dicha información, que deberá garantizar la efectividad del derecho permitiendo acceder a la integridad de la información en el menor plazo posible.
2. En el caso en que la resolución conceda el acceso total o parcial a una información que afecte a terceras personas que se hayan opuesto en el correspondiente incidente previo, el acceso sólo se hará efectivo una vez vencido el plazo de que dispone el tercero para recurrirla, tanto ante la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena conforme al procedimiento contemplado en el artículo 39 como en la vía jurisdiccional, sin que lo haya hecho o una vez sea firme la resolución del recurso confirmando el derecho del solicitante a recibir la información.



**39. artikulua. Aurkaratze-prozedura**

1. Informazio publikorako irispidearen arloan emandako ebazpenek amaiera ematen diote administrazio-bideari, eta errekurtsua aurkez daiteke zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, hargatik eragotzi gabe lege honetan xedatutako aukerako erreklamazioa Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan jartzeko aukera, edo, hala badagokio, informazio publikorako irispideari buruzko erreklamazioetako bitartekaritza-prozedura hasteko eskatzea, halaber, lege honen arauen arabera.
2. Nolanahi ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino ezin izango da jarri Eusko Legebiltzarrak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Arartekoak informazio publikorako irispidearen arloan emandako ebazpenen aurka.

**40. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako aukerako erreklamazioa**

1. Informazio publikorako irispidearen arloko ebazpen espresu ororen edo ustezko ebazpen ororen aurkako erreklamazioak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan jarri ahal izango da, aukeran eta administrazioarekiko auzibidean aurkaratu baino lehen. Aukerako erreklamazio hori administrazio-errekurtsoen ordezkaria izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.
2. Erreklamatzeko izapideek prozedura hau beteko dute:
  - a) Erreklamazioa jartzeko epea hilabetekoa izango da, aurkaratutako egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Egintza espresua ez bada, administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrerako edozein unetan jarri ahal izango da erreklamazioa.
  - b) Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren iritziz, erreklamatzeko informazioak hirugarren ondo identifikatuen eskubideak edo interesak ukitu ahal baditu, entzunaldiaren izapidea egingo zaie, beren eskubideei komeni zaiena alega dezaten.
  - c) Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori pasatzen denean, ezetsizat joko da erreklamazioa.

**Artículo 39. Procedimiento de impugnación**

1. Las resoluciones dictadas en materia de acceso a la información pública ponen fin a la vía administrativa y son recurribles directamente ante la Jurisdicción Contencioso-administrativa, sin perjuicio de la posibilidad de interposición de la reclamación potestativa ante la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena prevista en la presente ley o, en su caso, de solicitar el inicio de un procedimiento de mediación en las reclamaciones de acceso a la información pública, conforme a la regulación contenida asimismo en esta ley.
2. No obstante, contra las resoluciones dictadas por el Parlamento Vasco, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y el Ararteko en materia de acceso a la información pública solo cabrá la interposición del recurso contencioso-administrativo.

**Artículo 40. Reclamación potestativa ante la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena**

1. Frente a toda resolución expresa o presunta en materia de acceso a la información pública, podrá interponerse una reclamación ante la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena, con carácter potestativo y previo a su impugnación en vía contencioso-administrativa. Esta reclamación potestativa tendrá carácter sustitutivo de los recursos administrativos, de conformidad con lo establecido en el artículo 112.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
2. La reclamación se tramitará conforme al siguiente procedimiento:
  - a) La reclamación se podrá interponer en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la notificación del acto impugnado. Si el acto no fuera expreso, la reclamación podrá interponerse en cualquier momento a partir del día siguiente a aquel en que se produzcan los efectos del silencio administrativo.
  - b) Cuando la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena aprecie que la información reclamada pudiera afectar a derechos o intereses de terceros, debidamente identificados, se les concederá trámite de audiencia para que aleguen lo que a su derecho convenga.
  - c) El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de tres meses, transcurrido el cual, la reclamación se entenderá desestimada.

- d) Emandako ebazpenak, interesdunei jakinarazi ondoren, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren webgunean argitaratuko dira; baina, lehenago, bertan agertzen diren datu pertsonalak disoziatuko dira.
3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak erreklamazio hori ebazteko ematen duen ebazpena betearazlea izango da. Baiespen-ebazpen betearazlea irmoa denean, horren berri emango zaio benetan betetzeko arduradun entitateari, eta alderdi hauek behintzat adieraziko zaizkio: zelako irismena duen informaziorako irispideak, zer epe dagoen betetzeko eta zein baldintzatan gauzatu behar den. Eraginpeko entitateak ebazpena betetzeko egindako jarduketan berri eman beharko du eta, ebazpena ezarritako epean betetzen ez badu, interesdunak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari eman ahal izango dio horren berri, betetzeko errekerimendua egin dezan.
4. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren ebazpenen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da jarri.
5. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak informaziorako irispidearen arloan ematen dituen ebazpenak betetzeko egiten dituen errekerimenduak aintzat ez hartzeak erantzukizuna eskatzea ekar dezake, lege honetan xedatutakoarekin bat etorritz.
6. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak zehapen-prozedura hasteko eskatu ahal izango du, lege honetan xedatutakoarekin bat etorritz.
- d) Las resoluciones que se dicten, una vez se hayan notificado a los interesados, se publicarán en la página web de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena, previa disociación de los datos de carácter personal que contuvieren.
3. La resolución dictada por la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena resolviendo esta reclamación será ejecutiva. Una vez sea firme y ejecutiva la resolución estimatoria, se comunicará a la entidad encargada de su cumplimiento efectivo y se indicará, como mínimo, el alcance del acceso a la información, el plazo para cumplirla y las condiciones en que se haya de hacer efectiva. La entidad afectada habrá de comunicar las actuaciones llevadas a cabo para el cumplimiento de la resolución y, si no cumpliera la resolución en el plazo establecido, la persona interesada podrá comunicarlo a la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena para que esta requiera su cumplimiento.
4. Contra las resoluciones de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena solo se podrá interponer recurso contencioso-administrativo.
5. La desatención de los requerimientos que efectúe la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena para el cumplimiento de las resoluciones en materia de acceso a la información podrá dar lugar a la exigencia de responsabilidad, de acuerdo con lo establecido en esta ley.
6. La Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena podrá instar la incoación del procedimiento sancionador de acuerdo con lo previsto en esta ley.

#### 41. artikulua. Bitartekaritza-prozedura

1. Alderdietako edozeinek eskatu ahal izango dio Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari bitartekaritza-prozedura has dezala, baldin eta hor aurkeztu bada informazio publikorako irispidea izateko eskubidearen ondoriozko erreklamazioa; hala, bada, erreklamazioa jarri dela jakin eta bost eguneko epean egin beharko da eskabide hori.
2. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak, bitartekaritza-prozedurarako eskabidea jaso ondoren, esku hartzen duten alderdi guztiei eman behar die horren berri, eskabideari buruzko iritzia eman dezaten. Administrazioak ezin izango dio uko egin bitartekaritza-prozedura aplikatzeari, baldin eta alderdi interesdun guztiek onartzen badute.

#### Artículo 41. Procedimiento de mediación

1. Cualquiera de las partes podrá solicitar a la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena el inicio del procedimiento de mediación cuando se presente ante la misma una reclamación de derecho de acceso a la información pública, debiendo formalizarse dicha solicitud en el plazo de cinco días desde el momento en el que se haya tenido conocimiento de la interposición de la reclamación.
2. La Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena, una vez recibida la solicitud de procedimiento de mediación, deberá comunicarlo a todas las partes intervinientes para que se pronuncien sobre la solicitud. La administración no podrá oponerse a aplicar el procedimiento de mediación si todas las partes interesadas la acepta.



3. Bitartekaritza-prozedurak dirauen bitartean, aurreko artikuluan araututako aukerako erreklamazioaren izapideak etengo dira.
  4. Bitartekaritza-prozedura bera onartu eta hilabeteko gehieneko epean gauzatu beharko da. Bitartekaritza-akordiorik lortzen ez bada, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan aukerako erreklamazioaren izapideak aurrera egingo du, eten den puntutik aurrera.
  5. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak laguntza teknikoko bere langileen artean hautatu eta izendatuko du bitartekaria, zeinak administrazio-bitartekaritzaren arloko prestakuntza eta ezagutza espezifikoak izan beharko baititu. Bitartekaritza aurrez aurre zein telematikoki egin daiteke.
  6. Bitartekaritzaren ondoriozko akordioa hauek onartu behar dute: erreklamatuak, eraginpeko administrazioak eta, hala badagokie, prozeduran agertu diren hirugarrenek. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak berretsi beharko du hartutako erabakia, eta amaiera emango dio prozedurari, eta inola ere ezin izango da izan ordenamendu juridikoaren aurkakoa.
  7. Hala erabakitzen badute, esku-hartzaileek bitartekaritza-akordio partzialak egin ditzakete, eta irismena erreklamazioaren xede-zati batera mugatu berariaz. Kasu horretan, erreklamazioaren gainerako izapideek aurrera egingo dute Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren ebazpen-prozedura arruntaren bidez.
  8. Bitartekaritza-akordioa ezarritako baldintzetan eta epeetan bete beharko da. Ebazpenaren edukiri eta betearazpenari dagokienez, lege honetan Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren ebazpenetarako xedatutakoa aplikatu beharko da.
  9. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan, informazio publikorako irispidea izateko eskubidearen ondorioz gauzatzen den bitartekaritza-prozedura espezifikoak bete beharko du lege honetan, lege hau garatzeko araudian, eta Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentek ezarritako gidalerro eta erabakietan xedatutakoa.
  10. Ez dira bitartekaritzapean jarriko pertsonen oinarrizko eskubideei zuzenean eragiten dieten, ordena publikoaren aurkakoak diren edo hirugarrenen interesei kalte egiten dieten gaiak.
3. Mientras dure el procedimiento de mediación quedará suspendida la tramitación de la reclamación potestativa regulada en el artículo anterior.
  4. El procedimiento de mediación deberá sustanciarse en el plazo máximo de un mes a contar desde su aceptación. Si no se alcanzara un acuerdo de mediación, continuaría la tramitación de la reclamación potestativa ante la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena a partir del punto en que se hubiera suspendido.
  5. La persona mediadora será designada por la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena de entre el personal de su oficina técnica de apoyo y deberá contar con formación y conocimientos específicos en materia de mediación administrativa. La mediación se podrá desarrollar presencialmente o a través de medios telemáticos.
  6. El acuerdo fruto de la mediación deberá ser aprobado por la persona reclamante, la administración afectada y, en su caso, las terceras personas que hayan comparecido en el procedimiento. El acuerdo adoptado, que deberá ratificar la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena, pondrá fin al procedimiento y en ningún caso podrá ser contrario al ordenamiento jurídico.
  7. En los casos en que las partes intervinientes lo decidan, podrán adoptarse acuerdos de mediación parciales y limitar expresamente su alcance a una parte del objeto de la reclamación. En este caso, el resto de la reclamación continuará la tramitación por el procedimiento ordinario de resolución por parte de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena.
  8. El acuerdo de mediación deberá ejecutarse en los términos y con los plazos establecidos. Para su contenido y ejecución será de aplicación lo establecido para las resoluciones de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena en esta ley.
  9. El procedimiento específico de mediación por el derecho de acceso a la información pública ante la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena se registrará por lo dispuesto en esta ley, su normativa de desarrollo y las directrices y acuerdos que establezca la presidencia de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena.
  10. No se someterán a mediación aquellas materias que afecten directamente a los derechos fundamentales de las personas, fueran contrarias al orden público o perjudicasen intereses de terceros.

### III. KAPITULUA PLANGINTZA ETA KOORDINAZIOA

#### 42. artikulua. Gardentasunaren arloko plangintza

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak, gardentasunaren arloko sail eskudunak proposatuta, gardentasunaren arloko jarduketak programatu, ezarri eta jarraipena egiteko plan bat onartuko du, lege hau aplikatu eta garatzeko eta arlo horretan etengabe hobetzeko.
2. Plan horretan, hauek behintzat jaso beharko dira: planean garatu beharreko ekintzen zerrenda, ekintza horiek gauzatzeko behar diren jarduketak, aurrekontua, ekintzen betetze-maila jakiteko aukera ematen duten adierazleak, eta betearazpenaren ardurua duen zuzendaritza-organoa.
3. Urtero, planaren betetze-maila ebaluatuko da eta, amaitzen denean, inpaktuaren ebaluazioari buruzko azken txosten bat egingo da, eta hor agertu beharko dira hurrengo planean sartu beharreko hobekuntza-proposamenak. Gardentasun-plana eta ebaluazio txostenak argitara emango dira Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-atarian.
4. Gardentasun-plana egin eta ebaluatzen den bitartean, herritarren eta gizarte zibilaren parte-hartzea sustatuko da, bai eta kontuak emateko mekanismoak sartzea ere.
5. Gardentasunaren arloko sail eskudunak koordinatuko du nola prestatzen eta gauzaten den gardentasun-plana, eta jarraipena ere egingo du, sail bakoitzaren eremuko gardentasun-unitateen laguntzarekin.

#### 43. artikulua. Gardentasunaren arloko sailarteko koordinazioa

1. Gardentasunaren arloko sailarteko koordinaziorako, kide anitzeko organo bat eratuko da, eta hark zainduko du bitarteko, plataforma eta garapen informatikoen erabilera partekatua, funts publikoak aplikatzeko efizientzia lortze aldera.
2. Organo horrek planteatuko du nolakoa izango den arlo horretako zuzendaritza-plangintza eta zer-nolako jarraibideak, protokoloak eta irizpideak hartuko diren publikitate aktiboa ezartzeko eta gardentasunaren eta gobernu irekiaren arloko gainerako betebeharren jarraipena egiteko.

### CAPÍTULO III PLANIFICACIÓN Y COORDINACIÓN

#### Artículo 42. Planificación en materia de transparencia

1. En el ámbito del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Gobierno Vasco, a propuesta del Departamento competente en materia de transparencia, aprobará un plan para la programación, la implantación y el seguimiento de las actuaciones en materia de transparencia para la aplicación y el desarrollo de esta ley y para la mejora continua en esta materia.
2. Este plan habrá de incluir, como mínimo, la relación de acciones que se hayan de desarrollar durante el plan, las actuaciones necesarias para llevarlas a cabo, el presupuesto, los indicadores que permitan conocer el grado de cumplimiento de la acción y el órgano directivo responsable de la ejecución.
3. Anualmente se evaluará el grado de cumplimiento del plan y, cuando finalice, se realizará un informe final de evaluación del impacto, que habrá de incluir propuestas de mejora que incorporarán al siguiente plan. Tanto el plan de transparencia como los informes de evaluación se publicarán en el portal de transparencia del Gobierno Vasco.
4. Durante la elaboración y la evaluación del plan de transparencia se promoverá la participación ciudadana y de la sociedad civil, así como la inclusión de mecanismos de rendición de cuentas.
5. El Departamento competente en materia de transparencia llevará a cabo la coordinación y el seguimiento de la elaboración del plan de transparencia y de su ejecución, con la colaboración de las unidades de transparencia en el ámbito de cada Departamento.

#### Artículo 43. Coordinación interdepartamental en materia de transparencia

1. Se constituirá un órgano colegiado para la coordinación interdepartamental en materia de transparencia, que velará por la utilización compartida de medios, plataformas y desarrollos informáticos en aras de la eficiencia en la aplicación de los fondos públicos.
2. El referido órgano planteará la planificación directiva en la materia y la adopción de instrucciones, protocolos y criterios tanto respecto a la implementación de la publicidad activa como en relación con el seguimiento de las demás obligaciones en materia de transparencia y gobierno abierto.



3. Organo horren burua izango da gardentasunaren, informaziorako irispidearen eta gobernu irekiaren arloa sustatu, diseinatu, ebaluatu eta jarraipena egiteko eskumena erregelamenduz esleituta daukan pertsona, eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko goi-kargudun bat izango da partaide; gainera, gardentasunean, gobernu irekian eta informazioaren eta komunikazioen teknologien arloan espezializatutako teknikarien laguntza izango dute.
4. Autonomia-erkidegoko sektore publikoa osatzen duen subjektu bakoitzean, eta dagokion administrazio orokorreko sail bakoitzean, gardentasunaren, informazio publikorako irispidearen eta datu irekien arloko eginkizunak izango dituzten administrazio-unitateak sortu edo esleituko dira, eta unitate horietako bakoitza, halaber, dagokion arloan arduratuko da jarduketak koordinatzeaz.

#### IV. KAPITULUA ZEHAPEN-ARAUBIDEA

##### 44. artikulua. Zehapen-araubidea

1. Lege honetan ezarrita dauden eta betetzen ez diren gardentasun-betebeharrak zehatzeko, hurrengo artikuluetan xedatutakoa beteko da, hargatik eragotzi gabe beste mota bateko erantzukizunak ere izatea.
2. Kapitulu honetan tipifikatutako arau-hausteei dagokienez, zehatzeko ahala hauen arabera baliatu behar da: kapitulu hau, Euskal Administrazio Publikoen Zehatzeko Ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legea, eta administrazio publikoen araubide juridikoaren arloko gainerako arauak.

##### 45. artikulua. Erantzuleak

1. Egindako arau-hausteen erantzule dira, lege honetan tipifikatutako ekintzak egiten dituzten edo egin gabe uzten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak –edozein motatakoak direla ere–.
2. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-kargudunak edo zuzendaritzakideak dira kapitulu honek jasotzen dituen diziplinazko arau-hausteen erantzule, bai eta haien zerbitzurako enplegatu publikoak ere.
3. Halaber, informazioa ematera behartuta dauden subjektu pribatuek eta zuzenbide

3. Dicho órgano, que será presidido por la persona que tenga atribuida reglamentariamente la competencia de impulso, diseño, evaluación y seguimiento en materia de transparencia, acceso a la información y gobierno abierto, y en el que participará un miembro con rango de alto cargo de cada uno de los departamentos del Gobierno Vasco, será asistido por personal técnico especializado en transparencia, gobierno abierto, así como en materia de tecnologías de la información y comunicaciones.
4. En cada sujeto integrante del sector público de la Comunidad Autónoma, así como en cada departamento de su Administración general, se crearán o asignarán las unidades administrativas con funciones en materia de transparencia, acceso a la información pública y datos abiertos, que se encargarán asimismo de coordinar en su respectivo ámbito las actuaciones en dichas materias.

#### CAPÍTULO IV RÉGIMEN SANCIONADOR

##### Artículo 44. Régimen sancionador

1. El incumplimiento de las obligaciones establecidas en esta Ley en materia de transparencia se sancionará conforme a lo previsto en los artículos siguientes, sin perjuicio de las responsabilidades de otro tipo que pudieran concurrir.
2. La potestad sancionadora respecto de las infracciones tipificadas en este capítulo se ejercerá de conformidad con lo dispuesto en el mismo y en la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas y resto de normativa en materia de régimen jurídico de las administraciones públicas

##### Artículo 45. Responsables

1. Son responsables de las infracciones cometidas las personas físicas o jurídicas, cualquiera que sea su naturaleza, que realicen las acciones u omisiones tipificadas en la presente Ley a título de dolo o culpa.
2. En particular, son responsables de las infracciones de carácter disciplinario previstas en este capítulo las personas que tengan la consideración de alto cargo o personal directivo del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como el personal empleado público a su servicio.
3. A su vez, son responsables de las infracciones administrativas previstas en este capítulo en las



publikoko korporazioek egin eta kapitulu honetan ezarrita dauden arau-hauste administratiboen erantzule dira gardentasunari eta informazio publikorako irispideari buruzko betebeharrak aplikatu behar dituzten entitate pribatuak eurak, eta, subsidiarioki, entitate pribatu horietan erantzule eta jardule diren pertsona fisiko edo juridikoak.

que pueden incurrir los sujetos privados y corporaciones de derecho público obligadas a suministrar información, las propias entidades privadas a las que son de aplicación las correspondientes obligaciones en materia de transparencia y acceso a la información pública, así como, subsidiariamente, las personas físicas o jurídicas responsables de las mismas y a través de las cuales actúan.

#### 46. artikulua. Gardentasunaren arloko arau-hausteak

1. Hauek dira lege honen arabera behartuta dauden subjektu publikoei edo pribatuei egotz dakizkiekeen arau-hauste oso astunak:

- a) Lege honetan publizitate aktiboari buruz zerrendatzen den informazioa argitaratzeko betebeharra ez betetzea, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren berariazko errekerimendua aintzat hartu gabe.
- b) Informazio publikorako irispidearen arloan aurkeztu zaizkien erreklamazioetan Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak emandako ebazpen irmo eta behinbetikoak ez betetzea.

2. Hauek dira subjektu horiei berei egotz dakizkiekeen arau-hauste astunak:

- a) Lege honetan xedatuta dauden publizitate aktiboaren betebeharrak ez betetzea.
- b) Lege honetan ezarrita dauden publizitate aktiboaren printzipio gidarieratik eratorritako eskakizunak bete gabe ematea informazioa.
- c) Ez laguntzea Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzan aurkezten diren erreklamazioak izapidetzen.
- d) Informazio publikorako irispidea arbitrarioki ezestea.

3. Hauek dira subjektu horiei berei egotz dakizkiekeen arau-hauste arinak:

- a) Lege honetan ezarritako betebeharrak betetzeko eta lege honek bermatzen dizkien eskubideak baliatzen dituzten herritarrei arreta emateko, arduragabekeriaren edo zabarkeriaren ondoriozko egintzak edo ez-egiteak.
- b) Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea epean ebazteko betebeharra justifikaziorik gabe ez betetzea.

#### Artículo 46. Infracciones en materia de transparencia

1. Son infracciones muy graves imputables a los sujetos públicos o privados obligados conforme esta Ley, las siguientes:

- a) El incumplimiento de la obligación de publicar la información que se relaciona en esta ley sobre publicidad activa, cuando se haya desatendido el requerimiento expreso de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena.
- b) El incumplimiento de las resoluciones firmes y definitivas dictadas por la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena en las reclamaciones que se le hayan presentado en materia de acceso a la información pública.

2. Son infracciones graves imputables a esos mismos sujetos:

- a) El incumplimiento de las obligaciones de publicidad activa previstas en la presente ley.
- b) El suministro de información incumpliendo las exigencias derivadas de los principios rectores de la publicidad activa establecidos en esta ley.
- c) La falta de colaboración en la tramitación de las reclamaciones que se presenten ante la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena.
- d) La desestimación arbitraria del acceso a la información pública.

3. Son infracciones leves imputables a esos mismos sujetos:

- a) Los actos u omisiones que constituyen descuido o negligencia en el cumplimiento de las obligaciones establecidas en esta ley y en la atención de la ciudadanía cuando ejerza los derechos que la presente ley garantiza.
- b) El incumplimiento injustificado de la obligación de resolver en plazo la solicitud de acceso a la información pública.



4. Aurreko apartatuetan adierazitako arau-hauste oso astunak, astunak eta arinak sektore publikoko langileei egozten zaizkienean, ulertuko da aplikatu behar zaien araudiari buruzkoak direla, kontuan hartuta langilea funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile lan-kontratudunen araubidearen mende dagoen.

#### 47. artikulua. Zehapenak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen zerbitzura diharduten langileei eta zuzendaritza-kideei egoztekoak diren arau-hausteei kasuan-kasuan aplikatzekoa den diziplina-araudiaren arabera dagozkien zehapenak ezarriko zaizkie, langilea funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile lan-kontratudunen araubidearen mende dagoen kontuan hartuta.
2. Arau-hausteak goi-kargudunei egoztekoak direnean, honen arabera zehatu ahal izango dira:
  - a) Arau-hauste arinak kargu-hartze bidez edo 200 eurotik 1.000 eurora bitarteko isunen bidez zehatu ahal izango dira.
  - b) Arau-hauste astunak ez-betetzearen deklarazioaren bidez, eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratuta, edo 1.001 eurotik 6.000 eurora bitarteko isunen bidez zehatu ahal izango dira.
  - c) Arau-hauste oso astunak ez-betetzearen deklarazioaren bidez, eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratuta, edo 6.001 eurotik 12.000 eurora bitarteko isunen bidez, edo kargugabetzearen bidez zehatu ahal izango dira.
3. Informazioa ematera behartuta dauden entitate pribatuei eta zuzenbide publikoko korporazioei dagokienez, zehapen hauek izango dira:
  - a) Arau-hauste arinak kargu-hartze bidez edo 200 eurotik 5.000 eurora bitarteko isunen bidez zehatu ahal izango dira.
  - b) Arau-hauste astunak 5.001 eurotik 30.000 eurora bitarteko isunen bidez zehatuko dira.
  - c) Arau-hauste oso astunak 30.001 eurotik 400.000 eurora bitarteko isunen bidez zehatuko dira.
  - d) Arau-hauste astunek eta oso astunek eman den dirulaguntza osorik edo zati batean itzultzeko zehapen osagarria izan

4. Cuando las infracciones muy graves, graves y leves contempladas en los apartados anteriores sean imputadas al personal del sector público, se entenderán referidas a la respectiva normativa aplicable al mismo, de acuerdo con el régimen funcional, estatutario o laboral a que esté sujeto el mismo.

#### Artículo 47. Sanciones

1. A las infracciones imputables al personal directivo y al personal servicio de las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se les aplicarán las sanciones que correspondan con arreglo al régimen disciplinario que en cada caso resulte aplicable, de acuerdo con el régimen funcional, estatutario o laboral a que esté sujeto el mismo.
2. Cuando las infracciones sean imputables a altos cargos, podrán sancionarse de acuerdo con lo siguiente:
  - a) Las infracciones leves podrán sancionarse con amonestación o multa comprendida entre 200 y 1.000 euros.
  - b) Las infracciones graves podrán sancionarse con una declaración del incumplimiento y publicación en el boletín oficial correspondiente o con multa comprendida entre 1.001 y 6.000 euros.
  - c) Las infracciones muy graves podrán sancionarse con una declaración del incumplimiento y publicación en el boletín oficial correspondiente o con multa comprendida entre 6.001 y 12.000 euros o con el cese en el cargo.
3. Respecto a las entidades privadas y corporaciones de derecho público obligadas a suministrar información, las sanciones serán las siguientes:
  - a) Las infracciones leves podrán sancionarse con amonestación o multa comprendida entre 200 y 5.000 euros.
  - b) Las infracciones graves se sancionarán con multa comprendida entre 5.001 y 30.000 euros.
  - c) Las infracciones muy graves se sancionarán con multa comprendida entre 30.001 y 400.000 euros.
  - d) Las infracciones graves y muy graves podrán conllevar como sanción accesoria el reintegro total o parcial de

dezakete edo, hala badagokio, kontratua, ituna edo ezarritako lotura suntsiaraztea eragin.

la subvención concedida o, en su caso, la resolución del contrato, concierto o vínculo establecido.

4. Zehapen horiek guztiak ezarri eta mailakatzeko, osagarriak barnean izanik, bereziki irizpide hauek hartuko dira kontuan:
- Erruduntasun-maila edo nahita egina izatea.
  - Jokaera arau-hauslearen jarraitutasuna edo iraunkortasuna.
  - Zer-nolako kalteak eragin diren.
  - Berrerortzea, urte berean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin izanagatik, hala deklaratu denean administrazio-bidean irmoa den ebazpen batez.

4. Para la imposición y graduación de todas estas sanciones, incluidas las accesorias, se atenderá especialmente a los siguientes criterios:
- El grado de culpabilidad o la existencia de intencionalidad.
  - La continuidad o persistencia en la conducta infractora.
  - La naturaleza de los perjuicios causados.
  - La reincidencia, por comisión en el término de un año de más de una infracción de la misma naturaleza cuando así haya sido declarado por resolución firme en vía administrativa.

#### 48. artikulua. Prozedura

- Kapitulu honetako zehapenak ezartzeko, hauek bete behar dira: Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legeko xedapenak eta zehapen-prozeduraren gainerako arauak, edo, arau-haustek entitateen zerbitzura diharduten langileei egotzi behar bazaizkie, kasuan-kasuan aplikatzekoa den funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile lan-kontratudunen diziplina-araubidea.
- Lege honetan ezarritako diziplina-ahala baliatzeko prozedura, ustezko erantzulea goi-kargudun bat bada, Gobernuo kideen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko goi-karguen bateraezintasun-araubideak ezarritakoari lotuko zaio.
- Betiere, ofizioz emango zaio hasiera prozedurari, organo eskudunak erabakita, bere ekimenez edo goragoko agindu baten, beste organo batzuen eskabide arrazoitu baten edo partikular baten salaketaren ondorioz.
- Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak, gardentasunaren arlokoak diren eta titulu honetan adierazitako arau-hauste gisa kalifika daitezkeen ez-betetzeen berri badaki, zehapen-prozedura hastea proposa dezake.
- Zehapen-prozedura horietan ematen diren ebazpenak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari jakinarazi beharko zaizkio.

#### Artículo 48. Procedimiento

- Para la imposición de las sanciones establecidas en el presente capítulo, se seguirán las disposiciones previstas en la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas, y resto de normativa reguladora del procedimiento sancionador o, en el caso de infracciones imputables al personal al servicio de entidades públicas, el régimen disciplinario funcional, estatutario o laboral que en cada caso resulte aplicable.
- El procedimiento para el ejercicio de la potestad disciplinaria prevista en esta ley, cuando el presunto responsable sea una persona que tenga la consideración de alto cargo, se ajustará al establecido por la normativa de incompatibilidades de los miembros del Gobierno y altos cargos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- En todo caso, el procedimiento se iniciará de oficio, por acuerdo del órgano competente, bien por propia iniciativa o como consecuencia de orden superior, por petición razonada de otros órganos o por denuncia de un particular.
- La Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena, cuando constate incumplimientos en materia de transparencia susceptibles de ser calificados como alguna de las infracciones previstas en este título, podrá proponer la incoación del oportuno procedimiento sancionador.
- Las resoluciones que se dicten en dichos procedimientos sancionadores se deberán comunicar a la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena.



**49. artikulua. Zehatzeko ahala**

1. Diziplinazko zehapenak ezartzeko eskumena subjektu arau-hauslearen administrazioari edo entitateari aplikatu behar zaion araudian zehaztutako organoarena da edo, hala badagokio, arau-hauslearekiko lotura duen administrazioan edo entitatean aplikatu behar den araudian zehaztutako organoarena.
2. Arau-hausteak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-kargudunei egoztekoak badira, arau-hauslea zein sailen mendekoa den, sailburu horrek baliatuko du zehatzeko ahalmena zehapen arin eta astunen kasuan, eta Gobernu Kontseiluak, berriz, zehapen oso astunen kasuan.
3. Funts publikoen kontura laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeagatik edo sektore publikoarekiko kontratuak edo hitzarmenak izateagatik informazioa ematera behartuta dagoen entitate pribatu bat edo zuzenbide publikoko korporazioetako bat bada erantzulea, orduan dirulaguntza edo laguntza publikoa ematen duen edo kontratua edo hitzarmena sinatzen duen saileko sailburua izango da eskuduna.
4. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak hainbat sailetatik badatoz edo kontratua hainbat entitaterean artean sinatu bada, zenbatekorik handiena eman duen edo prestazioetan edo prezioan kargarik handiena hartzen duen saileko sailburua izango da eskuduna.
5. Informazioa emateko betebeharra eginkizun edo ahal publikoen ondorio bada, eginkizun edo ahal horiek gauzatzen diren arloa zein saili dagokion, horko titularra izango da eskuduna.
6. Lege honetan xedatutako betebeharrak benetan gauzatzeko behar duen informazio guztia Administrazioari emateko betebeharra dela eta, erantzulea pertsona fisiko edo juridiko bat bada, orduan informazio hori jaso behar duen saileko sailburua izango da eskuduna.

**III. TITULUA****GOBERNU-PROGRAMA ETA KONTU-EMATE SOZIALA****50. artikulua. Gobernu-programa**

1. Gobernu-ekintza denboran proiektatu eta sozializatzeko, eta herritarrekiko konpromisoaren eta erantzukizunaren oinarriak

**Artículo 49. Potestad sancionadora**

1. La competencia para la imposición de sanciones disciplinarias corresponderá al órgano que determine la normativa aplicable en la Administración o entidad a la que pertenezca el sujeto infractor o, en su caso, al órgano que determine la normativa aplicable en la Administración o entidad a la que se encuentre vinculada la persona infractora.
2. En el supuesto de que las infracciones sean imputables a altos cargos del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la potestad sancionadora será ejercida por la persona titular del departamento del cual dependa la persona infractora, en el caso de las sanciones leves y graves, y por el Consejo de Gobierno, en el caso de las sanciones muy graves.
3. Cuando sea responsable una entidad privada o corporación de derecho público de las obligadas a suministrar información por razón de las ayudas o subvenciones que perciba con cargo a fondos públicos, o por razón de contratos o convenios con el sector público, será competente la persona titular del departamento que otorga la subvención o ayuda pública o que suscribe el contrato o convenio.
4. Cuando las subvenciones o ayudas públicas procedan de distintos departamentos, o el contrato se suscriba entre varias entidades, será competente la persona titular del departamento que haya otorgado la de mayor cuantía o que asuma mayor carga en las prestaciones o precio.
5. Cuando la obligación de suministrar información derive de las funciones o potestades públicas que ejerza, será competente la persona titular del departamento a quien corresponda la materia en que las mismas son ejercidas.
6. Cuando sea responsable una persona física o jurídica en virtud de la obligación de suministrar a la Administración la información necesaria para el cumplimiento efectivo por aquella de las obligaciones previstas en esta ley, será competente la persona titular del departamento al que deba suministrar la información.

**TÍTULO III****PROGRAMA DE GOBIERNO Y RENDICIÓN SOCIAL DE CUENTAS****Artículo 50. Programa de Gobierno**

1. Con el fin de proyectar en el tiempo la acción de gobierno, socializarla y establecer las bases de su compromiso y responsabilidad ante la



ezartzeko, legegintzaldi bakoitzaren lehen lauhilekoan, Eusko Jaurlaritzak eduki irekiko gobernu-programa bat prestatuko du, eta programan hauek identifikatu:

- a) Lortu nahi diren helburu estrategikoak.
- b) Horretarako behar diren jarduerak eta baliabideak.
- c) Horretarako behar den denboraren zenbatespena.
- d) Programa betetzeko erantzukizuna duten organoak.
- e) Programaren jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetuko duten adierazleak.

2. Aurreikusitako jardueren artean, gobernu-programa osatuko duten lege-proiektuak, plan estrategikoak eta jarduketa garrantzitsuak identifikatu beharko dira.
3. Gobernu-programa Eusko Legebiltzarrerara igorriko da, haren berri izan dezan, eta, horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Administrazioak erabiltzen dituen euskarri guztietan argitaratuko da –Gobernu Irekiaren plataforman, bereziki–. Horretarako, herritarrek irispidean izateko modukoak izango diren informazio horren bertsio publikoak egingo dira.

#### 51. artikulua. Kontu-emate soziala

1. Lege honetan aipatutako publizitate aktiboaren printzipioa aplikatzeko, eta titulu honetan ezartzen denaren arabera egin beharreko ebaluazioei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, kontu-emate sozialaren helburua betetzeko, informazioaren berri emango die herritarrei, modu irisgarrian.
2. Horretarako, eta helburu hori betetzeko zehaztu daitezkeen garapenak eragotzi gabe, kontu-emate sozialak barnean hartuko du Eusko Jaurlaritzak Gobernu Irekiaren plataformaren bidez aurreko urteari buruzko alderdi hauei buruzko informazioa zabaltzea, aurreko ekitaldien aldean izandako bilakaerarekin batera:
  - a) Emandako zerbitzu publikoen kostu globala eta unitarioa, herritar bakoitzeko.
  - b) Aldi horretan enplegu publikoa osatu zuten giza baliabideak.

ciudadanía, el Lehendakari elaborará en el primer cuatrimestre de cada legislatura un Programa de Gobierno con contenido abierto, en el que se identificarán:

- a) Los objetivos estratégicos perseguidos.
- b) Las actividades y medios necesarios para alcanzarlos.
- c) Una estimación temporal para su consecución.
- d) La identificación de los órganos responsables de su ejecución.
- e) Los indicadores que permitirán su seguimiento y evaluación.

2. Dentro de las actividades previstas deberán identificarse los proyectos de ley, los planes estratégicos y las actuaciones significativas que formarán parte del Programa de Gobierno.
3. El Programa de Gobierno se remitirá al Parlamento Vasco para su conocimiento, y se publicará, tanto en el Boletín Oficial del País Vasco, como en todos aquellos soportes utilizados por la Administración y, en particular, en la Plataforma de Gobierno Abierto, para lo que se realizarán versiones públicas de esta información que resulten accesibles a la ciudadanía.

#### Artículo 51. Rendición social de cuentas

1. En aplicación del principio de publicidad activa reseñado en esta ley y con respecto a las evaluaciones a realizar en virtud de lo establecido en este título, la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi pondrá en conocimiento de la ciudadanía de modo accesible la información que le permita cumplir con el objetivo de una rendición social de cuentas.
2. A tal fin y sin perjuicio de los desarrollos que puedan determinarse para cumplir con este objetivo, la rendición social de cuentas comprenderá la divulgación por el Gobierno Vasco a través de la Plataforma de Gobierno Abierto de la información concerniente a los siguientes extremos referidos al año anterior, acompañados de su evolución comparativa con los ejercicios precedentes:
  - a) Coste global y unitario por ciudadano de los servicios públicos atendidos.
  - b) Recursos humanos que integraron el empleo público en ese período.



- c) Lortutako gizarte-ongizateko helburu nagusiak.
- d) Egindako inbertsio publikoak eta haien eraginkortasunaren analisia.
- e) Herrialdearen egoera azaltzen duten beste magnitude erraz batzuk, zorpetze-maila eta finantza-egoera barne.
- f) Etorkizunerako hartzen diren konpromiso nagusiak.
- g) Gizarte-egoera ahulean daudenekiko konpromiso argiak eta eraginkorrak.

#### IV. TITULUA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

##### I. KAPITULUA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

#### 52. artikulua. Herritarren parte-hartzearen helburua eta artikulazioa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak interesdunek, zenbait interesen ordezkari diren taldeek eta oro har herritarrek gai publikoetan parte har dezaten eta lankidetzan aritu daitezen bultzatuko du. Honela ulertuko da herritarren parte-hartzea: politika publikoak identifikatu, diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko prestatu diren prozedura, kanal eta organo instituzionalen multzoa eta herritarrei aktiboki entzuteko edozein tresna edo bitarteko ere.
2. Lege honetarako, herritarren parte-hartzearen helburua da esku-hartze publikoa behar duten premiak hobeto asetzea eta herritarrak inplikatzeko gai publikoei buruzko erabakiak hartzen.
3. Herritarrek bakarka edo taldeka hartu ahal izango dute parte, eta lege honetan xedatutako tresna eta bideen arabera.
4. Parte hartzeko modu horiek ez dute inolaz ere gutxituko legez kasuan-kasuan eskudunak diren administrazio-, ordezkaritza- eta gobernu-organoen erabakitze ahalmena.
5. Administrazio-prozedurako interesdunen izaera eragotzi gabe, administrazio-prozedura erkideko legeekin bat etorritik, parte hartzeko izapideen konfigurazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan ekimena sustatzen duen sektore publikoko entitateak alde aurretik eta behin-behineko zehaztu beharko du zein diren

- c) Principales objetivos de bienestar social alcanzados.
- d) Inversiones públicas realizadas y análisis de su eficiencia.
- e) Otras magnitudes sencillas que expliquen la situación del País, incluido el nivel de endeudamiento y la situación financiera.
- f) Principales compromisos de futuro que se asumen.
- g) Compromisos claros y eficaces para con los más desfavorecidos.

#### TÍTULO IV PARTICIPACIÓN CIUDADANA

##### CAPÍTULO I PARTICIPACIÓN CIUDADANA

#### Artículo 52. Finalidad y articulación de la participación ciudadana

1. El sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi impulsará la participación y colaboración en los asuntos públicos de las personas interesadas, de los grupos representativos de intereses diversos y de la ciudadanía en general. Se entiende por participación ciudadana el conjunto de procedimientos, canales y órganos institucionales, así como cualquier instrumento o medio de escucha activa a la ciudadanía, dispuestos para identificar, diseñar, ejecutar y evaluar las políticas públicas.
2. A los efectos de esta ley, la participación ciudadana tiene como finalidad la mejor satisfacción de las necesidades que precisan de una intervención pública y la implicación de la ciudadanía en la toma de decisiones sobre los asuntos públicos.
3. La participación ciudadana se podrá ejercer de forma individualizada o colectiva, de acuerdo con los instrumentos y cauces que se prevén en la presente ley.
4. En ningún caso el ejercicio de las formas de participación podrá menoscabar las facultades de decisión que legalmente corresponden a los órganos administrativos, representativos o de gobierno que en cada caso sean competentes.
5. Sin perjuicio de la condición de personas interesadas en el procedimiento administrativo, de acuerdo con la legislación de procedimiento administrativo común, respecto a toda configuración de trámites participativos, la entidad del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi promotora de la

entzunaldiaren izapiderako interesduntzat jotzen diren herritarrak eta taldeak; nolana ere, beste interesdun batzuk egiaztatu ahal izango dira gero.

### 53. artikulua. Gobernu Irekiaren plataforma

Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 75. artikuluekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa eta herritarrak etengabe interakzioan aritzeko gune nagusia da Gobernu Irekiaren plataforma; ekintza publikoko partaidetzazko eta erantzunkidetzazko kudeaketara bideratuta dago, eta hor gauzatzen dira gardentasunaren, parte-hartzearen eta kontu-ematearen printzipioak.

## II. KAPITULUA

### HERRITARREK PARTE HARTZEKO ETA ELKARLANEAN JARDUTEKO ERREGISTROA

#### 54. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistroa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistro bat sortzen da; publikoa izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean herritarren partaidetzaren arloko eskumena duen sailari atxikita egongo da.
2. Arauz zehaztuko dira inskripzio-betekizunak, idazpenen edukia, irispidea izateko moduak eta inskribatutako taldeen eta herritarren parte-hartzea justifikatzen duen ekimen bakoitza bultzatzen duten sailekiko koordinazioa.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistroan, antolakunde hauek inskribatu ahal izango dira:
  - a) Entitate kolektiboak: pertsona juridikoak, irabazi-asmorik gabekoak, edozein forma juridiko eta izaera dutenak, interes kolektiboak edo bazkideen interesak –bai orokorrak eta bai sektorialak– defendatzea helburu dutenak, eta jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituztenak.
  - b) Hausnarketa-taldeak: jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten erakunde akademikoak eta ikerketa-erakundeak.

iniciativa deberá determinar de forma anticipada y provisionalmente, sin perjuicio de la acreditación de ulteriores interesados, los ciudadanos y ciudadanas y grupos que tienen la condición de personas interesadas a los efectos del trámite de audiencia.

### Artículo 53. Plataforma de Gobierno Abierto

De conformidad con el artículo 75 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, la Plataforma de Gobierno Abierto es el espacio principal y permanente de interacción entre el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi y la ciudadanía, encaminado a la gestión participada y corresponsable en la acción pública, donde se materializan los principios de transparencia, participación y rendición de cuentas.

## CAPÍTULO II

### REGISTRO PARA LA PARTICIPACIÓN Y LA COLABORACIÓN DE LA CIUDADANÍA

#### Artículo 54. Registro para la participación y la colaboración de la ciudadanía de la Comunidad Autónoma de Euskadi

1. Se crea el Registro para la participación y la colaboración de la ciudadanía de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que tendrá carácter público, y estará adscrito al departamento competente en materia de participación ciudadana de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
2. Reglamentariamente se determinarán los requisitos de inscripción, el contenido de sus asientos, las formas de acceso y la coordinación con los departamentos promotores de cada iniciativa que justifique la participación de los grupos y ciudadanos o ciudadanas inscritos.
3. Serán susceptibles de inscripción en el Registro para la participación y la colaboración de la ciudadanía las siguientes organizaciones:
  - a) Entidades colectivas: las personas jurídicas, sin ánimo de lucro, cualquiera que sea su forma jurídica y su naturaleza, que tengan como fin la defensa de intereses colectivos o de sus asociados o asociadas, ya sean de carácter general o sectorial, que desarrollen sus actividades en la Comunidad Autónoma de Euskadi.
  - b) Grupos de reflexión: instituciones académicas y de investigación que desarrollen sus actividades en la Comunidad Autónoma de Euskadi.



- |   |  |
|---|--|
| <p>4. Erregelamendu bidez zehaztuko da zer-nolako informazioa eman behar duten talde horiek beren finantzaketa-iturriei buruz.</p> <p>5. Erregistroan erregistratzeak berekin dakar interesdun gisa aitortzea eta lege honetan bilduta dagoen parte hartzeko edozein prozesu garaiz eta zehatz-mehatz jakinarazi beharra, horrela lege honetan bildutako eskubideak oso-oso erabiltzeko. Hala ere, horrek ez du eragingo inskribatuta ez dauden beste talde edo entitate batzuk edo herritarrak baztertea.</p> <p>6. Prozesu horietan parte hartzeak ez du ordezkaturako entzunaldi publikoaren izapidea, dagokion araudiaren arabera izapide hori nahitaezkoa bada eta, araudi beraren arabera, ordezkari diren taldeak interesdunak baldin badira.</p> <p>7. Europar Batasuneko Gardentasunaren Erregistroarekin eta parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko foru- eta udal-erregistroekin lankidetzan aritzea sustatuko da, herritarrek eta zenbait interesen ordezkari diren taldeek hainbat erregistroan inskribatu beharrik izan ez dezaten, erregistro guztietako informaziorako irispidea modu koordinatuan izateko aukera izan dezaten, eta ahalik eta talde eta herritar gehienak barne hartu eta erregistra daitezen, hartara hobeto beteko baitira barneratzea, parte-hartzea eta gardentasuna lortzeko dituzten helburuak. Halaber, beste erregistro batzuekiko lankidetzara ere sustatuko da, eta beste horrenbeste egingo da Estatuan zein nazioartean herritarren parte-hartzea sustatzeko eta zenbait interesen ordezkari diren taldeen jarduera kontrolatzeko sor daitezkeen antzeko organoekin ere, jardunbide egokiak trukatzeko eta helburuak hobeto betetzen laguntzeko xedez.</p> | <p>4. Reglamentariamente se concretará la información que estos grupos deban aportar respecto a sus fuentes de financiación.</p> <p>5. La inscripción en el Registro implica el reconocimiento de la condición de interesado y la comunicación temprana y detallada de cualquier proceso participativo de los recogidos en esta ley, al objeto de ejercitar plenamente los derechos igualmente recogidos, sin que ello suponga la exclusión de otros grupos o entidades, o de ciudadanos o ciudadanas, no inscritas.</p> <p>6. La participación en dichos procesos no sustituye el trámite de audiencia pública en los supuestos en los que este trámite sea preceptivo conforme a la normativa correspondiente y estos grupos representativos tengan, con arreglo a esa normativa, la condición de interesados.</p> <p>7. Se promoverá la colaboración con el Registro de Transparencia de la Unión Europea y con los registros de participación y colaboración forales y municipales existentes para que los ciudadanos y las ciudadanas y los grupos representativos de intereses diversos no tengan que inscribirse en varios registros, puedan acceder de forma coordinada a la información de todos ellos y se facilite la inclusión y registro del mayor número posible de grupos y de ciudadanos y ciudadanas, contribuyendo al mejor el logro de sus fines de inclusión, participación y transparencia. Así mismo, se promoverá también la colaboración con otros registros similares de órganos de naturaleza análoga que puedan crearse tanto a nivel estatal como internacional, para la participación ciudadana y para el control de la actividad de los grupos representativos de intereses diversos al objeto de intercambiar buenas prácticas y reforzar la mejor consecuencia de sus fines.</p> |
|---|--|

#### 55. artikulua. Parte-hartzea sustatzeko neurriak

1. Herritarren asoziazionismoa, parte-hartzea eta garapen komunitarioko lankidetzara-praktika pribatuak edo publiko-pribatuak sustatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sensibiltzazio- eta prestakuntza-programak sustatu eta egingo ditu, genero-ikuspuntua txertatuta, eta bere zerbitzura diharduten langileei zein herritarrei zuzenduko zaizkie, parte hartzeko prozeduren berri jakin eta erabil ditzaten.
2. Helburu horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak hainbat tresna erabiltzea sustatuko du; besteak beste, inkestak, iritzi-eskeak, kontsulta-foroak, eztabaidaguneak

#### Artículo 55. Medidas de fomento de la participación

1. La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi promoverá y llevará a cabo programas de sensibilización y formación tanto para la ciudadanía como para el personal a su servicio, en orden a fomentar el asociacionismo entre la ciudadanía, la participación ciudadana y las prácticas colaborativas privadas o público-privadas para el desarrollo comunitario, en los que se integrará la perspectiva de género, con el fin de dar a conocer los procedimientos e instrumentos de participación y promover su utilización.
2. Con este objetivo la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi fomentará el uso de instrumentos variados incluyendo, entre otros, las encuestas, los sondeos, los foros



eta kontsultaguneak, lotesleak ez diren kontsulta orokor edo sektorialak, kontsulta irekiak, herritarren panelak, herritarren epaimahaiak, partaidetzazko deliberazio-prozesuak eta egoki izan daitezkeen gainerako tresna guztiak.

Horiek guztiak aurrez aurreko edo komunikazioaren teknologia egokien bidezko parte-hartzea bermatu beharko dute, Interneten dagoeneko badiren teknologiez eta bestelako batzuez gain, hala nola telekomunikazio mugikorren gailuetarako garatutakoak.

#### **56. artikulua. Parte hartzeko prozedura eta tresnen berme eta eskubide komunak**

1. Parte-hartzea benetakoa izan dadin, pertsona eta talde parte-hartzaileek berme hauek izan beharko dituzte:
  - a) Aukera izatea garaiz jakiteko interesatzen zaizkien prozeduretatik zein izapidetu daitezkeen, eta zer bide gaitu den prozedura horietan parte hartzeko.
  - b) Jakitea zer helburu lortu nahi den parte hartzeko prozesuaren bidez, nola parte hartu prozesu horretan, eta zer eskubide eta berme dituzten.
  - c) Eskubideak gauzatzeko garrantzitsua den informaziorako irispidea garaiz izatea; informazio hori jasotzea, lege honek informazio publikoaren gardentasun- eta kalitate-estandarrei buruz xedatutakoak beteta –batik bat, informazioa ulergarria eta eskuragarria izan dadila–, eta bitarteko propioen bidez alderatzeko aukera izatea.
  - d) Kasuan-kasuan parte-hartzaileen edo adituen artean sortzen den iritzi-truke, eztabaida edo deliberazioetan parte hartzea, lankidetzaren bitarteko bakoitzerako ezarritako moduen eta bermeen arabera.
| <p>2. Presidentea gobernu-dekretuz izendatuko da bost urterako, eta epe hori behin baino ezin izango da luzatu; baina, izendapenerako, gardentasunaren arloko sailburu eskudunak pertsona bat proposatuko du Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren eskumeneko gaietan ospe handia eta gaitasun profesionala duten eta eginkizunak betetzeko gaitasuna duten pertsonen artean.</p> <p>3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentea goi-karguduntzat hartuko da, sailburuordearen karguarekin parekatuta. Edonola ere, Kargu publikoen jokabide-kodea eta interes-gatazkek arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea eta bera garatzeko arauak aplikatuko dira.</p> <p>4. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentek arrazoi hauetako batengatik baino ezin izango du kargua utzi agintaldia amaitu aurretik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Norberak eskaturik.</li> <li>b) Dolozko delitu baten ondoriozko kondena izateagatik.</li> <li>c) Betebeharren ez-betetze larria izateagatik.</li> <li>d) Eginkizuna galarazten dion ezusteko ezintasuna izateagatik.</li> <li>e) Bateriaezintasuna izateagatik.</li> </ul> | <p>2. La persona titular de la Presidencia será nombrada por decreto del Gobierno a propuesta de la persona titular del Departamento competente en materia de transparencia por un período de cinco años, prorrogable por una sola vez, entre personas de reconocido prestigio y competencia profesional en el ámbito de las materias competencia de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena y aptitudes para el cumplimiento de sus funciones.</p> <p>3. La Presidencia de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena tendrá la consideración de Alto Cargo, asimilado al de Viceconsejero o Viceconsejera. En todo caso, le será de aplicación lo dispuesto en la Ley 1/2014, de 26 de junio, reguladora del código de conducta y de los conflictos de intereses de los cargos públicos y su normativa de desarrollo.</p> <p>4. La Presidencia de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena sólo cesará antes de la expiración de su mandato por alguna de las siguientes causas:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) A petición propia.</li> <li>b) Por condena por delito doloso.</li> <li>c) Por incumplimiento grave de sus obligaciones.</li> <li>d) Por incapacidad sobrevenida para el ejercicio de su función.</li> <li>e) Por incompatibilidad.</li> </ul> |
|---|--|

### 81. artikulua. Presidentearen eginkizunak

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidenteari honako eginkizun hauetan jardutea dagokio:

- a) Entitatearen legezko ordezkaria izatea eta haren funtzionamendua zuzentzea.
- b) Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako zuzendaritza-organoetako titularrak izendatzea, langile guztien buru gorena izatea, eta lanpostuen zerrenda onartzea.
- c) Urteko aurrekontuaren aurreproiektua egitea, gastuak xedatzea eta ordainketak agintzea, eta kontratuak eta hitzarmenak egitea.
- d) Informatzaileak babesteko agintaritza independentea den aldetik, kanpoko komunikazio-kanala kudeatzea, lege honen 9. artikuluan xedatutako esparruan.

### Artículo 81. Funciones de la Presidencia

Corresponde a la persona titular de la Presidencia de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena el ejercicio de las siguientes funciones:

- a) Ostentar la representación legal y dirigir el funcionamiento de la entidad.
- b) Nombrar a las personas titulares de los órganos directivos de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena, desempeñar la jefatura superior de todo el personal y aprobar la relación de puestos de trabajo.
- c) Elaborar el anteproyecto de presupuesto anual, disponer los gastos y ordenar los pagos, y celebrar los contratos y convenios.
- d) Gestionar el canal externo de comunicaciones en su condición de autoridad independiente de protección del informante, en el ámbito previsto en el artículo 9 de esta ley.



- |   |  |
|---|--|
| <p>e) Euskal Autonomia Erkidegoko euskal sektore publikoan eta pribatuan egiten diren arau-hausteen berri ematen duten informatzaileak babesteko diren eta ordenamendu juridikoan dauden neurriak hartzea, Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen arabera.</p>  | <p>e) Adoptar las medidas de protección previstas en el ordenamiento jurídico al informante de infracciones cometidas en el ámbito del Sector Público Vasco y en el sector privado en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en los términos contemplados en la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción.</p>  |
| <p>f) Zehapen-prozedurak ebaztea otsailaren 20ko 2/2023 Legean adierazitako zehapen-araubidearen esparruan (Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legea).</p>   | <p>f) Resolver los procedimientos sancionadores por las infracciones previstas en el marco del régimen sancionador contemplado en la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción.</p>   |
| <p>g) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu aurretik, informazio publikorako irispidearen arloko ebazpenen aurkako aukerako erreklamazioak ebaztea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazio eta entitateei, toki-administrazioei eta haien mendeko organismoei dagokienez –Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 65.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz–, eta Lan Harremanen Kontseiluari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eta Euskal Herriko Unibertsitateari dagokienez.</p> | <p>g) Resolver las reclamaciones potestativas contra las resoluciones en materia de acceso a la información pública, con carácter previo a su impugnación en la jurisdicción contencioso-administrativa, respecto de la administraciones y entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de las administraciones locales y sus organismos dependientes, conforme a lo previsto en el artículo 65.1 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, así como del Consejo de Relaciones Laborales, del Consejo Económico y Social y de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea .</p> |
| <p>h) Betebeharra ezarrita daukaten subjektuek lege honetako publizitate aktiboaren betebeharrak bete ditzaten zaintzea.</p>  | <p>h) Velar por el cumplimiento de las obligaciones de publicidad activa contenidas en esta ley por parte de los sujetos obligados.</p>  |
| <p>i) Diziplina- eta zehapen-espedituentz hasteko eskatzea, lege honetako xedapenekin bat etorritz.</p>   | <p>i) Instar la incoación de expedientes disciplinarios o sancionadores de acuerdo con las previsiones contempladas en esta Ley.</p>   |
| <p>j) Lege honek, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren estatutuak eta indarreko ordenamendu juridikoak ematen dizkieten gainerako eginkizunak egikaritzea, batez ere Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legeak emandakoak.</p>  | <p>j) Ejercer las demás funciones que le atribuyen esta ley, el Estatuto de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena y el resto del ordenamiento jurídico vigente, en especial la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción.</p>   |
| <p>k) Lege- edo erregelamendu-mailako bestelako xedapenek ematen dizkieten edo helburuak eraginkortasunez betetzeko ezinbestekoak diren gainerako eginkizunak.</p>  | <p>k) Aquellas otras funciones que le atribuyan otras disposiciones de rango legal o reglamentario, o bien que sean menester para el cumplimiento eficaz de sus fines.</p>   |

## 82. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako Kontseilu Aholku-emailea

- Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidenteak kontseilu aholku-emaile baten aholkularitza izango du, bera izango da burua, eta kide hauek izango dira:

## Artículo 82. El Consejo Consultivo de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena

- La persona titular de la Presidencia de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena estará asesorada por un Consejo Consultivo, que presidirá, compuesto por los siguientes miembros:



- |  |  |
|--|--|
| a) Eusko Legebiltzarrak izendatutako bere ordezkari bat.   | a) Una persona representante del Parlamento Vasco, designada por este.   |
| b) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak izendatutako bere kide bat.   | b) Una persona Vocal del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, designada por este.   |
| c) Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren arduraduna.   | c) La persona responsable del Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco.  |
| d) Lurralde historikoetako foru-aldundi bakoitzaren ordezkari bat.   | d) Una persona representante de cada una de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos.  |
| e) Euskadiko toki-entitateen ordezkari bat, EUDELe izendatua.  | e) Una persona representante de las entidades locales de Euskadi, designada por EUDEL.   |
| f) Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren zuzendaria.  | f) La persona titular de la Dirección de la Autoridad Vasca de Protección de Datos.  |
| g) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen ordezkari bat, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak izendatua.  | g) Una persona representante de los consumidores y usuarios designada por Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.   |
| h) Zigor-zuzenbidearen eta informazioaren zuzenbidearen eremu akademikoetako bi aditu, Euskal Herriko Unibertsitateak izendatuak.  | h) Dos personas expertas en los ámbitos académicos del Derecho Penal y del Derecho de la información designadas por la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.   |
| i) Jarduneko legelari bat, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren jardun-gaietan esperientzia egiaztatua duena eta Legelarien Euskal Kontseiluak izendatua.   | i) Una persona letrada en ejercicio con experiencia acreditada en las materias de actuación de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena, designada por el Consejo Vasco de la Abogacía.   |
| 2. Kontseilu Aholku-emailearen osieran, gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua izaten saiatuko da. Horretarako, bi sexuek gutxienez % 40ko ordezkari-tza dutenean joko da ordezkari-tza orekatutzat.                                | 2. Se procurará que la composición del Consejo Consultivo tenga una representación equilibrada entre mujeres y hombres, con capacitación, competencia y preparación adecuada. A estos efectos, se considera representación equilibrada cuando ambos sexos estén representados al menos al 40 %.                  |
| 3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidenteak erabakiko du Kontseilu Aholku-emailea noiz bilduko den; baina sei hilean behin bildu beharko da, gutxienez.   | 3. El Consejo Consultivo se reunirá cuando así lo disponga la Presidencia de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena y, en todo caso, una vez al semestre.   |
| 4. Kontseilu Aholku-emaileak hartzen dituen erabakiak ez dira inola ere lotesleak izango, txostenen forma izango dute, eta Presidentetzak aurkezten dizkion aztergaiei buruzkoak izan daitezke; halaber, dagokion jardun-eremuko gaiei buruzko proposamenak ere egin ahal izango ditu. | 4. Las decisiones tomadas por el Consejo Consultivo no tendrán en ningún caso carácter vinculante, adoptarán la forma de informes y podrán versar sobre las cuestiones que someta a su consideración la Presidencia, pudiendo asimismo formular propuestas sobre las materias propias de su ámbito de actuación. |
| 5. Lege honetan xedatu ez den guztiari dagokionez, Kontseilu Aholku-emailearen araubidea, antolamendua eta funtzionamendua Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren estatutuak arautuko ditu.   | 5. En lo no previsto en esta Ley, el régimen, organización y funcionamiento del Consejo Consultivo se regulará por el Estatuto de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena.   |



**83. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren jardunaren urteko memoria**

1. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentek jardunaren urteko memoria egingo du, eta han, betebeharra duten entitateen betetze-maila identifikatu ahal izateko moduan, erreferentzia hauek behintzat adieraziko ditu: zer komunikazio egin diren kanpoko informazio-kanalaren bidez, eta zer babes-neurri hartu diren; gardentasunaren arloan izapidetutako aukerako erreklamazioen, bitartekaritza-jarduketan eta kontsulten zerrenda, eta Gardena zabaltzeko egoki irizitako gomendioak eta errekerimenduak.
2. Urtero, urteko lehen hiruhilekoan, Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari bidaliko zaie memoria, eta argitaratu ere egingo da Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren gardentasun-atarian.

**84. artikulua. Kontrol parlamentarioa**

Urtean behin, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidentea Eusko Legebiltzarreko batzorde eskudunaren aurrean agertuko da.

**85. artikulua. Gardentasuna**

1. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak webgune propio bat izango du, eta lege honetan ezarri diren publizitate aktiboaren betebeharretatik eratorritako informazioa argitaratuko du. Horretaz gain, gardentasun-atari horretan bere ebazpenak, txostenak, interpretazio-irizpideak, erabakiak eta jardunaren urteko memoria argitaratuko ditu, arauetan ezarritako mugen eraginpeko informazioa disoziatu ondoren. Betebeharra duten subjektuek bete dituzten, bete ez dituzten eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu dituzten ebazpenei buruzko informazioa ere argitaratuko da, bai eta herritarrei interesa dakiekeen beste edozein informazio ere.
2. Kanpoko informazio-kanal gisa dituen eginkizunetan, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak argitara eman beharko du bere egoitza elektronikoaren atal bereizi, erraz identifikatzeko moduko eta irisgarri batean otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 25. artikuluan xedatutako informazioa behintzat (Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legea).

**Artículo 83. Memoria Anual de Actividad de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena**

1. La Presidencia de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena elaborará la Memoria Anual de Actividad, que comprenderá como mínimo la referencia de las comunicaciones cursadas a través del canal externo de información y de las medidas de protección adoptadas, la relación de las reclamaciones potestativas, actuaciones mediadoras y consultas tramitadas en materia de transparencia, así como las recomendaciones y requerimientos que Gardena haya estimado oportuno transmitir, de forma que se identifique el nivel de cumplimiento por parte de las entidades obligadas.
2. La Memoria se remitirá, en el primer trimestre de cada año, al Parlamento Vasco y al Gobierno Vasco, siendo así mismo objeto de publicación en el portal de transparencia de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena.

**Artículo 84. Control parlamentario**

La persona titular de la Presidencia de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena comparecerá anualmente ante la Comisión competente del Parlamento Vasco.

**Artículo 85. Transparencia**

1. La Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena tendrá un portal web propio y publicará la información derivada de las obligaciones de publicidad activa establecidas en la presente ley. Además, en este portal de transparencia se publicarán sus resoluciones, informes, criterios interpretativos, acuerdos y memoria anual de actividad, una vez dissociada la información que pueda estar afectada por los límites establecidos en la normativa correspondiente. También se publicará la información sobre las resoluciones cumplidas, incumplidas e impugnadas ante la jurisdicción contencioso-administrativa por parte de los sujetos obligados, además de cualquier otra información que pueda resultar de interés para la ciudadanía.
2. La Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena, en sus funciones de canal externo de información, deberá publicar, en una sección separada, fácilmente identificable y accesible de su sede electrónica, como mínimo, la información prevista en el artículo 25 de la Ley 2/2023, de 20 de febrero, reguladora de la protección de las personas que informen sobre infracciones normativas y de lucha contra la corrupción.

**Lehenengo xedapen gehigarria. Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen jarduna ordezkatzea**

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak, bere estatutuan ezarritakoaren arabera jarduten hasten denean, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea ordezkatzeko du informazio publikorako irispidearen arloko aurkaratze-araubideari lotutako eginkizunetan, irailaren 13ko 128/2016 Dekretuan adierazitako moduan.

**Bigarren xedapen gehigarria. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziako langileen araubide juridikoa**

1. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako presidente izendatutako pertsona, funtzionario publikoa bada, zerbitzu berezietako administrazio-egoeran deklaratu da aipatutako administrazio independenteko burua den aldirako, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 1/2022 Legearen 138. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.
2. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziaren egituran erantzukizun bereziko lanpostuak betetzeko izendatutako pertsonak, haren estatutuan horrela kalifikatuak, funtzionario publiko badira, zerbitzu berezietako administrazio-egoeran deklaratu dira destino horretan dauden aldirako, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 1/2022 Legearen 138. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

**Hirugarren xedapen gehigarria. Arau-hausteei eta informatzaileen babesari buruzko informaziorako barne-sistemaren arduradunaren araubide juridikoa**

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duen ekainaren 13ko 89/2023 Dekretuaren arabera arau-hausteei eta informatzaileen babesari buruzko informaziorako barne-sistemaren arduradun izendatutako pertsona, funtzionario publikoa bada, zerbitzu berezietako administrazio-egoeran deklaratu da, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 1/2022 Legearen 138. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

**Disposición adicional primera. Sustitución de la actividad de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública**

Una vez inicie su actividad conforme a lo que establezca su Estatuto, la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena sustituirá a la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública en sus funciones relacionadas con el régimen de impugnaciones en materia del ejercicio de acceso a la información pública, en los términos contemplados en el Decreto 128/2016, de 13 de septiembre.

**Disposición adicional segunda. Régimen jurídico del personal de la Agencia Vasca de Transparencia-Gardena**

1. La persona nombrada Presidente o Presidenta de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena, en el caso de que tuviera la condición de funcionaria pública, será declarada en situación administrativa de servicios especiales durante el período de tiempo en el que permanezca al frente de la señalada administración independiente, conforme a lo dispuesto por el artículo 138 de la Ley 1/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.
2. Las personas designadas para desempeñar los puestos de especial responsabilidad en la estructura de la Agencia Vasca de Transparencia-Gardena así calificados por su Estatuto que ostenten la condición de funcionaria pública serán declaradas en situación administrativa de servicios especiales durante el tiempo en que permanezcan en dicho destino, conforme a lo dispuesto por el artículo 138 de la Ley 1/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

**Disposición adicional tercera. Régimen jurídico de la persona responsable del Sistema Interno de Información de infracciones normativas y de protección de las personas informantes**

La persona nombrada Responsable del Sistema Interno de Información de infracciones normativas y de protección de las personas informantes conforme a lo dispuesto por el Decreto 89/2023, de 13 de junio, de creación y regulación del Sistema interno de información de infracciones normativas y de protección de las personas informantes en el marco del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el caso de que ostente la condición de funcionaria pública, será declarada en situación administrativa de servicios especiales, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 138 de la Ley 1/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.



**Laugarren xedapen gehigarria. Gardentasunaren arloko sailarteko koordinaziorako kide anitzeko organoaren sorrera**

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak jardunean hasitakoan, eta gardentasunaren arloko sailarteko koordinaziorako den eta lege honen 43. artikuluan adierazita dagoen kide anitzeko organoa sortu aurretik, gobernuak berak egokituko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan dauden kide anitzeko gainerako organoak, aipatutako xedapeneko atazak funtzionalki bateratzeko.

**Lehenengo xedapen iragankorra. Ebazteke dauden prozedurak**

Publizitate aktiboaren eta informazio publikoa irispidean izateko eskubidearen arloko prozeduraren bat, lege hau indarrean jarri aurretik hasi bazen, hasteko unean indarrean zegoen araudiaren arabera izapidetuko da, amaitu arte.

**Bigarren xedapen iragankorra. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziaren estatutua onartzea**

Gobernuak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziaren estatutua onartuko du lege hau indarrean jarri eta bi hilabeteko epean.

**Azken xedapenetako lehenengoa. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren jardunaren hasiera**

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren estatutua onartzen duen dekretuak adieraziko du noiz hasiko den jardunean.

**Azken xedapenetako bigarrena. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legea aldatzea**

Zazpigarren xedapen gehigarri bat erantsen zaio Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legeari, honela idatzita:

"Zazpigarren xedapen gehigarria. Lehiaren arloko arau-hauste posibleak komunikatzeko kanpoko kanalaren sorrera

Lehiaren Euskal Agintaritzaren kanpoko komunikazio-kanala sortzen da, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2017 Legearen hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik".

**Disposición adicional cuarta. Creación del órgano colegiado de coordinación interdepartamental en materia de transparencia**

Una vez se inicie la actividad de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena, y con anterioridad a la creación del órgano colegiado de coordinación interdepartamental en materia de transparencia contemplado en el artículo 43 de la presente Ley, el Gobierno llevará a cabo la adecuación de los órganos colegiados existentes en el seno del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi a los efectos de unificar funcionalmente el desempeño de las tareas previstas en la citada disposición.

**Disposición transitoria primera. Procedimientos pendientes de resolución**

Los procedimientos en materia de publicidad activa y del ejercicio del derecho de acceso a la información pública iniciados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Ley se tramitarán hasta su conclusión de acuerdo con la normativa vigente al momento de su inicio.

**Disposición transitoria segunda. Aprobación del Estatuto de la Agencia Vasca de Transparencia-Gardena**

El Gobierno procederá a la aprobación del Estatuto de la Agencia Vasca de Transparencia-Gardena en el plazo de dos meses a partir de la entrada en vigor de la presente Ley.

**Disposición final primera. Inicio de las actividades de la Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena**

La Autoridad Vasca de Transparencia-Gardena iniciará sus actividades en la fecha que indique el Decreto que apruebe su Estatuto.

**Disposición final segunda. Modificación de la Ley 1/2012, de 2 de febrero, de la Autoridad Vasca de la Competencia/Lehiaren Euskal Agintaritzak**

Se añade una nueva disposición adicional séptima a la Ley 1/2012, de 2 de febrero, de la Autoridad Vasca de la Competencia/Lehiaren Euskal Agintaritzak, con la siguiente redacción:

"Disposición adicional séptima. Creación del canal externo de comunicación de posibles infracciones en materia de competencia

De conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional duodécima de la Ley 15/2017, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia, se crea el canal externo de comunicaciones de la Autoridad Vasca de la Competencia/Lehiaren Euskal Agintaritzak".

**Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean jartzea**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

\*\*\*

**Disposición final tercera. Entrada en vigor**

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

\*\*\*



# KONTROL ETA SUSTAPEN POLITIKOA FUNCIÓN DE CONTROL E IMPULSO POLÍTICOS

## LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENAK PROPOSICIONES NO DE LEY

*30/2025 Legez besteko Proposamena, maizterraren defendatzailearen bulego bat sortzeari buruz* (Osoko Bilkuraren erabakia)  
(13/11.02.01.00130)

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen onestea Mistoa-Sumar talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena.

Lehendakaritza honek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 105.1 artikuluan adierazitakoari jarraituz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabaki hori.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, 30/2025 Legez besteko Proposamena onetsi du, maizterraren defendatzailearen bulego bat sortzeari buruz, honako testu honen arabera:

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Lanean jarrai dezala Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren lurralde-ordezkarizetatik errentamenduen arloko eskubide eta betebeharrak buruzko doako aholkularitzan, bai eta maizterren eta errentatzaileen arteko gatazketan bitartekaritza-lanak egiten ere, gehiegikeriak saihesteko eta maizterrek zein jabeek araudian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko.
2. Bultza ditzala tokiko eta autonomia-erkidegoko administrazioen arteko koordinazio-tresnak, maizterrei ematen zaien laguntza hobetzea ahalbidetuko duten ekintzak garatzeko, bai eta bizitegi-merkatu tentsionatuaren deklarazioari buruzko araudi berriaren eraginpeko kolektiboak jakinarazteko tresnak ere, hala nola maizterrei eta jabeek zuzendutako informazio-kanpainak, legea ez ezagutzeagatik gatazkak saihesteko.

*Proposición no de Ley 30/2025, relativa a la creación de una oficina del defensor del inquilino*  
(Acuerdo del Pleno)  
(13/11.02.01.00130)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 3 de abril de 2025, adoptó el acuerdo de aprobar la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Sumar.

Esta Presidencia, al amparo de lo dispuesto en el artículo 105.1 del vigente Reglamento de la Cámara, ordena la publicación del mencionado acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 3 de abril de 2025, ha aprobado la Proposición no de Ley 30/2025, relativa a la creación de una oficina del defensor del inquilino, con arreglo al siguiente texto:

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

1. Seguir trabajando desde las delegaciones territoriales del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana en el asesoramiento gratuito sobre derechos y deberes en materia de arrendamientos, así como en la mediación de conflictos entre personas inquilinas y arrendadoras, para evitar abusos y garantizar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en la normativa, tanto por parte de las personas inquilinas como de las propietarias.
2. Impulsar herramientas de coordinación entre las administraciones locales y autonómicas para desarrollar acciones que permitan mejorar el apoyo a las personas inquilinas, así como instrumentos de comunicación a los diferentes colectivos afectados por la nueva normativa relativa a la declaración de mercado residencial tensionado, como pueden ser campañas informativas para personas inquilinas y propietarias, a fin de evitar conflictos por desconocimiento legal.



3. Bultzatzea berariazko zehapen-araubide baten garapena, eremu tentsionatuetan gerta daitezkeen ez-betetzeei aurre egiteko, hala nola alokairu-prezioaren igotzearen mugak".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2025eko apirilaren 3an.

**Mahaiko lehen idazkaria, Jon Aiertza Zallo. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

*31/2025 Legez besteko Proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuak ematen dizkion ahalmenen bidez Jaurlaritzak kontsumitzaileak banketxeen abusuzko jokoaren aurrean babesteari buruz* (Osoko Bilkuraren erabakia)  
(13/11.02.01.00127)

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen onestea EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena.

Lehendakaritza honek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 105.1 artikuluan adierazitakoari jarraituz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabaki hori.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, 31/2025 Legez besteko Proposamena onetsi du, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuak ematen dizkion ahalmenen bidez Jaurlaritzak kontsumitzaileak banketxeen abusuzko jokoaren aurrean babesteari buruz, honako testu honen arabera:

- "1. Eusko Legebiltzarrak banketxeei eskatzen die bete ditzatela iraganean formalizatutako hipoteka-maileguen klausula jakin batzuk abusuzkotzat jo dituzten erabaki judizialak eta, horren ondorioz, itzul diezazkietela bezeroei klausula horien ondoriozko gastuak. Era berean, gai honengatik jasotako erreklamazioei garaiz eta modu egokian erantzuteko legezko betebeharra betetzeko eskatzen die.
2. Eusko Legebiltzarrak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari eskatzen dio sektore horretako banku-zerbitzuei eta merkataritza-harremanei

3. Impulsar el desarrollo de un régimen sancionador específico que aborde posibles incumplimientos de las zonas tensionadas, como los límites al incremento del precio del alquiler".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de 2025.

**El secretario primero de la Mesa, Jon Aiertza Zallo. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

*Proposición no de Ley 31/2025, sobre la protección de las personas consumidoras frente a conductas abusivas de las entidades bancarias por parte del Gobierno a través de las facultades que le otorga el Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarías* (Acuerdo del Pleno)  
(13/11.02.01.00127)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 3 de abril de 2025, adoptó el acuerdo de aprobar la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu.

Esta Presidencia, al amparo de lo dispuesto en el artículo 105.1 del vigente Reglamento de la Cámara, ordena la publicación del mencionado acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 3 de abril de 2025, ha aprobado la Proposición no de Ley 31/2025, sobre la protección de las personas consumidoras frente a conductas abusivas de las entidades bancarias por parte del Gobierno a través de las facultades que le otorga el Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarías, con arreglo al siguiente texto:

- "1. El Parlamento Vasco insta a las entidades bancarias a dar cumplimiento a los diversos pronunciamientos judiciales que han considerado abusivas determinadas cláusulas de préstamos hipotecarios formalizados en el pasado y, en consecuencia, procedan al resarcimiento de los gastos derivados de las mismas. Les insta, asimismo, a cumplir su obligación legal de responder en tiempo y forma a las reclamaciones recibidas por esta cuestión.
2. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Turismo, Comercio y Consumo a que realice una campaña de inspección, vigilancia y



buruzko ikuskapen-, zaintza- eta kontrol-kanpaina espezifiko bat egin dezala, eta dagozkion zehapen-espeditenteak izapidetzen jarrai dezala ez-betetzeak dauden kasuetan.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Kontsumobideren bidez, erakunde edo instantzia egokiekin lankidetzan jardun dezala hipoteka-zerbitzuen arloko arau-hausteak edo abusuzko jardunbideak saihesteko, kontsumitzaileen eskubideen babes eraginkor eta jarraitua bermatze aldera.
4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Kontsumobideren bidez, bere eskumenen esparruan, hipoteka-zerbitzuekin lotutako erreklamazioei erantzuteko prozedura eraginkorrenak bilatu ditzala, horretarako besteak beste hurbiltasuna, irisgarritasuna eta kontsumo-bitartekaritza sustatuta, kontsumitzaileen babesa indartze aldera".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2025eko apirilaren 3an.

**Mahaiko lehen idazkaria, Jon Aiartza Zallo. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

***Osakidetzaren lan-eskaintza publikoetan euskarari ematen zaion baremazioari buruz***  
(Osoko Bilkuraren erabakia)  
(13/11.02.01.00133)

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen ezestea Mistoa-Vox talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena.

Lehendakaritza honek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 105.1 artikuluan adierazitakoari jarraituz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabaki hori.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, aztergai izan du legez besteko proposamen bat, Osakidetzaren lan-eskaintza publikoetan euskarari ematen zaion baremazioari buruz, eta, eztabaida egin ondoren, ezetsi egin du.

control específica, relativa a los servicios bancarios y las relaciones comerciales de este sector, y continúe incoando los correspondientes expedientes sancionadores en aquellos casos en los que exista incumplimiento.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, a través de Kontsumobide, colabore con los organismos o instancias pertinentes para evitar infracciones o prácticas abusivas en materia de servicios hipotecarios, con el fin de garantizar una protección eficaz y continuada de los derechos de las personas consumidoras.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, a través de Kontsumobide, busque, en el ámbito de sus competencias, los procedimientos más eficaces para dar respuesta a las reclamaciones relacionadas con los servicios hipotecarios, con el fin de reforzar la protección de las personas consumidoras, fomentando para ello la proximidad, la accesibilidad y la intermediación de consumo, entre otros".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de 2025.

**El secretario primero de la Mesa, Jon Aiartza Zallo. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

***Sobre la baremación del euskera en las ofertas públicas de empleo de Osakidetza*** (Acuerdo del Pleno)  
(13/11.02.01.00133)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 3 de abril de 2025, adoptó el acuerdo de rechazar la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Vox.

Esta Presidencia, al amparo de lo dispuesto en el artículo 105.1 del vigente Reglamento de la Cámara, ordena la publicación del mencionado acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 3 de abril de 2025, tras el debate de la proposición no de ley sobre la baremación del euskera en las ofertas públicas de empleo de Osakidetza, ha rechazado la citada proposición.



Eta horrela jasota geratzeko, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2025eko apirilaren 3an.

**Mahaiko lehen idazkaria, Jon Aiertza Zallo. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

***PADI programa indartzeari buruz*** (Izapidea aldatzea)  
(13/11.02.01.00154)

Mahaia, 2025eko apirilaren 8ko bileran, erabaki du EH Bildu talde parlamentarioaren legez besteko proposamena osoko bilkuran eztabaida dadila, eta agindu du Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabakia.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

***EHUn ikasten duten Trebiñuko ikasleei dirulaguntzetarako eskubidea bermatzeari buruz*** (Zuzenketak)  
(13/11.02.01.00138)

Mahaia, 2025eko apirilaren 8ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bildu talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUSKAL TALDE PARLAMENTARIO POPULARRA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lan egin dezala, Arabako Foru Aldundiarekin eta Burgosko Probintziako Diputazioarekin batera, Arabako Foru Aldundia eta Burgosko Probintziako Diputazioa Trebiñuko enklabeari dagokionez lankidetzan aritzeko esparru-akordioa berritzeko, eta neurriak ezar ditzala Trebiñuko ikasleek aukera izan dezaten Eusko Jaurlaritzak unibertsitateko ikasketak eta bestelako goimailako ikasketak egiteko beken eta laguntzen sistemaz baliatzeko".

Y para que así conste, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de 2025.

**El secretario primero de la Mesa, Jon Aiertza Zallo. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

***Sobre el refuerzo del PADI*** (Modificación de trámite)  
(13/11.02.01.00154)

La Mesa, en su reunión del día 8 de abril de 2025, acuerda que la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu sea debatida en pleno, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

***Sobre la garantía del derecho a subvenciones al alumnado de Treviño que estudia en la UPV*** (Enmiendas)  
(13/11.02.01.00138)

La Mesa, en su reunión del día 8 de abril de 2025, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión a la Comisión de Ciencia, Universidades e Innovación y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a trabajar junto con la Diputación Foral de Álava y la Diputación Provincial de Burgos en la renovación del acuerdo-marco de colaboración entre la Diputación Foral de Álava y la Diputación Provincial de Burgos en relación con el enclave de Treviño, incorporando medidas para que el alumnado de Treviño se pueda acoger al sistema de becas y ayudas del Gobierno Vasco al acceso a la enseñanza universitaria y otros estudios superiores".



**EUSKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK  
TALDE PARLAMENTARIOAK****OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, dagokion ikasturtean, unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketak batzuk egiteko bekak jasotzeko eskubidea izaten jarrai dezatela dagokion datan Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta dauden pertsonak, eta, salbuespen gisa, ez dadila betekizun hori exijitu sostengatzaile ekonomiko nagusietako batek gutxienez Euskadin tributatzen badu".

\*\*\*

*Lanaldi partzialeko kontratuak lanaldi osoko kontratu finko bihurtzeko dirulaguntza-lerro berri bat indarrean jartzeari buruz* (Zuzenketak)  
(13/11.02.01.00139)

Mahaiak, 2025eko apirilaren 8ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bildu talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUSKAL TALDE PARLAMENTARIO POPULARRA****OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin dezala enplegua sortzeko dirulaguntzen programen kanpo-auditoretza bat, programen erabilgarritasuna ebaluatzeko eta haien eraginkortasuna hobetzeko".

**EUSKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK  
TALDE PARLAMENTARIOAK****OSOKO ZUZENKETA**

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Soldata Arrakala Murrizteko Plan Eragile berriaren esparruan, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak proposatu diezaiola Elkarrizketa Sozialerako Mahaiari dirulaguntzen lerro berri bat sortzea, lanaldi partzialeko kontratuak lanaldi osoko kontratu finko bihurtzeko, horien partzialtasuna nahi ez den kasuetan.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala iruzurrezko kontratazioari buruz egiten ari den talka-planekin, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren

**GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS  
VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS****ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que sigan teniendo derecho a las becas para realizar estudios universitarios y otros estudios superiores, en el correspondiente año académico, aquellas personas que estén empadronadas en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la fecha que corresponda, y a que, excepcionalmente, no se exija dicho requisito cuando al menos una de las personas sustentadoras económicas principales tribute en Euskadi".

\*\*\*

*Sobre la puesta en vigor de una nueva línea subvencional para la conversión de contratos a tiempo parcial en contratos fijos a tiempo completo* (Enmiendas)  
(13/11.02.01.00139)

La Mesa, en su reunión del día 8 de abril de 2025, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO****ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a realizar una auditoria externa de los diferentes programas subvencionales relativos a la creación de empleo con el objetivo de evaluar la utilidad de los mismos y mejorar su eficacia".

**GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS  
VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS****ENMIENDA DE TOTALIDAD**

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el marco del nuevo Plan Operativo para Reducir la Brecha Salarial, el Departamento de Economía, Trabajo y Empleo proponga a la Mesa de Diálogo Social la creación de una nueva línea subvencional para convertir los contratos a tiempo parcial en fijos a tiempo completo en aquellos casos donde la parcialidad de los mismos no sea deseada.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe con los planes de choque que sobre contratación fraudulenta está llevando a cabo junto con el Organismo Autónomo de la



Erakunde Autonomoarekin batera, plan horietan sartuz lanaldi partzialeko kontratazioaren % 50etik gorako ehunekoa duten enpresen zaintza eta kontrola.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala lanaldi osoko kontratazioa sustatzen kontratazioa bultzatzeko programa guztietan, bai eta enplegurako pizgarrien programan ere, dagokion dekretu arautzailea une honetan izapidetzen ari delarik".

\*\*\*

***Epailen euskalduntzea bermatzeari buruz***  
(Zuzenketak)  
(13/11.02.01.00140)

Mahaiak, 2025eko apirilaren 8ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bildu talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

#### **EUSKAL TALDE PARLAMENTARIO POPULARRA**

##### **OSOKO ZUZENKETA**

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berma dezala Justizia Administrazioan hizkuntza-eskakizunaren politika orekatu bat, errealitate soziolinguistikoarekin bat datorrena, dauden baliabideak indartuz eta haien eraginkortasuna ebaluatuz, Justizia Administrazioa sartzeko merezimendu-, gaitasun- eta berdintasun-printzipioa arriskuan jar dezaketen neurririk inposatu gabe.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin, Justizia Ministerioarekin eta inplikaturako agenteekin lankidetzan, Justizia Administrazioako langile judizialen eta fiskalen eta legelarien borondatezko euskarazko trebakuntza hobetzeko, egungo programen efizientzia ebaluatuz eta jada esleitutako baliabide publikoen erabilera optimizatuz".

#### **MISTOA-SUMAR TALDE PARLAMENTARIOA**

##### **OSOKO ZUZENKETA**

- "1. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio berrikeria dezala epailen euskarazko trebakuntzarako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin egindako hitzarmena, baliabideak eta

Inspección de Trabajo y Seguridad Social, incluyendo en los mismos la vigilancia y el control de aquellas empresas que tengan un porcentaje superior al 50 % de su contratación a tiempo parcial.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe promoviendo la contratación a tiempo completo en todos sus programas de fomento de la contratación, así como en el programa de estímulos al empleo, cuyo decreto regulador se encuentra en estos momentos en tramitación".

\*\*\*

***Sobre la garantía de la euskaldunización en la judicatura*** (Enmiendas)  
(13/11.02.01.00140)

La Mesa, en su reunión del día 8 de abril de 2025, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

#### **GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO**

##### **ENMIENDA DE TOTALIDAD**

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a garantizar una política de exigencia lingüística equilibrada y acorde a la realidad sociolingüística en el ámbito de la Administración de Justicia, reforzando los recursos existentes y evaluando su efectividad, sin imponer medidas que puedan comprometer el principio de mérito, capacidad e igualdad en el acceso a la Administración de Justicia.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir colaborando con el Consejo General del Poder Judicial, el Ministerio de Justicia y los agentes implicados para mejorar la capacitación voluntaria en euskera del personal judicial, fiscal y de los letrados de la Administración de Justicia, evaluando la eficiencia de los programas actuales y optimizando el uso de los recursos públicos ya asignados".

#### **GRUPO PARLAMENTARIO MIXTO-SUMAR**

##### **ENMIENDA DE TOTALIDAD**

- "1. El Parlamento insta al Gobierno a revisar el convenio suscrito con el Consejo General del Poder Judicial para la capacitación en euskera de jueces y juezas, aumentando los recursos y



- liberazioak handituz epaileek euskara ikas dezaten.
#### EUSKAL TALDE PARLAMENTARIO POPULARRA

##### OSOKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio ezen, konstituzio-agindua betez eta harreraren eta zerbitzuen arloan autonomia-erkidegoei, foru-aldundiei eta toki-erakundeei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, planifika eta garatu dezala benetako migrazio-politika bat, Europar Batasunak definitutako politikekin koordinatuta, erregularra, ordenatua eta lan-merkatuaren behar edo egoerari lotuta egongo dena, halatan non, migratzailearen gizartratzea eta laneratzea ez ezik, diskriminaziorik ezaren printzipioaren eraginkortasuna ere bermatuko den, eta, ondorioz, baita ere Espainian legez bizi eta lan egiten duten atzerritar guztientzat espainiarrek dituzten lan- eta gizarte-arloko eskubide eta betebeharrak berberak aitortza, legetan aurreikusitako moduan.
2. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio borroka dezala inmigrazio irregularra, jazar dezala gizakien salerosketa eta pertsonen legez kontrako trafikoa migrazio-politikaren printzipio gisa, eta susta dezala jatorrian kontratatzea.
3. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio abian jar ditzala inmigrazio irregularra prebenitzeko neurriak eta gure herrira modu irregularrean iristen diren pertsonentzat beren jatorrizko herrialdeetarako itzulerak, Europako Migrazioari eta Asiloari buruzko Itun berriak planteatzen duen bezala".

#### EUSKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK

##### OSOKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarrak bere kezka adierazten du munduan zehar pertsona guztiak giza eskubideen babesaren aurka hedatzen diren diskurtso erreazionarioen aurrean.

situación de vulnerabilidad, garantizando el acceso a servicios de asesoramiento jurídico, acompañamiento social y protección ante situaciones de explotación o discriminación.

5. El Parlamento Vasco promoverá la creación de un consejo vasco para la lucha contra el racismo y la xenofobia en Euskadi, con participación de instituciones, agentes sociales y la sociedad civil, para el seguimiento y denuncia de discursos y prácticas discriminatorias, así como para el diseño de estrategias de sensibilización, prevención y procesos restaurativos".

#### GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO

##### ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a que, en cumplimiento del mandato constitucional y sin perjuicio de las competencias que correspondan a las comunidades autónomas, diputaciones forales y entidades locales en materia de acogida y servicios, planifique y desarrolle una verdadera política migratoria, en coordinación con las políticas definidas por la Unión Europea, regular, ordenada y vinculada a las necesidades o situación del mercado laboral, de forma que se garantice no solo la integración social y laboral del migrante, sino también la efectividad del principio de no discriminación y, consecuentemente, el reconocimiento de iguales derechos y obligaciones laborales y sociales que las de los españoles para todos aquellos extranjeros que vivan y trabajen legalmente en España, en los términos previstos en las leyes.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a luchar contra la inmigración irregular y a perseguir la trata de seres humanos y el tráfico ilícito de personas como principios de política migratoria, y a fomentar la contratación en origen.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a poner en marcha medidas de prevención de la inmigración irregular y los retornos a sus países de origen de aquellas personas que llegan a nuestro país de forma irregular, tal y como plantea el nuevo Pacto de Migración y Asilo europeo".

#### GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS

##### ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. El Parlamento Vasco muestra su preocupación ante los discursos reaccionarios que a nivel mundial se extienden en contra de la protección de los derechos humanos de todas las personas.



2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala lantzen, Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren esparruan, migrazio seguru, ordenatu eta erregularra bermatzeari lotutako ahaleginak koordinatzeko lankidetz-espazioak.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gara dezala Migrazioarako Euskal Itun Soziala zabaltzeko eta komunikatzeko estrategia bat, hura indartze eta aberaste aldera".

\*\*\*

**12/2025 Mozioa, Migrazioarako Euskal Itun Sozialari buruz** (Osoko Bilkuraren erabakia)  
(13/11.03.00.00032)

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen mozioa onestea, Diana Urrea Herrera EH Bildu taldeko legebiltzarkideak egin zuen interpelazioaren ondorioz aurkeztutakoa.

Lehendakaritza honek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 105.1 artikuluan adierazitakoari jarraituz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabaki hori.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, 12/2025 Mozioa onetsi du, Migrazioarako Euskal Itun Sozialari buruz, honako testu honen arabera:

- "1. Eusko Legebiltzarrak bere kezka adierazten du tokian-tokian eta nazioartean erabiltzen den migratzaileenganako gorroto-, kriminalizazio-edo seinalamendu-diskurtso ororengatik, batez ere haurrengana zuzentzen direnengatik, eta haiek irmoki arbuiatzen ditu; halaber, eragile politiko eta instituzionalen erantzukizuna eskatzen du, giza eskubideetan eta bizikidetzan oinarritutako diskurtso bat eraikitzeko.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala lankidetz-espazioak lantzen, Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren esparruan, giza eskubideen defentsaren, gizarte-kohesioaren eta integrazioaren printzipioak oinarri dituen migrazio ordenatu, seguru eta erregularra bermatzeari lotutako ahaleginak koordinatzeko.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe trabajando, en el marco del Pacto Social Vasco para la Migración, los espacios de cooperación para una coordinación de esfuerzos vinculados a garantizar una migración segura, ordenada y regular.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a desarrollar una estrategia de difusión y comunicación del Pacto Social Vasco para la Migración en aras de fortalecerlo y enriquecerlo".

\*\*\*

**Moción 12/2025, sobre el Pacto Social Vasco para la Migración** (Acuerdo del Pleno)  
(13/11.03.00.00032)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 3 de abril de 2025, adoptó el acuerdo de aprobar la moción consecuencia de interpelación formulada por D.ª Diana Urrea Herrera, parlamentaria del grupo EH Bildu.

Esta Presidencia, al amparo de lo dispuesto en el artículo 105.1 del vigente Reglamento de la Cámara, ordena la publicación del mencionado acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 3 de abril de 2025, ha aprobado la Moción 12/2025, sobre el Pacto Social Vasco para la Migración, con arreglo al siguiente texto:

- "1. El Parlamento Vasco muestra su preocupación y rechaza de modo contundente todos los discursos de odio, criminalización o señalamiento hacia las personas migrantes, en especial hacia las niñas y niños, que se están llevando a cabo a nivel local e internacional, y llama a la responsabilidad de los actores políticos e institucionales en la construcción de un discurso basado en los derechos humanos y la convivencia.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe trabajando, en el marco del Pacto Social Vasco para la Migración, los espacios de cooperación para una coordinación de esfuerzos vinculados a garantizar la migración ordenada, segura y regular basada en los principios de la defensa de los derechos humanos, la cohesión social y la integración.



3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio garatu dezala Migrazioarako Euskal Itun Soziala zabaltzeko eta komunikatzeko estrategia bat, itun hori indartzeko eta aberasteko".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2025eko apirilaren 3an.

**Mahaiko lehen idazkaria, Jon Aiertza Zallo. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

**Hizkuntza-ereduei buruz** (Zuzenketak)  
(13/11.03.00.00033)

Mahaia, 2025eko apirilaren 8ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea ondoko zuzenketak, Muriel Larrea Laso Euskal Talde Popularrako legebiltzarkideak egin zuen interpelazioaren ondoriozko mozioari aurkeztutakoak, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

**MISTOA-VOX TALDE PARLAMENTARIOA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Errespetatu dezala familia orok bere seme-alabak zein hizkuntzatan hezi nahi dituen aukeratzeko duen eskubidea.
2. Lehenetsuna eman diezaiela Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek gaikuntzari eta errendimendu akademikoari, hizkuntza jakin baten ezagutzaren gainetik.
3. Berma dezala A ereduko eskaintza nahikoa dagoela euskal hezkuntza-sistema publikoan, Gipuzkoako probintzian gaztelaniazko hezkuntza-eskaintza berreskuratuz eta nagusiki erdaldunak diren Bizkaiko eta Arabako eremuetan eredu hori indartzuz.
4. Entzun diezaiela ikastetxeei, haien baitira beren ingurune soziolinguistikoa hobekien ezagutzen dutenak. Halaber, eskatzen dio errespetatu ditzala ikastetxeen erabakiak eta uko egin diezaiola azken urteotan joera izan den euskara hutsezko hezkuntza-eredu bakarra ezartzeko edozein neurri hartzeari".

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a desarrollar una estrategia de difusión y comunicación del Pacto Social Vasco para la Migración con el fin de fortalecerlo y enriquecerlo".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de 2025.

**El secretario primero de la Mesa, Jon Aiertza Zallo. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

**Relativa a los modelos lingüísticos** (Enmiendas)  
(13/11.03.00.00033)

La Mesa, en su reunión del día 8 de abril de 2025, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la moción consecuencia de interpelación formulada por D.º Muriel Larrea Laso, parlamentaria del grupo Popular Vasco, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPO PARLAMENTARIO MIXTO-VOX**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

1. A respetar el derecho de toda familia a elegir la lengua en la que quiere que sean educados sus hijos.
2. A primar la capacitación y el rendimiento académico del alumnado de la Comunidad Autónoma Vasca por encima del conocimiento de un determinado idioma.
3. A garantizar una oferta suficiente del modelo A en el sistema educativo público vasco, recuperando la oferta de la educación en castellano en la provincia de Guipúzcoa y reforzándola en zonas mayoritariamente castellanohablantes de Vizcaya y Álava.
4. A escuchar a los centros educativos, concededores de su entorno sociolingüístico, a respetar sus decisiones y a renunciar a cualquier tipo de medida tendente a la imposición de un único modelo educativo, íntegramente en euskera, como ha venido sucediendo en los últimos años".



**EH BILDU TALDE PARLAMENTARIOA****OSOKO ZUZENKETA**

"Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

1. Berma dezala, 17/2023 Legean adierazi bezala, ikasleek, lehen hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1 maila lortzea bi hizkuntza ofizialetan, eta, derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 maila lortzea bi hizkuntza ofizialetan.
2. Ikastetxeetan beharrezko diren neurriak ezar ditzala finkatutako mailak lortzen direla bermatzeko, kontuan hartuta ingurune bakoitzaren abiapuntua eta ezaugarri soziolinguistiko eta sozioekonomikoak, gehien behar duenari gehiago emateko. Hizkuntza ofizialei eta atzerriko hizkuntzei buruzko gutxienezko helburu horiek Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten ikastetxe guztietan aplikatuko dira.
3. Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten ikastetxeetan, hezkuntza-proiektuaren osagai gisa, hizkuntza-proiektu propio bat egiten dutela berma dezala, hizkuntzak ikastetxean nola tratatu behar diren zehazteko, helburua izanik euskara ardatz nagusi izango duen sistema eleaniztuna bultzatzea, zeinean bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ikaskuntza-hizkuntzatzat hartuko baitira".

**EUSKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK****OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

1. Eragin-eremuetako hezkuntza-eskaintza publikoa bermatzea, hura osatzen duten udalerrietako prestakuntza-ibilbideen beharrak kontuan hartuta, eta ikasleei beharrezko laguntza eta tresnak ematea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean bi hizkuntza ofizialetan hizkuntza-gaitasun egokia izateko, 17/2023 Legearen aginduen arabera.
2. Ikasleek bi hizkuntza ofizialetan erabateko hizkuntza-gaitasuna izateko duten eskubidea bermatzearen alde egiten jarraitzea, aukeratzen duten hezkuntza-eredua edozein dela ere.

**GRUPO PARLAMENTARIO EH BILDU****ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento insta al Departamento de Educación:

1. A garantizar, tal y como se recoge en la Ley 17/2023, que el alumnado alcance, al finalizar la educación primaria, el nivel B1 del Marco Común de Referencia Europea en las dos lenguas oficiales y, al finalizar la educación secundaria obligatoria, el nivel B2 del Marco Común de Referencia Europea en las dos lenguas oficiales.
2. A establecer las medidas necesarias para garantizar la obtención de los niveles establecidos, teniendo en cuenta el punto de partida y las características sociolingüísticas y socioeconómicas de cada entorno, para dar más a quien más necesita. Estos objetivos mínimos en relación con las lenguas oficiales y lenguas extranjeras serán de aplicación en todos los centros que integran el Sistema Educativo Vasco.
3. A garantizar que los centros que componen el Sistema Educativo Vasco elaboran, como parte del proyecto educativo, su propio proyecto lingüístico que enmarque el tratamiento de las lenguas en el centro, con la finalidad de impulsar un sistema plurilingüe, en el que el euskera se sitúe como eje central y en el que las dos lenguas oficiales y al menos una lengua extranjera se consideran lenguas de aprendizaje".

**GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS****ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a:

1. Garantizar la oferta educativa pública de las distintas zonas de influencia atendiendo a las necesidades de los itinerarios formativos de los municipios que la integran, dotando a su alumnado del apoyo y de las herramientas necesarias para una competencia lingüística adecuada en las dos lenguas oficiales al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria de acuerdo con los preceptos de la Ley 17/2023.
2. Seguir apostando por garantizar el derecho del alumnado a una competencia lingüística plena en las dos lenguas oficiales, independientemente del modelo educativo que elija.



3. Ikastetxeetako hizkuntza-proiektuen alde egitea integrazioarako eta gizarte-kohesiorako tresna gisa, hizkuntzen ikaskuntza, horien erabilera eta ikasleek haiekiko izan behar duten jarrera positiboa sustatuz, haien abiapuntua, ezaugarri espezifikoak eta familiek dituztenak kontuan hartuta, ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran eskatzen diren hizkuntza-maila eta gaitasunak eskura ditzaten".

\*\*\*

**13/2025 Mozioa, hizkuntza-ereduei buruz** (Osoko Bilkuraren erabakia)  
(13/11.03.00.00033)

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen mozioa onestea, Muriel Larrea Laso Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak egin zuen interpelazioaren ondorioz aurkeztutakoa.

Lehendakaritza honek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 105.1 artikuluan adierazitakoari jarraituz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabaki hori.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, 13/2025 Mozioa onetsi du, hizkuntza-ereduei buruz, honako testu honen arabera:

"Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

1. Eragin-eremuetako hezkuntza-eskaintza publikoa bermatzea, hura osatzen duten udalerrietako prestakuntza-ibilbideen beharrak kontuan hartuta, eta ikasleei beharrezko laguntza eta tresnak ematea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean bi hizkuntza ofizialetan hizkuntza-gaitasun egokia izateko, 17/2023 Legearen aginduen arabera.
2. Ikasleek bi hizkuntza ofizialetan erabateko hizkuntza-gaitasuna izateko duten eskubidea bermatzearen alde egiten jarraitzea, aukeratzeko duten hezkuntza-eredua edozein dela ere.
3. Ikastetxeetako hizkuntza-proiektuen alde egitea integrazioarako eta gizarte-kohesiorako tresna gisa, hizkuntzen ikaskuntza, horien erabilera eta ikasleek haiekiko izan behar duten jarrera positiboa sustatuz, haien abiapuntua, ezaugarri espezifikoak eta familiek dituztenak kontuan

3. Apostar por los proyectos lingüísticos de los centros como herramienta de integración y cohesión social, promoviendo el aprendizaje de las lenguas, su uso y la actitud positiva del alumnado hacia ellas, teniendo en cuenta su punto de partida, sus características específicas y las de sus familias, con el objetivo de que el alumnado adquiera el nivel lingüístico y las competencias necesarias requeridas al final de cada etapa educativa".

\*\*\*

**Moción 13/2025, relativa a los modelos lingüísticos** (Acuerdo del Pleno)  
(13/11.03.00.00033)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 3 de abril de 2025, adoptó el acuerdo de aprobar la moción consecuencia de interpelación formulada por D.º Muriel Larrea Laso, parlamentaria del grupo Popular Vasco.

Esta Presidencia, al amparo de lo dispuesto en el artículo 105.1 del vigente Reglamento de la Cámara, ordena la publicación del mencionado acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 3 de abril de 2025, ha aprobado la Moción 13/2025, relativa a los modelos lingüísticos, con arreglo al siguiente texto:

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a:

1. Garantizar la oferta educativa pública de las distintas zonas de influencia atendiendo a las necesidades de los itinerarios formativos de los municipios que la integran, dotando a su alumnado del apoyo y de las herramientas necesarias para una competencia lingüística adecuada en las dos lenguas oficiales al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria de acuerdo con los preceptos de la Ley 17/2023.
2. Seguir apostando por garantizar el derecho del alumnado a una competencia lingüística plena en las dos lenguas oficiales, independientemente del modelo educativo que elija.
3. Apostar por los proyectos lingüísticos de los centros como herramienta de integración y cohesión social, promoviendo el aprendizaje de las lenguas, su uso y la actitud positiva del alumnado hacia ellas, teniendo en cuenta su punto de partida, sus características específicas



hartuta, ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran eskatzen diren hizkuntza-maila eta gaitasunak eskura ditzaten".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2025eko apirilaren 3an.

**Mahaiko lehen idazkaria, Jon Aiartza Zallo. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

***Amarralekuak emateko prozedurari eta amarraleku-emakiden araubideari buruz***  
(Zuzenketak)  
(13/11.03.00.00028)

Mahaiak, 2025eko apirilaren 8ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea ondoko zuzenketak, Ana Morales Peral Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak egin zuen interpelazioaren ondoriozko mozioari aurkeztutakoak, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

#### **EH BILDU TALDE PARLAMENTARIOA**

#### **OSOKO ZUZENKETA**

- "1. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio, 2025. urte honetako epean, alda dezala Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko Agindua, laketontzien titularrei amarralekuak emateko prozedura eta horiek erabiltzeko emakiden araubidea arautzen dituen, eta, agindua aldatu arte, ez dezala esleitu agindu horrekin esleitu ez diren portuetan –Bermeon, Orion, Hondarribian eta Getarian– amarralekuen erabileren emakidarik.
2. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio, 2017ko urriaren 19ko Agindua aldatzerakoan, ahalik eta azkarren, amarratzaileen elkarteekin batu, euren iritziak entzun eta eragile guztien adostasuna bilatzeko saiakera egin dezala, egungo erabiltzaileen antzintasuna kontutan hartuta, laketontzien titularrei amarralekuak emateko prozedurak sortzen duen arazoa konpontzeko.

y las de sus familias, con el objetivo de que el alumnado adquiera el nivel lingüístico y las competencias necesarias requeridas al final de cada etapa educativa".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de 2025.

**El secretario primero de la Mesa, Jon Aiartza Zallo. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

***Relativa al procedimiento de otorgamiento y al régimen de las concesiones de plazas de amarre***  
(Enmiendas)  
(13/11.03.00.00028)

La Mesa, en su reunión del día 8 de abril de 2025, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la moción consecuencia de interpelación formulada por D.ª Ana Morales Peral, parlamentaria del grupo Popular Vasco, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

#### **GRUPO PARLAMENTARIO EH BILDU**

#### **ENMIENDA DE TOTALIDAD**

- "1. El Parlamento insta al Gobierno a modificar, en el plazo de este año 2025, la Orden de 19 de octubre de 2017, de la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, por la que se regula el procedimiento de otorgamiento y el régimen de las concesiones de uso de plazas de amarre por titulares de embarcaciones de recreo. Asimismo, y hasta efectuarse la modificación de la orden, le insta a no adjudicar concesiones de uso de plazas de amarre en aquellos puertos que no fueran adjudicados en la mencionada orden –Bermeo, Orio, Hondarribia y Getaria–.
2. El Parlamento insta al Gobierno a que, a la hora de modificar la Orden de 19 de octubre de 2017, y a la mayor brevedad posible, trate de reunirse con las asociaciones de amarristas, escuchar sus opiniones y buscar el consenso de todos los agentes, tomando en consideración la antigüedad de los usuarios y las usuarias actuales, a fin de resolver el problema causado por el procedimiento de otorgamiento de plazas de amarre a titulares de embarcaciones de recreo.



3. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio hutsik geratu diren amarralekuetan esleipen berriak egin daitezela, betiere portu bakoitzeko amarratzaileen itxaron-zerrenden arabera".

### **EUZKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK**

#### **OSOKO ZUZENKETA**

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berrikeria eta egunera dezala, ahalik eta lasterren, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko Agindua. Berrikeria hori Euskadiko portuetan lakentziak erabiltzen dituzten elkarten parte-hartze aktiboa bermatuko duen parte-hartze prozesu baten bidez egin behar da, baita beste eragile garrantzitsu batzuekin ere, prozedura hobetzeko eta segurtasun juridikoa bermatzeko helburuarekin, betiere amarralekuak esleitzean objektibotasun- eta ekitate-printzipioak errespetatuz.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, ezin baita bestela izan, amarralekuak erabiltzeko emakidak esleitzeko prozedurari dagokionez jarritako administrazioarekiko auzi-errekursoetatik eratorritako epaiak beteko direla berma dezala.
3. Eusko Legebiltzarrak balioetsi egiten du Euskadiko Kirol Portuko (EKP) langileek Euskadiko kirol-portuen kudeaketan egindako lana, bai eta haien profesionaltasuna eta konpromisoa aitortu ere. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio administrazio-prozeduretan eta zerbitzuaren eraginkortasunean hobekuntzak ezartzen jarrai dezala, erabiltzaileen gogobetetzea eta konfiantza indartzeko eta kudeaketa gardena eta eraginkorra bermatzeko".

\*\*\*

**14/2025 Mozioa, amarralekuak emateko prozedurari eta amarraleku-emakiden araubideari buruz** (Osoko Bilkuraren erabakia)  
(13/11.03.00.00028)

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen mozioa onestea, Ana Morales Peral Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak egin zuen interpelazioaren ondorioz aurkeztutakoa.

3. El Parlamento insta al Gobierno a realizar nuevas adjudicaciones de las plazas de amarre que hayan quedado vacantes, de acuerdo, en todo caso, con las listas de espera de los amarristas de cada puerto".

### **GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS**

#### **ENMIENDA DE TOTALIDAD**

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a revisar y actualizar, en un plazo lo más breve posible, la Orden de 19 de octubre de 2017 de la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras. Dicha revisión deberá realizarse mediante un proceso de participación que garantice la participación activa de las asociaciones de usuarios y usuarias de embarcaciones de recreo en los puertos de Euskadi, así como con otros agentes relevantes, con el objetivo de mejorar el procedimiento y garantizar la seguridad jurídica, respetando en todo momento los principios de objetividad y equidad en la adjudicación de amarres.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco, como no puede ser de otra manera, a garantizar el cumplimiento de las sentencias derivadas de los recursos contencioso-administrativos interpuestos en relación con el procedimiento de adjudicación de concesiones de uso de plazas de amarre.
3. El Parlamento Vasco pone en valor la labor realizada por el personal de Euskadiko Kirol Portua (EKP) en la gestión de los puertos deportivos de Euskadi, reconociendo su profesionalidad y compromiso. Asimismo, insta al Gobierno Vasco a seguir implementando mejoras en los procedimientos administrativos y en la eficiencia del servicio, con el objetivo de reforzar la satisfacción y la confianza de las personas usuarias y garantizar una gestión transparente y eficaz".

\*\*\*

**Moción 14/2025, relativa al procedimiento de otorgamiento y al régimen de las concesiones de plazas de amarre** (Acuerdo del Pleno)  
(13/11.03.00.00028)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 3 de abril de 2025, adoptó el acuerdo de aprobar la moción consecuencia de interpelación formulada por D.ª Ana Morales Peral, parlamentaria del grupo Popular Vasco.



Lehendakaritza honek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 105.1 artikuluan adierazitakoari jarraituz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabaki hori.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarrak, 2025eko apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, 14/2025 Mozioa onetsi du, amarralekuak emateko prozedurari eta amarraleku-emakiden araubideari buruz, honako testu honen arabera:

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berrikus eta egunera dezala, ahalik eta lasterren, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko Agindua. Berrikuspen hori Euskadiko portuetan lakentziak erabiltzen dituzten elkarten parte-hartze aktiboa bermatuko duen parte-hartze prozesu baten bidez egin beharko da, baita beste eragile garrantzitsu batzuekin ere, prozedura hobetzeko eta segurtasun juridikoa bermatzeko helburuarekin, betiere amarralekuak esleitzean objektibotasun- eta ekitate-printzipioak errespetatuz.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, ezin baita bestela izan, amarralekuak erabiltzeko emakidak esleitzeko prozedurari dagokionez jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoetatik eratorritako epaiak beteko direla berma dezala.
3. Eusko Legebiltzarrak balioetsi egiten du Euskadiko Kirol Portuko (EKP) langileek Euskadiko kirol-portuen kudeaketan egindako lana, bai eta haien profesionaltasuna eta konpromisoa aitortu ere. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio administrazio-prozeduretan eta zerbitzuaren eraginkortasunean hobekuntzak ezartzen jarrai dezala, erabiltzaileen gogobetetzea eta konfiantza indartzeko eta kudeaketa gardena eta eraginkorra bermatzeko".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2025eko apirilaren 3an.

**Mahaiko lehen idazkaria, Jon Aiertza Zallo. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*

Esta Presidencia, al amparo de lo dispuesto en el artículo 105.1 del vigente Reglamento de la Cámara, ordena la publicación del mencionado acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 3 de abril de 2025, ha aprobado la Moción 14/2025, relativa al procedimiento de otorgamiento y al régimen de las concesiones de plazas de amarre, con arreglo al siguiente texto:

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a revisar y actualizar, en un plazo lo más breve posible, la Orden de 19 de octubre de 2017 de la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras. Dicha revisión deberá realizarse mediante un proceso de participación que garantice la participación activa de las asociaciones de usuarios y usuarias de embarcaciones de recreo en los puertos de Euskadi, así como con otros agentes relevantes, con el objetivo de mejorar el procedimiento y garantizar la seguridad jurídica, respetando en todo momento los principios de objetividad y equidad en la adjudicación de amarres.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco, como no puede ser de otra manera, a garantizar el cumplimiento de las sentencias derivadas de los recursos contencioso-administrativos interpuestos en relación con el procedimiento de adjudicación de concesiones de uso de plazas de amarre.
3. El Parlamento Vasco pone en valor la labor realizada por el personal de Euskadiko Kirol Portua (EKP) en la gestión de los puertos deportivos de Euskadi, reconociendo su profesionalidad y compromiso. Asimismo, insta al Gobierno Vasco a seguir implementando mejoras en los procedimientos administrativos y en la eficiencia del servicio, con el objetivo de reforzar la satisfacción y la confianza de las personas usuarias y garantizar una gestión transparente y eficaz".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de 2025.

**El secretario primero de la Mesa, Jon Aiertza Zallo. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria Otermin**

\*\*\*



## EBAZPENAK RESOLUCIONES

**Europar Batasuneko proposamena: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendua. Restore: berreraikuntzarako premiazko eskualde-laguntza, 2021/1058 (EB) Erregelamendua eta 2021/1057 (EB) Erregelamendua aldatzen dituenak** (Batzordearen erabakia)  
(13/20.00.00.00007)

Mahaiak, 2025eko apirilaren 8ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila Erakunde, Gobernantza Publiko eta Segurtasunaren Batzordeak hartutako erabakia.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Erakunde, Gobernantza Publiko eta Segurtasunaren Batzordeko Mahaiak, Legebiltzarreko Mahaiak 2011ko irailaren 13an onetsitako erabakian xedatutakoaren arabera jokatuz, behean adierazten den erabakia hartu du proposamen honi buruz: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendua. Restore: berreraikuntzarako premiazko eskualde-laguntza, 2021/1058 (EB) Erregelamendua eta 2021/1057 (EB) Erregelamendua aldatzen dituenak.

- "1. Proposamen hori Europar Batasunerako Batzorde Mistoko Idazkaritzak bidali zion Legebiltzar honi, subsidiariorotasun-printzipioaren betekuntza egiaztatze aldera 'alerta azkarra' izeneko prozeduraren bitartez hain zuzen ere.
2. Ezarritako epearen barruan, talde parlamentarioek ez dute inolako oharrik egin, ez eta agerraldirik eskatu ere.
3. Aipatutako egitate horiek oinarri hartuta, batzordea erregelamendu-proposamenaren jakitun geratu da, eta adierazi du ez duela hauteman inolako oinarririk edo ziorik justifikatzeko ez dela egokitzen subsidiariorotasun-printzipiora".

Eta horrela jasota geratzeko, ziurtagiri hau egiten da batzordeburuaren oniritziarekin, Gasteizen, 2024ko azaroaren 28an.

**Batzordeko idazkaria, Ekain Rico Lezama.  
Ontzat emana, batzordeburua, Olatz Peon Ormazabal**

\*\*\*

**Propuesta de reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo. Restore: apoyo regional urgente para la reconstrucción, que modifica el Reglamento (UE) 2021/1058 y el Reglamento (UE) 2021/1057** (Acuerdo de la comisión)  
(13/20.00.00.00007)

La Mesa, en su reunión del día 8 de abril de 2025, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del acuerdo adoptado por la Comisión de Instituciones, Gobernanza Pública y Seguridad.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

La Mesa de la Comisión de Instituciones, Gobernanza Pública y Seguridad, actuando conforme a lo dispuesto por el acuerdo de la Mesa del Parlamento de 13 de septiembre de 2011, ha acordado, en relación con la propuesta de reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo. Restore: apoyo regional urgente para la reconstrucción, que modifica el Reglamento (UE) 2021/1058 y el Reglamento (UE) 2021/1057, lo siguiente:

- "1. La propuesta ha sido enviada a este Parlamento por la Secretaría de la Comisión Mixta para la Unión Europea, en orden a la verificación del cumplimiento del principio de subsidiariedad mediante el procedimiento conocido como 'alerta rápida'.
2. Dentro del plazo establecido, no se han formulado observaciones por parte de los grupos parlamentarios ni se han solicitado comparencias.
3. Con base en los hechos anteriormente referidos, la comisión toma conocimiento de la propuesta de reglamento, sin que le conste fundamento o motivo alguno en el que pueda justificarse su no adecuación al principio de subsidiariedad".

Y para que así conste, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta de la comisión, en Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2024.

**El secretario de la comisión, Ekain Rico Lezama. Visto bueno, la presidenta de la comisión, Olatz Peon Ormazabal**

\*\*\*



**Europar Batasuneko proposamena: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendua, bidaia-datuen aurkezpen elektronikorako aplikazio bat ezartzen duena ("EBren bidaia digitalerako aplikazioa") eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/399 (EB) eta 2018/1726 (EB) Erregelamenduak eta Kontseiluaren 2252/2004 (EE) Erregelamendua aldatzen dituen, bidaia-txartel digitalen erabilerari dagokionez**  
(Batzordearen erabakia)  
(13/20.00.00.00009)

Mahaiak, 2025eko apirilaren 8ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila Erakunde, Gobernantza Publiko eta Segurtasunaren Batzordeak hartutako erabakia.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Erakunde, Gobernantza Publiko eta Segurtasunaren Batzordeko Mahaiak, Legebiltzarreko Mahaiak 2011ko irailaren 13an onetsitako erabakian xedatutakoaren arabera jokatzuz, behean adierazten den erabakia hartu du proposamen honi buruz: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendua, bidaia-datuen aurkezpen elektronikorako aplikazio bat ezartzen duena ("EBren bidaia digitalerako aplikazioa") eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/399 (EB) eta 2018/1726 (EB) Erregelamenduak eta Kontseiluaren 2252/2004 (EE) Erregelamendua aldatzen dituen, bidaia-txartel digitalen erabilerari dagokionez

- "1. Proposamen hori Europar Batasunerako Batzorde Mistoko Idazkaritzak bidali zion Legebiltzar honi, subsidiariotasun-printzipioaren betekuntza egiaztatze aldera 'alerta azkarra' izeneko prozeduraren bitartez hain zuzen ere.
2. Ezarritako epearen barruan, talde parlamentarioek ez dute inolako oharririk egin, ez eta agerraldirik eskatu ere.
3. Aipatutako egitate horiek oinarri hartuta, batzordea erregelamendu-proposamenaren jakitun geratu da, eta adierazi du ez duela hauteman inolako oinarririk edo ziorik justifikatzeko hura ez dela egokitzen subsidiariotasun-printzipiora".

**Propuesta de reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo, por el que se establece una aplicación de presentación electrónica de datos de viaje ("aplicación de viaje digital de la UE") y se modifican los Reglamentos (UE) 2016/399 y (UE) 2018/1726 del Parlamento Europeo y del Consejo y el Reglamento (CE) n.º 2252/2004 del Consejo, en lo que respecta al uso de credenciales de viaje digitales** (Acuerdo de la comisión)  
(13/20.00.00.00009)

La Mesa, en su reunión del día 8 de abril de 2025, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del acuerdo adoptado por la Comisión de Instituciones, Gobernanza Pública y Seguridad.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

La Mesa de la Comisión de Instituciones, Gobernanza Pública y Seguridad, actuando conforme a lo dispuesto por el acuerdo de la Mesa del Parlamento de 13 de septiembre de 2011, ha acordado, en relación con la propuesta de reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo, por el que se establece una aplicación de presentación electrónica de datos de viaje ("aplicación de viaje digital de la UE") y se modifican los Reglamentos (UE) 2016/399 y (UE) 2018/1726 del Parlamento Europeo y del Consejo y el Reglamento (CE) n.º 2252/2004 del Consejo, en lo que respecta al uso de credenciales de viaje digitales, lo siguiente:

- "1. La propuesta ha sido enviada a este Parlamento por la Secretaría de la Comisión Mixta para la Unión Europea, en orden a la verificación del cumplimiento del principio de subsidiariedad mediante el procedimiento conocido como 'alerta rápida'.
2. Dentro del plazo establecido, no se han formulado observaciones por parte de los grupos parlamentarios ni se han solicitado comparencias.
3. Con base en los hechos anteriormente referidos, la comisión toma conocimiento de la propuesta de reglamento, sin que le conste fundamento o motivo alguno en el que pueda justificarse su no adecuación al principio de subsidiariedad".



Eta horrela jasota geratzeko, ziurtagiri hau egiten da batzordeburuaren oniritziarekin, Gasteizen, 2024ko abenduaren 17an.

**Batzordeko idazkaria, Ekain Rico Lezama.**  
**Ontzat emana, batzordeburua, Olatz Peon Ormazabal**

\*\*\*

*Europar Batasuneko proposamena: Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren erregelamendua, zeinak aldatzen baitu 2017/1938 (EB) Erregelamendua neguko denboraldia baino lehen gas-hornidura bermatzeko gasa biltegitzaren eginkizunari buruz* (Batzordearen erabakia)  
 (13/20.00.00.00018)

Mahaiak, 2025eko apirilaren 8ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Batzordeak hartutako erabakia.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Batzordeko Mahaiak, Legebiltzarreko Mahaiak 2011ko irailaren 13an onetsitako erabakian xedatutakoaren arabera jokatu, behean adierazten den erabakia hartu du proposamen honi buruz: Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren erregelamendua, zeinak aldatzen baitu 2017/1938 (EB) Erregelamendua neguko denboraldia baino lehen gas-hornidura bermatzeko gasa biltegitzaren eginkizunari buruz:

- "1. Proposamena Europar Batasunerako Batzorde Mistoko Idazkaritzak bidali zion Legebiltzar honi, subsidiariotasun-printzipioaren betekuntza egiaztatze aldera 'alerta azkarra' izeneko prozeduraren bitartez.
2. Ezarritako epearen barruan talde parlamentarioek ez dute inolako oharririk egin, ez eta agerraldirik eskatu ere.
3. Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailak Batzordeari idazki bat helarazi zion 2025eko martxoaren 7an, non ez den zalantzan jartzen Europar Batasunaren ekimenak subsidiariotasun-printzipioa errespetatzen duela.

Y para que así conste, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta de la comisión, en Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 2024.

**El secretario de la comisión, Ekain Rico Lezama. Visto bueno, la presidenta de la comisión, Olatz Peon Ormazabal**

\*\*\*

*Propuesta de reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo por el que se modifica el Reglamento (UE) 2017/1938 en lo que respecta al papel del almacenamiento de gas a la hora de garantizar el suministro de gas antes de la temporada de invierno* (Acuerdo de la comisión)  
 (13/20.00.00.00018)

La Mesa, en su reunión del día 8 de abril de 2025, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del acuerdo adoptado por la Comisión de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

La Mesa de la Comisión de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, actuando conforme a lo dispuesto por el acuerdo de la Mesa del Parlamento de 13 de septiembre de 2011, ha acordado, en relación con la propuesta de reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo por el que se modifica el Reglamento (UE) 2017/1938 en lo que respecta al papel del almacenamiento de gas a la hora de garantizar el suministro de gas antes de la temporada de invierno, lo siguiente:

- "1. La propuesta ha sido enviada a este Parlamento por la Secretaría de la Comisión Mixta para la Unión Europea en orden a la verificación del cumplimiento del principio de subsidiariedad mediante el procedimiento conocido como 'alerta rápida'.
2. Dentro del plazo establecido no se han formulado observaciones por parte de los grupos parlamentarios ni se han solicitado comparencias.
3. El Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad remitió el 7 de marzo de 2025 a la Comisión un escrito en el que no se cuestiona el respeto de la iniciativa de la Unión Europea con el principio de subsidiariedad.



4. Aipatutako egitate horiek oinarri hartuta, Batzordea direktiba-proposamenaren jakitun geratu da, eta adierazi du ez duela hauteman inolako oinarri edo ziorik justifikatzeko ez dela egokitzen subsidiariotasun-printzipiora".

Eta horrela jasota geratzeko, ziurtagiri hau egiten da batzordeburuaren oniritziarekin, Gasteizen, 2025eko apirilaren 3an.

**Batzordeko idazkaria, Patricia Campelo Martínez. Ontzat emana, batzordeburua, Mikel Arruabarrena Azpitarte**

\*\*\*

4. Con base en los hechos anteriormente referidos, la Comisión toma conocimiento de la propuesta de directiva, sin que le conste fundamento o motivo alguno en el que pueda justificarse su no adecuación al principio de subsidiariedad".

Y para que así conste, se expide la presente certificación con el visto bueno del presidente de la comisión, en Vitoria-Gasteiz, 3 de abril de 2025.

**La secretaria de la comisión, Patricia Campelo Martínez. Visto bueno, el presidente de la comisión, Mikel Arruabarrena Azpitarte**

\*\*\*

## INTERPELAZIOAK INTERPELACIONES

*Justizia Zerbitzu Publikoaren efizientiaren arloko neurriei buruzko urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoa Euskadin ezartzearen inguruan* (Izapidetzeko onartzea) (13/10.04.01.00048)

Mahaiak, 2025eko apirilaren 8ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea Santiago López Céspedes Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak Justizia eta Giza Eskubideen sailburuari egindako INTERPELAZIOA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Santiago López Céspedes Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak, idazki honen bidez, eta Eusko Legebiltzarrean indarrean den Erregelamendua baliatuz, interpeleazio hau egiten dio María Jesús Carmen San José López Justizia eta Giza Eskubideen sailburu andreari, Justizia Zerbitzu Publikoaren efizientiaren arloko neurriei buruzko urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoa Euskadin ezartzearen inguruan.

Arrazoiak

Euskadin Justizia Zerbitzu Publikoaren efizientziari buruzko 1/2025 Lege Organikoa ezarri zenetik, agerian geratzen ari dira erreformaren planifikazioan eta gauzatzean dauden gabeziak eta hutsuneak. Legebiltzarkide honek egindako zenbait informazio-eskaeratan Justizia eta Giza Eskubideen Sailak emandako informazioak erakusten du kezkarria dela ez egotea alde aurreko azterlanik lan-kargan duen benetako eraginari buruz, eta ez dagoela informaziorik, inondik ere, erreforma honek

*Relativa a la implantación en Euskadi de la Ley Orgánica 1/2025, de 2 de enero, de medidas en materia de eficiencia del Servicio Público de Justicia* (Admisión a trámite) (13/10.04.01.00048)

La Mesa, en su reunión del día 8 de abril de 2025, acuerda admitir a trámite la INTERPELACIÓN formulada a la consejera de Justicia y Derechos Humanos por D. Santiago López Céspedes, parlamentario del grupo Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Santiago López Céspedes, parlamentario del grupo Popular Vasco, por medio del presente escrito y al amparo del vigente Reglamento del Parlamento Vasco, formula la siguiente interpeleación a la consejera de Justicia y Derechos Humanos, doña María Jesús Carmen San José López, relativa a la implantación en Euskadi de la Ley Orgánica 1/2025, de 2 de enero, de medidas en materia de eficiencia del Servicio Público de Justicia.

Justificación

La implantación en Euskadi de la Ley Orgánica 1/2025, relativa a la eficiencia del Servicio Público de Justicia, está evidenciando carencias y deficiencias en la planificación y ejecución de la reforma. La información aportada por el Departamento de Justicia y Derechos Humanos en diferentes respuestas a solicitudes de información planteadas por este parlamentario refleja una preocupante falta de estudios previos sobre el impacto real en la carga de trabajo, así como una ausencia clara de información



dakartzan egiturazko aldaketei aurre egiteko behar diren langile-dotazio eta bitarteko materialei buruz.

Halaber, asaldagarria da ez egotea alde zureko planifikaziorik eraginpean dauden langile judizialen prestakuntza eta egokitzapenean, eta horrek zalantza eta laneko ziurtasunik eza eragiten die langileei. Azalpen gutxi eman da sindikatu eta elkarte profesionalen egindako kontsulten eta haiekiko negoziazioen edukiri eta emaitza eraginkorrei buruz, eta lankidetzaren organoak ez du bileren formalik izan idazkaritza judizialarekin azken hilabeteetan; horrek guztiak erakusten du kezkarria dela erakundearen ahulezia, eta koordinazioa eskasa ari dela izaten.

Hori guztia dela eta, María Jesús Carmen San José López Justizia eta Giza Eskubideen sailburu andreari eskatzen diogu erantzun diezaiola interpelazio honi.

#### INTERPELAZIOA

